Quant aux noms basques qui survécurent à la romanisation puis à l'occitanisation ils sont éparsillés dans tout le domaine gascon, parmi les toponymes majeurs nous relevons des noms communs à la langue basque tels pour la vallée *Aran et Ibar* (en Béarn, Bigorre et bien sûr en val d'Aran) les noms de montagne sous la forme *Garai* (en Béarn) de forêts *Oyenne* (du basque Oihen) *Isseye* (du basque Izei sapin), etc. Les toponymes en *Urda*, *Oza-*, *Bizkar-*, sont répartis également entre L'Ariège et la Biscaye et au Nord et au Sud des Pyrénées.

Le plus joli des toponymes ainsi recueilli est le nom du chemin qui va d'Arette à Lanne par la montagne et qui se dit encore de "Herricherri" ce qui veut dire en basque de village en village; il faut dire que la

vallée de Barétous fut certainement la dernière du Béarn qui abandonna la langue basque, même si un quartier situé loin de ce beau toponyme parle encore notre langue à Lanne.

Dans une autre étude qui portait sur le censier de Béarn de 1385 je relevai il y a quelques décennies que dans les localités actuellement béarnaises de langue, et presque toutes appartenant à la Souveraineté, comprises entre Lichos et Sauveterre dans le Bas-Saison, la majorité des maisons avaient encore des noms basques. Là aussi ce fut certainement un des derniers foyers de la langue en Béarn; Monsieur Jacques Allières pense, par l'observation linguistique, qu'en Chalosse notre euskara aurait pu se maintenir jusqu'au XIII^e siècle dans quelques îlots. Nous ne rappelons pas tout cela comme l'écrivait R. Lapassace en parlant de Frédéric Fellini "shens nostalgia de las causas dispares hudas" et j'ajouterais "ne podem pas viver dab los arragrets".

Pour désigner ce substrat basque, oserai-je en occitan le mot *sustradje*? Ce mot qui désigne la litière des animaux conviendrait bien à l'étude de nos langues européennes constituées de couches qui se superposent sans s'éliminer totalement. En effet, hormis les noms de lieux, le substrat basque a laissé en gascon des traces dans la phonétique, traces moins nettes, maintenant que la prononciation tend, comme chez nous, à se modéliser sur celles des langues impériales majeures.

Par ailleurs, Gerhardt Rohlfs, le défunt chercheur allemand et pyrénéen, put sélectionner une centaine de termes d'origine basque épargnés dans les parlers gascons: la plupart de ces mots se rapportaient au monde minéral, aux végétaux, aux animaux. Ces termes communs aux deux langues et ces échanges sont plus nombreux aux marges linguistiques (talo pour galette, nesque pour fille, quisquat pour fêler). Ainsi, l'ancien parler gascon de Bayonne abonde en ces termes; inversement les Basques du lieu, emploient *natre* pur "pour" *apurillo* pour "abondant", et d'autres exclamations du vocabulaire des marchands dont le *analeka*.

Rohlfs, dans sa grande prudence, ne rattachait au basque que des termes qui avaient un correspondant usuel dans la langue moderne; pour les autres, devenus des hapax dans notre euskara il préférait le terme de pyrénéisme ou de prélatin: l'étymologie est un domaine difficile et aussi glissant que les schistes et les flyshs de nos montagnes, aussi me fut —il plus facile de comparer notre langue avec des idiomes avec lesquels nous avions la certitude d'un contact: le castillan et l'occitan.

Le fond basque étant peu riche en gascon, je ne sais point dans quelle mesure des termes basques indigènes seront acceptés par votre

langue moderne; quant à nous, nous verrons ce qu'homothétiquement nous faisons du superstrat occitan, qui, plus tard nous a contaminé.

L'histoire nous apprend que les populations de la Gascogne, de même que celles des montagnes d'Aragon, du val d'Aran, du Pallars catalan n'ont pas changé, mais bien qu'elles ont abandonné la langue d'origine, celle qui faisait dire à Jules César, dès la première page de *De Bello Gallico* qu'en franchissant la Garonne et au sud de ce fleuve il n'y avait plus de Gaulois mais des Aquitains, dont l'aspect physique et la civilisation étaient identique à ceux des peuples du nord de l'Espagne.

Malgré la réalisation d'une Novempopulanie, par les Aquitains, pour s'isoler des Gaulois dans cet empire romain la langue basque reculera d'abord dans les plaines par romanisation puis dans les montagnes par occitanisation. Dans ce dernier cas il se peut que la christianisation en soit une cause.

Plus tard Sanche le Grand roi de Navarre réalisera l'union de toutes les terres vasconnes, de tous ces pays qui étaient de même civilisation avant les Romains et qui savaient renouer leurs liens en cas de danger d'invasions des barbares du nord. En créant votre langue vous avez choisi une voie qu'il vous est difficile de maintenir, nous ne pensons pas vous enseigner à tous la langue basque mais nous espérons, nous souhaitons, que vous la considérez comme une partie du patrimoine gascon, puisque ce fut la langue de vos ancêtres.

“Le troisième point de cette synthèse est l'apport important de l'occitan au lexique de tous les dialectes basques.”

En effet nous avons, à l'instar des anglo-saxons emprunté 55 % de notre vocabulaire aux langues néo-latines qui nous ont encerclés nous laissant seule comme langue non-indoeuropéenne de la région après la disparition de l'ibère au sud.

Pour ce qui est de l'occitan nous avons évoqué assez longuement dans notre abans-disér les quelques raisons externes aux emprunts: ainsi le contact des deux idiomes aux limites linguistiques, la transhumance, le travail saisonnier l'émigration, l'officialisation de l'occitan en territoire bascophone sont les causes positives principales; pour la Soule convoitée tout au long du Moyen-Age par les Souverains de Béarn-il y eut deux occupatons militaires, dont une d'une trentaine d'année au XVème siècle sur laquelle Jacques de Bela béarnais d'origine et basquisé écrivit; dans le Commentaire à la Coutume de Soule de 1660, à propos du For rédigé en béarnais, en 1520 (fut faite):

“la dite rédaction par écrit de langage Béarnois auquel vraisemblablement elle lui fust proposée a cause que le Comte de Foix,

seigneur de Bearn posséda cette Soule pas plusieurs ans et Jusqu'à l'année 1474 que Charles VII le lui racheta et que durant ledit tems de la jouissance de cette Soule par ledit Seigneur de Bearn ses officiers parlurent et domesticarent ici le dit langage bearnois qui était encore au dit an 1520 entre ceux qui s'y mêlaient du fait des écritures."

Probablement que les notaires et avocats étudiaient alors à Toulouse en latin et occitan, mais dès le milieu du XVIème siècle ils se rendent à Bordeaux et le français s'impose dans les écrits administratifs et juridiques en Soule.

Nous avons au XVIIIème siècle des témoignages de la polyglossie des Basques par Jusef Egiategi, philosophe souletin qui écrivait, dans les décennies précédant la Révolution française en ces termes en basque:

Aspaldian dago errana gizona dela hanbatetan gizon nola mintzo suberte baitaki; topa ere hüskaldün meditarrak dakian espainola delako hen aizo; topa ere ordokitarak dakian biarnesa edo zerbait frantsesetik hantik biek dütükien abantailla gatik.

Depuis longtemps l'on dit que l'homme est d'autant plus homme qu'il sait de variétés de langages: voyez les avantages que peuvent en avoir, les basques de la montagne qui parlent espagnol et ceux de la plaine le béarnais et quelque peu de français.

Il ajoute toutefois, et bien que régent d'humanités au collège de Mauléon comme je viens de le découvrir, que

"bena beren artian ta etsaien eretzian hüskara xahia dezen mintza da ene egarria".

"Mais qu'entre eux et face aux dénigreurs qu'ils parlent en bon basque, telle est ma soif" (Jüsef Egiategi, *Lehen libüria* (1785) Euskaltzaindia, Bilbao, 1983).

Voyons maintenant quels sont les emprunts lexicologiques à l'occitan, en examinant les difficultés de classement, l'aspect quantitatif, l'aspect qualitatif et les domaines de la langue où nous avons emprunté.

Moins téméraires et peut-être plus scientifiques les auteurs du dictionnaire de P. Lhande qualifièrent de "roman" sans autre précision de nombreux termes, faute de disposer à l'époque d'un dictionnaire du gascon. Ma reflexion partit et rejoignit celle du chercheur Martin Haase, à savoir que le basque emprunte peu, directement au français. Personnellement il me sembla que la différence des phonétiques du basque et du

français gênait ces emprunts et que c'était au travers du filtre occitan plus souple que nous parvenaient ces mots d'origine française. Ainsi nous entendons bien le "t" final des mots tels *sujet, berset* c'est que ces mots proviennent du gascon et non du français; encore plus, lorsque ces mots sont purement gascons, *klisket, adret, dret*.

Depuis, Martin Haase, montra avec un suffixe d'origine latine ancienne, que le basque pouvait adopter directement un mot français en lui faisant subir les transformations réalisées dans le passé sur l'occitan; avec le suffixe *-mendu* le mot français "enregistrement" devient *errejistratramendu*. Il reste beaucoup à faire dans ce domaine en direction des romances aragonais et navarrais parlés près de nous.

Bien sûr, à l'origine, le basque emprunt surtout aux divers latins (latin populaire, hispano-latín, latin d'Eglise) et aux différents romances (navarrais, aragonais, castillan). Pour le castillan un sondage publié il ya a 20 ans me donna en souletin environ 50 mots usuels. Il semble que l'occitan ait donné autant que les romances et le latin aux dialectes basques orientaux, mais son apport au basque central, et au basque occidental ou biscaïen n'est pas négligeable. Dans un travail en cours et uniquement sur les mots à initiale "a" j'ai repéré une centaine de mots biscaïens d'aspects romans qui ne sont ni galiciens, ni castillans modernes, la comparaison avec l'occitan reste à faire, ainsi qu'avec le castillan ancien et les romances.

Quant à l'occitan nous fîmes une recherche destinée à notre Académie Royale de la Langue Basque, étude, presque exhaustive des emprunts du dialecte souletin au parler béarnais par l'étude de notre parler familial, le dépouillement de six dictionnaires et lexiques, de manuscrits d'origine populaire, de la littérature du XVIIème siècle à nos jours, pour réaliser un corpus d'environ 2.000 mots qui ont fait un passage, plus ou moins prolongé, dans ce dialecte. Sur ces 1985 mots d'origine occitane, 950 sont encore compris et utilisés par les bascophones actuels; les autres mots, fréquemment liés à des costumes, des techniques des outils du XVIIIème siècle et qui avaient survécu jusqu'au milieu du XXème, ont disparu dans les oubliettes du progrès matériel.

Une seconde étude, moins étendue, portant sur des corpus, hélas expurgés des dialectes bas-navarrais, labourdin, biscaïen, étude que nous présenterons au Congrès International d'Etudes Occitanes à Gasteiz à la fin du mois d'Août, nous révéla, malgré tout, que tous les dialectes orientaux de la langue basque, souletin, bas-navarrais, haut-navarrais, labourdin, possédaient, en nous limitant à l'initiale "A" du lexique, un fond commun d'une centaine de mots d'origine occitane.

A cette masse de base, s'ajoute 30 à 50 mots d'emprunts propres à chaque dialecte, ce qui nous donne trois listes additives supplémentaires; ces mini-corpus peuvent s'expliquer d'une part la diversité des dialectes occitans en contact (Béarn, Chalosse, Maransin) d'autre part par la différence d'activité des provinces basques: en Labourd des emprunts dans le lexique de la mer, en Soule des termes de charpente. C'est ainsi que les souletins ont pris le mot béarnais "piñolet" pour désigner le "flan" et les navarro-labourdins le gascon landais "coca" à cet effet.

Le Basque était-il si impotent avec sa langue antique pour qu'il empruntât tant aux voisins? Certes tous ces mots n'étaient pas indispensables; ainsi pour le souletin dans 55 % des cas d'emprunt il existe un ou plusieurs synonymes, parfois connotés différemment, et à des registres de langage différents dans 35 % des cas le terme occitan est dominant et seulement dans 10 % des emprunts soit pour 93 mots, ce dialecte ne possède aucun équivalent basque.

Dans son traité *Diálogo de la lengua* Juan de Valdès ne s'explique par toujours clairement pourquoi le doublet d'origine arabe est préféré à celui d'origine latine dans l'usage espagnol:

"Y avéis de saber que, aunque para muchas cosas de las que nombramos con vocablos arávigos tenemos vocablos latinos, el uso nos ha hecho tener por mejores los arávigos que los latinos, y de aquí es que dezimos antes *alhombra* que tapete y tenemos por mejor vocablo *alcrevite* que piedra sufre, y *azeite* que olio, y si mal no m'engaño, hallaréis que para solas aquellas cosas, que avemos tomado de los moros, no tenemos otros vocablos con que nombrarlas sino los arávigos que ellos mesmos con las mesmas cosas nos introduxeron" (Juan de Valdès, *Diálogo de la lengua*, Clásicos españoles; Espasa Calpe, S. A. Madrid, 1946).

Quels sont les champs sémantiques, les domaines du lexique où les emprunts se sont faits?

C'est dans le vocabulaire de la psychologie, des relations humaines que nos émigrés, nos saisonniers de Gascogne nous ont importé de nombreux termes: le bric à brac des mots péjoratifs s'est le mieux conservé. C'est également, et en liaison avec le fait précédent dans le domaine de la "trufa e de l'arrider" dans le comique que le parler béarnais fut et est utilisé.

Au Carnaval, les noirs, Bohémiens et Cauters ont parfois des noms occitans et s'expriment dans un béarnais approximatif; de même les avocats des parades charivariques mêlent allègrement français et oc-

citan, d'où la surabondance des perles du type: *desestrük/malestrük, au-jami, injiminas, talabahüt, kauke, maladret, blagabidau*, etc. dont certains ont disparu des parlers gascons, et dont beaucoup sont absents des dictionnaires basques, même les moins purifiés.

Souvent les objets, les matières, les actes répugnantes ont en basque des noms anciennement pris au latin populaire (*kaka, pixa, materia, bahütis, muki, gahun*, etc.). Dans le domaine de la dépréciation le dialecte souletin est allé jusqu'à préférer le *ments* occitan au basque *gütiago* pour signifier "moins". Ce n'est pas le propre du basque que d'employer des emprunts, soit que certains ne veuillent pas salir leur belle langue, soit que le plus souvent le mot étranger leur semble moins choquant, soit par une forme de chauvinisme universelle. Bien que la langue basque ne manque pas de jurons indigènes le lexique des bascophones en ce domaine est extrêmement riche; toutefois les jurons sont plutôt castillans, nos ancêtres s'étant instruits en la matière, dans le berceau de la langue et des jurons espagnols: la vallée de l'Ebre. Cependant nous connûmes des sujets surnommés d'après leurs jurons: *Perjiu! Hilh de puta! Dio Vivant! Dio Vivost!*

Dans l'ensemble c'est dans le domaine des technologies anciennes que nous trouvons le plus d'emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne et cela nous permet d'ajouter quelques arguments linguistiques aux historiens des technologies et de leur diffusion.

Sur cette observation de l'apport occitan au vocabulaire technique basque, nous avons procédé à un rapide sondage dans le lexique des pêcheurs du dialecte biscaïen: d'un roman sur la vie maritime écrit en 1901, *Kresala* de Txomin Agirre nous avons extrait dans un rapide sondage vingt trois termes usuels d'origine nettement gasconne (pour la proue *branka*, pour la rame, *arraun*, pour le rocher *arroka*, pour la vague, *baga, tirain*, pour le bordage de la chaloupe, *karel*, passage des rames: *tolet*, attache de filets *triket*, etc.

Cet apport, ces emprunts peuvent s'expliquer par la présence de colonies de pêcheurs gascons de Biarritz à Bermeo le long de la côte, mais aussi par la prééminence de Bayonne dans la construction navale, dès que les Gascons s'établirent dans cette dernière ville à la fin du XII^e siècle. On prétend que cet art nautique leur fut communiqué par les Normands, les preuves manquent; ce qui est certain par contre c'est l'occitanisation partielle du vocabulaire maritime de la côte basque.

Toutefois et par acquis de conscience, sachant que des ports de pêche de Biscaye avaient été repeuplés, en partie par des Galiciens, je consultai un dictionnaire de cette langue et n'y trouvai aucun de ces termes.

Il fut un temps ou même dans le domaine agricole nous empruntions le vocabulaire occitan, mais si nos anciens adoptèrent *dalh, sega, haxe, trukesa, taula, arrastelu, arradail*, de nos jours les jeunes parlent de *kornpikerra, kripa, ranbalera* ce qui montre que les Britanniques ne parlent plus la langue de Richard Coeur de Lion, l'occitan. Desormais, en basque, hormis ce vieux fond, ce sont des mots internationaux des termes espagnols qui envahissent le basque standard parlé, que diffusent nos radios et notre télévision, mais ne vaut-il pas mieux mal parler que ne pas parler du tout.

Les autres domaines, les autres champs sémantiques touchés par les emprunts, hormis les termes d'agriculture ou les termes purement latins sont aussi abondants sont ceux des métiers, de l'artisanat, certaines techniques de construction venues du Béarn, nous ont valu les *gapirio, sume, taula, kobla, teila* des charpentiers; de même une partie des termes du tissage, du travail du cuir furent d'origine occitane et ont disparu de l'usage avec ces artisanats.

La cuisine basque certes est célèbre et au cours de ce siècle elle est devenu une des grandes cuisines européennes mais curieusement c'est le sujet le moins traité dans la production pourtant variée du livre basque. En Pays Basque nord les termes de cuisines sont fréquemment occitans.

Nous avons marqué notre étonnement devant la rareté des termes juridiques et administratifs basques d'origine occitane malgré un monopole de cette langue durant trois ou quatre siècles chez nous, le plus remarquables sont: *debeka-* "défendre", sans doute *pleteiu* "plaidoirie", *notari:* notaire et le synonyme de *zuzenbide* "dret".

Là où le basque a le moins emprunté à l'occitan c'est dans le champ sémantique de la botanique (un seul nom d'arbre, deux ou trois plantes) puisque pour des raisons que nous n'avons pas parfaitement élucidées —sans doute par la spécialisation des prêtres en ce domaine— les emprunts se sont faits directement au latin; le basque reste alors plus près de cette langue que l'occitan, ce dernier créant des mots sur des bases latines plus récentes: nous le vîmes en analysant le livre de botanique en gascon du XVème siècle.

En zoologie un seul animal a parfois un nom occitan, excusez moi pour l'odeur, c'est le putois ou *pitotx*; de même quelques autres nuisibles ont des noms latins par suite de ces interdits de langage que le professeur Martinet avait signalé pour toutes les langues européennes.

En anatomie humaine, malgré tous mes efforts, et les recommandations de Jacques Allières je n'ai pas trouvé beaucoup de termes d'ori-

gine occitane certaine; sinon un synonyme de *bulhar* "potrina" et un terme roman assez général "pixasturu" pour désigner la vessie. Par contre dès qu'il s'agit de différencier les organes humains et animaux, le vagin des animaux est *natura*; la nécessité, du distinguo est plus importante encore pour la dénomination des organes du porc qui n'a pas un *bizkar* comme l'homme mais un *koro* (corona latin) de même il n'a pas un *lepo* ou cou humain, mais un *gola* (terme occitan). L'origine des techniques de charcuterie a conforté le lexique.

Enfin le minimum d'emprunt à l'occitan s'observe, bien sûr dans le vocabulaire religieux, sauf les termes qui désignent un être douteux "le pèlerin" *erromes* ou *sentorral*; quelques noms de saints gascons devenus parfois prénoms en Soule *Senjan*, *Semark*, *Sengrat* et le nom du chanoine *kalondje* (L.N.Z.) et la liste est pratiquement close.

Ce qui est à noter c'est la rareté des dérivés et composés à partir des termes d'emprunt; il y a quelques exemples d'hybridation, une partie du terme est traduite dans *amoregatik* le *per amor* ou "pramor" occitan. Quelques suffixes, une dizaine sans doute sur la centaine sont d'origine occitane: le diminutif *-ot* qui peut s'accorder à des mots basques *emazte/ematxot*, femme/femmelette, etc., pour les professions *-aire*, *aide*: *beterinaide*, etc. la terminaison adjectivale *-us*: *kurios/kurius*, *handios/handius*, la terminaison d'agent plutôt péjorative *-er/ler*, *-ter*, *menuser* "kauter" mauvais chaudronnier, mais aussi sur des bases basques *salhater*, *gezurter* également *-lant*, *-dant* sont rarement employés en synonyme *tratalant* mais aussi *tratalari*, *ogendant* mais aussi *ogendun*; les autres suffixes sont *-aia*: *zurtaia*, *piaia*, *-ara men*, *kente*, peut-être *-eria* et *-ari* s'ils ne proviennent pas directement du latin.

On peut par l'emploi de synonyme transformer une phrase assez indigène en une plus occitane voici l'exercice. L'original est

Zuzenean zaude Pauera heltzean, Artix bazterrean utziz, arkaitz baten gainean Lescar dago; hortik katoliko leber, antzatsuek protestante baldar moldegaitzak ohildu zituzten, beren ikastetxea eraiki zutenean. Gataskarik bilatu gabe Ortesera bideratu ziren eta han jarri Joana Labriten jauntaldearekin izateak ematen zituen hobariekien.

Arrazoin duzu Pauera arribatzean eta Artix kitatzean, arroka battean Lescar dago; hortik katoliko adretek, abillek, higanaut malestrukak akazatu zituzten, beren eskola antolatu zutenean Aharra xerkatu gabe Ortes-era abiatu ziren eta han kokatu, Joana Labriten kortearekin izateak ematen zituen abantaillekin.

La même phrase pourrait se faire avec des hispanismes. Nous avons eu la chance de pouvoir nous abreuver à plusieurs sources linguistiques;

de nos jours nous évitons d'abuser de l'une ou de l'autre, toutefois, au cours des vingt dernières années *l'euskara batua*, le basque moderne en constante évolution a incorporé une partie indispensables de ce patrimoine linguistique d'origine voisine et l'a diffusé dans tout le Pays Basque; parfois quelques Basques du Sud, méfiants, ont accusé les zélateurs de *l'euskara batua* dont je suis d'avoir introduit des termes français, parce que un demi siècle d'isolement de nos frères du sud leur ont fait oublier leurs cousins gascons du nord.

Pourtant l'examen de l'annuaire du téléphone du Guipuzcoa nous montre le fourmillement d'anthroponymes gascons, depuis le grand cuisinier bascophone Arzac jusqu'au bon poète improvisateur guipuzcoan Cazaubon. La toponymie de Saint Sébastien rappelle tous les jours ce passé avec ses quartiers de Morlans, Gros, Ayete, Miramon, ses collines d'Urgull et de Miramon.

Je ne peux terminer sans parler de cette famille symbole de nos relations anciennes les de Bela de Mauléon qui proviennent des Bellac de Saint Goin, et illustrent les lettres et l'humanisme basque tant le huguenot du XVII^e siècle que le catholique du XVIII^e siècle. Nous reprendrons les termes de ce dernier, qui sont toujours d'actualité; lorsqu'en 1760 il proclama la nécessité d'un collège à Mauléon.

“Les jeunes viendront de la Navarre et des autres provinces basques espagnoles qui touchent la Soule ou en sont proches, assurés d'y trouver presque chez eux ce qu'ils sont obligés d'aller chercher au loin. Ils s'y arrêteront volontiers.

A ces avantages indubitables se joindront une infinité d'autres par l'amitié qui se contractant entre notre jeunesse et celle d'Espagne liera entre les deux royaumes des correspondances utiles au commerce que nous devons avoir en vue comme unique moyen de vivifier le pays.

(De même) En raison de la proximité il faut établir entre les collèges de Mauléon et de Pau une espèce de fraternité qui fasse regader les élèves du premier comme appartenant en quelque sorte au second... (...) et (afin) de rendre plus profitable aux deux nations Basque et Béarnaise l'usage établi depuis longtemps entre elles, de prendre en échange réciproque les enfants pour apprendre la langue et les coutumes de leurs voisins.

Par cette dernière phrase, et après de beau rappel de l'ancienne communauté de Vasconie, Jeanne Philippe de Bela, général du roi de Suède, lieutenant-colonel du Royal-Cantabre nous donne le premier témoignage d'une des causes d'occitanisation dans les provinces basques

limitrophes, l'échange d'enfants, que l'on pratiquait, jusqu'au milieu du XXème siècle, en basque *haur ordarika ikasteko*.

Pour termciner ce sermon, qui suivant une des dernières formules connues par les basques n'aura pas été "viste heit e plan fotu", j'insisterai sur le fait que basques et gascons avons des problèmes comparables, qu'il nous fut fort utile de rencontrer des béarnais pour confronter nos erreurs et nos réussites: ils nous dirent, souvent, que nous sentons trop le soufre, mais vous devriez être habitués depuis longtemps avec vos puits de senteur de Lacq. N'avons nous pas en commun dans nos mythologies l'histoire de la fille du diable, dénommée Marie?

Nous autres, pareillement, aimons beaucoup ceux qui au nom du gascon ne luttent pas contre le basque. Nous pensons avoir montré, un peu, que de la santé de l'un dépend la survie de l'autre et que l'essentiel est de démontrer qu'à un brillant passé nous sommes capables d'ajouter un avenir fier. Comme le disait Simin Palay dans ces vers passionnés.

Amuisha tau com ès: rica, beroia e fiera
Hilh de roma, e lheu, l'ainada, aus que disèn
Que n'eres qu'una goja au miei de la gangera.

Erakuts zeinen aberats haizen, eder eta harro,
Erromorena alaba, agian zaharrena, erraiten dutenei
e'haizela, jendailaren artean, neskatzarra baizik.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA EUSKARA BATUAZ

Euskara Batua dela eta gizartean dabiltsan uste okerrak eta egiten diren gehiegikeriak ikusirik, hau adierazten du Euskaltzaindiak:

1. *Euskara Batua* Euskaltzaindiak 1968.etik aurrera batasunerako eman dituen arauek bakarrik osatzen dute. Hau dela eta Euskaltzaindiak esan behar du badirela han eta hemen arau batzuk, euskara batukotzat jotzen direnak eta Euskaltzaindiak inoiz ere eman ez dituenak. Hortaz, oraingoz *emaila emale* bezain zilegi da euskara batuan; era berean, *barik nahiz gabe, hetsi zein itxi, lagundu dut edo lagundu diot*, etab.

2. Arautzeke zeuden puntuei begira (zenbakien idazketa, *bat, batzuk-en* deklinabidea, etab.), batasunerako gomendioak ematean, azken urteetako erabilera ahantzi gabe, literatur tradizioa du Euskaltzaindiak oinarrizko irizpide eta han zabalduena eta erabiliena den forma hobesten du. Horregatik gomendatu da *arabera*, eta ez *arauera*.

3. Euskaltzaindiak ezagutzen ditu azken urteetako bateko eta besteko erabilierak. Hala ere, Arantzazun batasunerako ireki zuen iloari jarraitu behar dio. Adibidez, Euskaltzaindiak *hoeita hamar* idaztea gomendatzen badu eta ez *hoeitamar*, bere garaian *zahar* eta ez *zar*, *ahalegin* eta ez *alegin* onartu zituen arrazoi beragatik gomendatzen du.

4. Literatur ondarea bere osoan hartzen du kontuan Euskaltzaindiak batasunerako inongo euskalkirik baztertu gabe.

Zornotzan, 1993.ko maiatzaren 28an

BATZAR-AGIRIAK

VIII. BARNE JARDUNALDIAK:

Zornotzan, 1993ko maiatzaren 27 eta 28an

Haritschelhar, J. euskaltzainburua.
Lekuona, J. M., euskaltzainburuordea.
Knörr, E., idakaria.
Arana, J. A., diruzaina.
Altuna, P.
Azkarate, M.
Charriton, P.
Diharce, X.
Irigoyen, A.
Krutwig, F.
Larre, E.
Oyharçabal, B.
Peillen, Tx.
Salaburu, P.
Satrustegi, J. M.
Villasante, L.

Lizundia, J. L., idazkariordea.
Zearreta, J. J., ekonomi eragilea.
Badiola, R., argitalpenen eragilea.
Urrutia, A., lege batzordekoa.

Zornotzan, bertako barnetegian, 1993ko maiatzaren 27 eta 28an, egin ditu Euskaltzaindiak VIII. Barne-Jardunaldiak, maiatzaren 27an, arratsaldeko 4.30tan hasita. Aldamenean aipatzen diren lagunak etorri dira. P. Ondarra eta J. San Martinek ezin etoria adierazi dute. J.-L. Davant, X. Diharce, B. Oyharçabal eta I. Sarasola 28ko bilkuran izan dira, bezperakora ezin etorririk. Orobak A. Urrutia.

Hasierako hitz batzuk esan ditu Euskaltzainburuak Jardunaldien xedeaz. Euskaltzaindiaren Arautegia eta Barne erregelek aztertu eta eraberritzea da bilkura hauen asmoa, Zuzendaritzak prestaturiko testu ziriborroen gainean. Zirriborro hauetan beste Akademia askoren legeria aurkeztu da, lagungarri gerta daitekeelako. J. J. Zearreta, J. L. Lizundia eta J. A. Aranari eman dizkio bereziki eskerrak Haritschelhar jaunak alor honetan egindako lanagatik.

Lehendabizi, A. Irigoyenen erabateko zuzenketa proposamena erabili da. Haren ustez, Arautegian Akademian egoitzaz egiten den aipamena baizik ez litzateke aldatu behar. Bozketa egin da eta hau izan da emaitza: Arautegia eraberritzearen alde 13, aurka 3, zuri 1. Bestalde, A. Irigoyenen gutunaren azken parrafoa kentzea eskatu dio Euskaltzainburuak. Halaxe egin du Irigoyen jaunak.

X. Kintana urgazleak maiatzak 24 egin gutuna irakurri da gero. Ohorezko eta urgazleei kenduko omen zaizkien eskubideengatik agertu du gutun horretan bere kezka. Erantzungs zaio esanez ez dela hori inola ere testu berriaren nahia.

Artikuluz artikulu aztertu da proposaturiko testua, beti ere indarrean dagoeña, aurreko Arautegiak eta bestelako materialen laguntzaz. Besteak beste, F.

Krutowig-ek R. M. Azkue euskaltzainburaren aginduz 1949an idatziriko txostena, Akademiaren berregituraketaz, irakurri du idazkariak.

**Jarraipena, maiatzak 28, goizeko 9,30tan
Euskaltzaindiaren Erregelen berriztatzea**

Andres Urrutia Badiolak xehekiro azaldu ditu Euskaltzaindiaren izaera eta xedeak, legearen aldetik. Mintzagai izan dira, halaber, Akademiaren diktamenen balioa, emendailuzko eta azkeneko arauen premia eta antzeko puntuak.

Osakera, akademi bilkura eta ibilpidearen kapituluan, agiriak (Zuzendaritzako batzar agiriak, hileko batzar agiriak eta batzordeen batzar agiriak) izan dira, batez ere, mintzagai. Gardentasuna, batetik, eta beharrezko den diskreazioa, bestetik, elkarren etsai ez direla aho batez esan da. Arreta bereziz eztabaидatu da, berebat, *literatur euskara* gogoeta, Euskaltzaindiaren eginkizun nagusietarikoa, ebakera ere hartzen duena. Puntuz puntu aztertu eta onartu da testua.

Hurrengo osoko batzarrean jarraituko du erregelen azterketak.

Eta honetan amaitu dira VIII. Barne-Jardunaldiak.

Zornotzan, 1993ko maiatzaren 28an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua.
 Lekuona, J. M., euskaltzainburuordea.
 Knörr, E., idazkaria.
 Arana, J. A., diruzaina.
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charriton, P.
 Davant, J.-L.
 Diharce, X.
 Irigoyen, A.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Oyharçabal, B.
 Peillen, Tx.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J. M.
 Villasante, L.

Lizundia, J. L., idazkarioordea.
 Zearreta, J. J., ekonomi eragilea.

Zornotzan, bertako barnetegian, 1993ko maiatzaren 28an, eguerdian, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren lagunak etorri dira. J. San Martinek eta P. Ondarrak ezin etorria adierazi dute.

Agiria

Apirileko agiria onartu da, zuzenketa bat egin ondoan.

Barne gaiak

Lehendabizi, euskaltzain ohorezko berriak hautatu dira. Bost ziren proposaturiko lagunak: Bernardo Estornes, Jean-Baptiste Etcheberry, Karlos Santamaría, Martín Ugalde eta Augustin Zubikarai. Euskaltzainburuak bakoitzaren merezimendua irakurri ondoren, bozketa egin da eta bostek lortu dute erabateko gehiengo osoa.

Erein argitaletxeko zuzendaria den Julen Lizundiak maiatzaren 7an bidali gutuna irakurri da. Bertan kezka agertzen dute ortografi gomendio eta erabakiek liburugintzan duten diruzko eraginagatik. Halaber, zenbait urgazlek eta irakaslek apirilaren 23an egin gutuna, J. L. Goikoetxeak ekarria, irakurri da. Euskara batu-rako proposamenetan bazter euskalkiak kontuan hartzen ez direla diote; Batzordearen jokabidea ilun jotzen dute, eta gomendioak argitaratze eta jakinarazteko era egokiak eskatzen.

Akademiaren proposamenen gainean ahoz eta izkribuz jaso diren beste iritzi batzuk ere aipatu dira. Luzaz eztabaideatu da argitaletxeekin eta abarrekin Euskaltzaindiak izan beharko lituzkeen harreman onez. Gainera, nabarmena da jende askok euskara batutzat hartzen dituela zenbait hitz eta forma, eta beste batzuek baztertzen, nahiz Euskaltzaindiak horiei buruz ez duen deus ere esan. Adierazpen bat zabaltzea proposatu da. Testua prestatu eta aurkeztu da eta aho batez onartu, salbu 2. puntuari, zeinetan A. Irigoyenek esku baitu aurkako boto partikularra agirian azaltzea. Testuari ahalik zabalkunde gehien ematea erabaki da orobat, eta Euskaltzaindiaren erabakizunetan ohargile izan diren guztiei bidaltzea.

Bilboko Irakaslego Eskolak bizkaierazko gaitasun azterketetan Euskaltzaindiaren ordezkarri bat eskatu dute. Aurreko urteetan bezala, aurten ere J. L. Goikoetxea izendatu da.

Baztango udalaren eskaria aztertu da gero. *Alcalde-jurado de Elizondo*-ren euskal ordain egokia zein den galdetzen du. Gutunarekin batera Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritza eta Barne Sailaren txostena ere eskuratu da, Baztango udal-izaera. Iritzia entzun ondoren, *Elizondoko herriko alkatea* proposatzea era-baki da, *jurado* hitzaren itzulpen edo ordainean sartu gabe.

Diruzaintzak 1992. urteko kontuak agertu ditu ondoren, J. A. Arana eta J. J. Zearretaren zenbait azalpenekin batera.

A. Tovarren liburutegiaren katalogoa, Euskal Herriari buruzko liburu eta separaten bildumarena, aurkeztu da gero. 537 dira zerrendan ageri diren lanak. Katalogoa igortzeaz bat, gutuna egingo zaio alargunari, Euskaltzaindiaren esker onarekin.

Euskal Akademiak Bilbao Bizkaia Kutxarekin urteoro antolatzen dituen sariak iragari dira. Aurten hauek izango dira: Txomin Agirre eleberri; Toribio Alzaga antzerki; Felipe Arrese y Beitia olerki; Mikel Zarate saiakera, eta Resurrección M. Azkue idazle gazteantzako saria.

Iruñeko artzapezpiku eta Tuterako apezpiku jaunak Euskaltzainburuari idatziriko gutuna irakurri da gero. Izendapen berriagatik hartutako goresmenak eskeertzen ditu eta luza gabe Zuzendaritzarekin hizketatzeko gogoa agertzen.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

Endrike Knörr
idazkaria

Donostian, 1993ko ekainaren 25an

Haritschelhar, J. euskaltzainburua.
 Lekuona, J. M., euskaltzainburuordea.
 Knörr, E., idazkaria.
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Davant, J.-L.
 Irigoyen, A.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Peillen, Tx.
 Salaburu, P.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J. M.
 Villasante, L.
 Lizundia, J. L., idazkariodea.
 Zearreta, J. J., ekonomi eragilea.

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1993ko ekainaren 25ean, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldameneko lerrokadan ageri diren lagunak eterri dira. Ezin eterria J. A. Arana, X. Diharce eta J. San Martinek adierazi dute.

Agiria

Maiatzeko agiria onartu da, zuzenketa batzuk egin ondoan. Orobak, J. M. Satrustegik gutunetan hala eskaturik, testu luzeagoa sartu da Barne Jardunaldiako agiriaren zenbait puntu.

Eskuarteko gaiak

E. Erkiaga heriotzearen berri eman du Euskaltzainburuak. Honenbestez, zabaldu da euskaltzain berriako proposamenak aurkezteko bi batzarreetako epea. Urrian izango da bozketa.

Euskaltzaindiaren 75. urteurreneko ospakizunen aurre-egitaraua azaldu du gero Idazkariak. Aipatu du, bereziki, 1994ko urriaren 3tik 7ra bitarteko biltzarra. Idazkarioordeak aurtengo irailaren 30ean eta urriaren 1ean egingo diren batzarrak, Arantzazu eta Oñatin, iragarri ditu, bai eta Jagon Saileko Jardunaldiak, 1994ko urtarilean. Gainerako Jardunaldiak ez dute oraindik data zehatzik. Urteurreneko kartela ere erakutsi da. Tx. Peillenen euskalkien erabilera idatzizkoa kontuan hartu behar dela esan du, eta P. Charrittonek Iparraldeko ordezkaritza eskatu du ebakeraren gainean arituko den taldean, bai eta egoera soziolinguistikoak ere aztertzea urtean zehar nahiz 1994ko biltzarrean. M. Azkarateren iritziz, ordea, euskara batuari buruzkoak aski lan emango du, eta Jagon Saileko Jardunaldiak dira horretarako egokien.

Euskaltzaindiaren Erregelak berriztatzea

Euskaltzaindiaren Erregelen berriztapenarekin jarraitu dute gero batzartuek. *Sail eta batzordeak* deitu atala aztertu da. 3. artikuluan, Jagon Sailean batzordeak

sor daitezkeela erabaki da. 4. artikuluan, berriz, Azkue Biblioteka Zuzendaritzari atxikia ala burujabea izan behar den geroko utzi da. *Argitarapen* ala *argitalpen* forma erabili behar denentz txostena eskatuko zaio O.E.H.-ari. 6. artikuluan, M. Azkaratek galdetu du bereizketa garbia egin daitekeen batzordekide eta aholkulariaren artean. Batzordekideen gutxieneko kopurua bost lagun izango direla onartu da. 7. artikuluaz, A. Irigoyenek eskatu du haizu izan dadin edozein euskaltzainek nahi duen batzorde bilkuratarra joatea. Bozketa egin da eta testua bere hartan uztea erabaki da, emaitza honetaz: 10 boto alde, 6 aurka, zuri 1. Azterketa berezia ekarri du 12. artikuluak. 4.a eta 17.a geroko gelditzen dira.

Dirutza eta ondarea eta Azkue Bibliotekari dagozkien atalak, aldiz, uztaileko bilkuran eztabaidatuko dira.

Azken ordukoak

François Bayrou Frantziako Hezkuntza ministroa eta Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorreko buruaren gutuna irakurri da. Euskaltzaindia Paben errebitzeko prest dago. Ohi bezala, azken ostiralean izango da hileko batzarrea, uztailaren 30ean, goizean. Ikustaldia, berriz, arratsaldean. Mugaz bi aldeetako agintariei gonbidapenaigorriko zaie.

Zarauzko Xabier Lizardi Sarirako J. A. Mujika, aurreko urteetan bezala, izendatu da Euskaltzaindiaren izenean epaimahaikide.

Nafarroako *Oinarriak* izeneko elkartearren eskaria irakurri da gero. Euskal Telebista lurralde horretan guztian egokiro hartzea da haien nahia. Herri Batasuna, Eusko Alkartasuna eta Mixto-Ezker Batua talde parlamentariek nafar Parlamentuan aurkezturiko proposamenaz aurki erabakiko denez, elkartea atxiki-mendua eskatzen dio Euskaltzaindiari. Hala egingo da.

Azkenik, Eragile Teknikaria irailean hasiko dela lanean aditzerera eman du Euskaltzainburuak.

Donostia, 1993ko ekainaren 25ean Arratsaldeko batzarrea

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1993ko ekainaren 25ean, egin du Euskaltzaindiarratsaldeko bere batzarrea, lau t'erditan. Bertan izan dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua; J. M. Lekuona euskaltzainburuordea; E. Knörr idazkaria; P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J.-L. Davant, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, O. Ondarra, B. Oyharçabal, Tx. Peillen eta L. Villasante euskaltzainak; B. Estornes Lasa, J. Etxaide, M. Ugalde, A. Zubikarai euskaltzain ohorezkoak; J. M. Aranalde, X. Arbelbide, P. Arregi, M. Atxaga, J. M. Etxebarria, J. Garmendia Larrañaga, X. Kintana, M. P. Lasarte, J. L. Lizundia eta J. M. Torrealda urgazleak. Ezin etorria J. A. Arana, X. Diharce eta J. San Martinek adierazi dute.

M. K. Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia, eta Daffyd Elis-Thomas, Lord Elis-Thomas of Nant Conwy. Galesko irakaslea eta Erresuma Batuko parlamentaria, izan dira orobat batzarrean.

Goizeko bilkuraren berri eman du, hasteko, E. Knörr idazkariak: E. Erkia-garen heriotzea, eta haren hutsunea betetzeko egutegia; Euskaltzaindiaren Erregelak berriztatzearren jarraipena; Paben, uztailaren 30ean, Euskaltzaindiak egingo duen batzarrea. F. Bayrou Kontseilu Orokorreko buruari ikustaldikari; *Oinarriak* elkartearen eskaria, Nafarroan ETBa hartzeaz; Zarauzko Xabier Lizardi Sariaren epaimahaian Euskaltzaindiaren partaidetza, eta 75. urteurreneko ospakizunen aurre-egitaraua.

Gero euskaltzain ohorezko izendatu berriei domina eta diploma emateari ekin dio Haritschelhar jaunak. Bernardo Estornes, Martin Ugalde eta Augustin Zubikarai jaunen merezimendua aipatu ditu euskaltzainburuak. Auñamendi argitaletxearen emaitza goratu du bereziki B. Estornesi buruzko mintzalditxoan. M. Ugaldez aritu delarik, liburuez gainera, urteetako kazetalaritzan lanak aipatu ditu, bai eta *Euskaldunon Egunkaria-n* haren burutzaz ere. A. Zubikarairen kazetalaritza lana ekarri du halaber gogora. *Eguna* egunkarian (1936-37) eta geroko urteetan, bai eta herrien monografiak eta literatura. Zenbait hitz ere esan ditu K. Santa-maria eta J.-B. Etcheberry ezin etorriez.

M. Ugaldek hitz egin du ondoren. Bere esker ona agertu dio Euskaltzaindiari izendapenagatik. Erbestetik etorri zenean babesia Euskaltzaindian eta *Zeruko Argia-n* aurkitu zuela esan du. Euskaltzaindiaren etengabeko lana laudatuz bukatu du.

Gero, Euskaltzainburuak Daffyd-Elis Thomas agurtu du, euskaraz eta frantsesez, Akademiaren izenean. Esan du Euskaltzaindiak harremanak izan nahi dituela mundu zabaleko erakunde eta gizabanakoekin, eta euskaraz aritza eta jende irekiak izatea ez direla inondik ere elkarren etsai. Biharko Europa eleanitzean esperantza agertu du, horixe baita Europaren aberastasuna. Zenbait opari eman dizkio, bukatzeko, Thomas jaunari: Akademiaren liburuak (Iker 7-az xehetasun bereziak eginez) eta domina.

Zenbait hitz egin ditu gero Elis-Thomas jaunak galesez eta frantsesez, bere esker ona agertzeko. Nazio-estatuen Europa hil dela esan du, eta Europa berrian hizkuntza guztiak duten tokia aipatu du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
eusklatzainburua

Endrike Knörr
idazkaria

Paben, 1993ko uztailaren 30ean

Haritschelhar, J. euskaltzainburua.
 Lekuona, J. M., euskaltzainburuordea.
 Knörr, E., idazkaria.
 Arana, J. A., diruzaina.
 Azkarate, M.
 Charriton, P.
 Davant, J.-L.
 Diharce, X.
 Irigoyen, A.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Peillen, Tx.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J. M.
 Villasante, L.
 Zabaleta, P.

Lizundia, J. L., idazkariordea.
 Zearreta, J. J., ekonomi eragilea.
 Badiola, R., argitalpen eragilea.

Paben, Nafarroako Parlamentuan, 1993ko uztailaren 30ean, goizeko hamar t'erditan, bildu da Euskaltzaindia. Aldameneko lerrokadan ageri diren lagunak etorri dira. Ezin etorria adierazi dute P. Altunak, F. Krutwigek eta P. Salaburu euskaltzaineik.

Agiria

Ekaineko agiria onartu da. J. M. Satrustegik Barne Jardunaldien agiri zuzendua eskatu du. Bidaliko zaio.

Erregelak

Erregelen berritze lana jarraitu dute bilduek. *Sail eta batzordeak* deritzan atalaren 4. eta 17. artikuluak onartu dira. *Dirutza eta ondarea* izeneko kapituluan 4, 5 eta 6. artikuluak onartu dira orobat. Azkue Bibliotekari dagokionez, lehen bi artikuluak onetsi dira, J. M. Satrustegik izkribuz egindako zenbait zuzenketarekin. Luzaz mintzatu da testuan agertu behar duten xehetasunez, bai eta zenbait hitzen gainean: *sarrera* ala *sartze*, baina bereziki *argitarapen* ala *argitalpen*. A. Irigoyenek bere txostena aurkeztu du, *argitarapen* eraren alde. I. Sarasolak erantzun dio, erabilerek irizpide nagusi izan behar duela adieraziz. Tx. Peillenek *argitalpen* formaren alde hitz egin du halaber. M. Azkaratek esan du, eratorpenean bi formak lehian badira ere, *argitalpen* nagusi dela OEH-n eta EEBS-n. Bozketa egin da eta hau izan da emaitza: *argitalpen-en* alde 13 boto; *argitarapen-en* alde 3, eta zuriz 1.

Eskuarteko gaiak

Eragile Teknikaria hautatzeaz mintzatu da gero. Horretarako izendatua zegoen epaimahaiak Donostian egin zuen bilkura, ekainaren 21an. Batzar agiria irakurri du J. L. Lizundiak. Pello Telleria zen hautagai bakarra. Curriculum vitae delakoaren laburpena azaldu du. Bi urtetako kontratatu da. Irailaren erdialdean hasiko da lanean.

1994ko aurrekontua aurkeztu du J. A. Aranak 294.789.697 pezetakoa da. A. Irigoyenek laburregi etsi du azalpena. Dokumentazio osoa emango zaio. P. Cha-

rrittonek aurrekontua Kontseilu Orokorrari ere bidaltzea proposatu du, bai eta parlamentari guztiei eta Euskaltzaindiaren ordezkaritzetara ere. Onartu da.

Egoitzarako ikustaldien zerrenda agertu du ondoren J. L. Lizundiak. Urtarriletik uztailera bitartean 3.072 izan dira.

E. Erkiaga zenaren hutsunea betetzeko proposamen bat aurkezu da, X. Kintanaren alde, J. A. Arana, P. Charriton eta P. Salaburuk sinatua. J. Haritschelharrek eskatu du hautagaien berri epea bukatu ondoren ematea. Hala onartu da.

Azkue Bibliotekaren katalogoa, urtarriletik uztailera bitartean sarturiko liburu eta aldizkariena, banatu du orobat J. A. Aranak.

R. Badiolak argitalpen eragileak banatu ditu *Euskera* aldizkaria (37:2, 1992) eta iazko urteari dagokion Oroit-Idazkia. Bestalde, aditzera eman da *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren 6. liburukia argitaratu berri dela. Egunotan eskuratuko da.

**Batzarre irekia
Paben, 1993ko uztailaren 30ean**

Paben, Nafarroako Parlamentuaren aretoan, 1993ko uztailaren 30ean, arratsaldeko lau t'erditan, egin du Euskaltzaindiak batzarre irekia, Pirinio Atlantikoe-tako Kontseilu Orokorrak deitua. Mahaien jarri dira: J. Haritschelhar, euskaltzainburua; François Bayrou, Kontseilu Orokorreko burua; Jose Antonio Ardanza, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko lehendakaria, eta Javier Marcotegui, Nafarroako Kultur eta Hezkuntza sailburua, Juan Cruz Alli, Nafarroako presidentearen izenean. Aretoan honako euskaltzain oso hauiek izan dira: J. M. Lekuona euskaltzainburuordea; E. Knörr, idazkaria; J. A. Arana, diruzaina, J. Azkarate, P. Charrittón, J.-L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Larre, B. Oyarzabal, P. Ondarra, Tx. Peillen, I. Sarasola, J. M. Satrustegi, L. Villasante eta P. Zabaleta euskaltzainak; P. Andiazabal, X. Arbelbide, R. Badiola, R. Camblong, J. Camino, R. Idiart, M. Itzaina, X. Kintana, D. Landart, J. L. Lizundia, M. Ruiz Urrestarazu eta J. J. Zearreta urgazleak.

Ezin etorria adierazi dute P. Altunak, F. Krutwigek eta P. Salaburuk.

Aretoan izan dira: J. A. Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia, Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusia, Pedro Ramos, Arabako Kultur diputatua (A. Ansola diputatu nagusiaren izenean), M. Carmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia; Jose M. Rodriguez Ochoa, Nafarroako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia; Pirinio Atlantikoko diputatu, senatore eta kontseilarri anitz; Pierre Molères, Baionako apezpikua, eta Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako alkate zenbait.

F. Bayrouk ireki du ekitaldia. Entzule guztiak agurtu ondoren, Nafarroako erreinua oroitarazi du. Euskararentzat lehen laguntza ofiziala Joana Albret erreginagandik etorri zela esan du. Euskararen antzinatasunaz aritu eta gero, irakaskuntzan, bai publikoan eta bai pribatuan, behar duen tokia aipatu du, okzitanieraren ondoan, berebat bi hizkuntzei kale eta errepiteetan dagokiena. Jakobi-

nismoa gaitzetsi du eta Frantziak euskara behar duela esan, Europak kultur aniztasuna behar duen bezala.

J. Marcote guik hitz egin du ondoren. Juan Cruz Alli presidenteak ospakizun honetara etortzeko gogo bizia zuela esan du. Nafarroa Euskaltzaindiaren sortzaile eta diru-emaile izan dela azaldu du. Hizlaria euskararendako muga eta debeku guztiak kentzearen aldeko agertu da eta *Ekin eta Jarrai* ikurritza gogoratuz bukatu du mintzaldia.

J. A. Ardanazk hartu du hitza gero. Egun zazpi probintzietaiko hautetsiak lehendabizikoz biltzen zirela esan du, eta elkarlanerako deia egin du, pentsamol-de guztien gainetik.

J. Haritschelhar euskaltzainburua mintzatu da ondoren. Poza agertu du egungo batzarreagatik eta esker ona agertu dio bereziki F. Bayrou jaunari. Euskarak irauteko eta zabaltzeko irrikia duela esan du. Euskarari dagokion legeria aipatu du, bai eta bi Estatuen gainetik sortzez duen izaera. Akademiaren kondaira eta lanak eta euskara baturako ahaleginak gogorazi ditu.

Azken hitzaldia Tx. Peillenek egin du, euskaraz eta gaskoineraz, bi hizkunten arteko harremanez, maileguak aipatuz batez ere.

Ekitaldiaren bukaeran, J. Haritschelharrek Euskaltzaindiaren domina eman dio Bayrou jaunari, zenbait argitalpenekin batera, eta Bayrou jaunak Euskaltzainburuari Kontseilu Orokorreko domina.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

Endrike Knörr
idazkaria

BATZAR-TXOSTENAK

OFIZIO ETA TITULU NORTASUNA HONDARRIBIKO ETXE-IZENETAN

1993.05.20

Juan San Martin

Antroponomia, patronimia eta toponimia, hara hor Euskal Herriko adibide nagusiak etxe eta deitura izenen jatorritzat. Hondarribia har dezagun adibidetzat eta kale kaskotik kanpora aurki genitzakeen etxe-izeenik gehienak, baserriak barne direla, noski: pertsona-izena, jatorrizko deiturarena (nahiz bataio-izenetikakoa zein ezizen edo izengoitizkoa) edo leku-izenetikakoak aurkituko ditugu maizenik. Baino, horiez gainera, badira titulu edo ofiziozkoak ere. Azken hauek, benetan interesgarriak historian zehar nor zein zen edo zertan ari zen jakiteko. Baita ere izen hori noizdanik datorren jakitea. Horien lehen agiriak atzematea gauza nekeza baldin bada ere, horretan ahalegindu gara.

Artikulu honetan emango ditut hamar etxeren zenbait adibide:

Jaizkibel mendiko hondar-harria, bertako euskaran mimarria deritzona, etxegintza eta elizak eraikitzeko hain estimagarria zen garaian, harginik ez zen faltako Hondarribian. Horren lekukorik aski bada agiri zaharretan zein Jaizkibel mendiko harrobi zaharretan. Baino, norbait baten garairen batean ofizio horretan besteak baino trebeagoa edo berezitasun nabarmenak erakutsi zituena, dohain horiengatik etxe bat izendatzten baita Argiñenea; 1887. urtean Floridablanca kontearen aginduz egin zen zentsuan, han baitator *Arquiñenea*.

Arotz ofiziodunaren etxea dugu ordea Arotzena; 1787ko zentsu zerrrendan *Arozena* eta 1857. urtean Diputazioak argitaratu zuen *Nomenclátor de la Provincia de Guipúzcoa* liburuan, *Arotsena* bezala aurkitzen duguna. Hortik ikus, behar bada, ordurako nahastuak zirela z eta s-ren arteko bereizketa gure herrian.

Gaur egun Balestenea izenez ezagutzen dena, *Ballestarianea* zen 1787an, eta *Ballestanea* 1857an. Ballesta, armarena ala zalgurdiarena ote zen? Azken honena segururenik. Dena dela, hor dugu ofiziodun baten izenaren lekuko.

Oso ezaguna zaigu Batxillerenea ere, 1787ko zentsu hartan *Bachillerenea* bezala agertzen zaiguna. Gaur egun, zerbait ikasia den guziek dute batxiller titulua, baina hemezortzigarren mendean ez zen nornahi.

Orain hain ezaguna zaigun Biskundi auzoak, bere izena, lehen toki hartan zen etxe batetik hartua du. Etxe hura, 1857. urtean *Viskundinea* bezala agertzen da probintziako *Nomenclatorrean* eta, zalantzarik gabe, bizkontearen etxea zela erakusten du.

Ttun-ttun joleak emango zion izena *Danboliñeneari*. Hau ere, guienez, hamazortzigarren mendetik datorkigu, 1787an *Tanboliñenea* eta 1857an *Danboliñenea* agertzen denez.

1787an *Herreronea* eta 1857an *Erreronea* agertzen zaiguna, behar bada, ofiziozkoa ezezik deituratikakoa izan daiteke, zeren 1638rako Hondarribian bertan agertzen baita deiturà hori, Miguel de Aguinaga y Herrero. Handik hasia ote? Garai haietan erraz egiten baitzuten lehen deitura bigarrengarekin trukatzea ere.

Edonork dakien bezala, Hondarribiko baserri baten izena da Ipiztiku. Bat-batean izen arraroa edo bitxia iduritzen zaigu. Etxe horren lehen berria Isastik eman zigun 1625.urtean idatzi zuen *Compendio Historial...* liburuan, *Castezar ó Ipizticu* izendatuz. Gaur egun Lapurdin erabiltzen den apezpiku (obispo, gure egunotako gotzaina). Axularrek 1653an argitaratu zuen *Gero liburuaren “Gomendiozko karta”* hartan Bertrand de Echaus apezpikuari era honetan egiten zion eskaintza: “... çuc ere Baionaco Ipizticu cinenean”, esaldiaren muinean esanahia aitortuz. Ubillos gipuzkoar idazleak ere hala erabili zuen 1785.ean argitaratu zuen *Christau doctrin berriezarlea* zeritzan liburuan. 1857. urteko *Nomenclatorrean* berriz, Hondarribiko bi etxek daramate izen hori, batak *Ipisticu* eta bestea *Ipisticunea*. Argi dago lehenengo dela zaharra eta bigarrena handik alde zuen familiakoren batek eraikia. F. Porturen *Fuenterrabia. Notas históricas y curiosidades* liburuan aurkituko ditugu biak, 306. orrialdean, sagardotegiak aipatzean; bi etxeotan baitziren sagardotegiak 1934. urtea baino lehen. Ipiztiku Arkoll goiti Jaizubia aldera eta Ipiztikunea Madalen-gainetik Akartegi partean. Miguel de Lizardi Ipistiku herriko seme ja torren artean agertzen da 1638. urteko zerrendan. Guk aipatzen dugun baserria ipiztikuren baten egoitza edo jabegokoa zen, noski. Bertako se meetarik bat bazen XVI. mendean Cristobal de Rojas y Sandoval, zeinengandik datorren hirian “Calle del Obispo” eta ditekeena pertsonaia horrekin zerikusirik (1).

(1) Pertsonaia horri buruz, ikus *Hondarribia* aldizkariaren 44. zenbakian argitaratu nuen “Cristobal de Rojas y Sandoval (1502-1580)” idazlana, 16-17.orrialdeetan.

Konsul zenaren etxeak ere, bere izena hartu zuen, Konsulanea, 1787eko zentsu hartan agertzen denez. Orain *Consolenea* bezala agertzen da (behar bada ahoskatzean hala erabiliko zuten), baina 1857ko *Nomenclatorraren* zerrendan argi dator, Consulaenea. XVI. mendetik XIX.era arte, Itsas-kofradiak izendaturik, bi “Jueces Cónsules de Mar” izaten ziren arartekotza betetzeko, 1566. urteko Ordenantzek jasotzen dutenez eta horien egitekoa zen portuko gorabeherak zaindu eta auziak konpondu. Bizkaiko zenbait portutan “Instruman” deitzen zitzaien.

Telleria, 1787ko zerrendan aipatzen da, baserri etxe hori hutsik zegoela aditzera emanez, baina 1857ko etxe-zerrendan berriz dator. Geroztik galdua da nonbait. Egia esan, Telleria, ofizio bera baino areago zen lantegia, baina teilaginak ere bazirela adierazten digu.

Horietatik ohartuko gara etxe-izen bakoitzak zer-nolako adibideak ematen dituen, deiturentzat evezik biztaleen ogibide eta ekintzak ezagutzeko; horiei esker, ulerterrazago egingo zaizkigu ondare bezala historia-rentzat eskaintzen dizkigutenean adibide jakingarriak.

**PETRI, PEDRO, PERU ETA PELLO NAFARROAN,
XVIII. MENDEAN**

1993.05.26

*Mikel Gorrotxategi Nieto
Onomastika batzordeko idazkaria*

Jarraian erantsita doazen zerrendak 1726-27. urteetako erroldetatik aterata daude, estatistika saileko *Inventarios del Reino de Navarra*-tik hain zuzen ere. Sartze lana bukatu gabe dagoenez gero, zerrenda hauek, gehienbat gaur egunean euskalduna den eremuari dagozkio. Begi bistan dago Pedro-z hasitako izenak oso ugariak direla, baina hala eta guztiz ere, ezin dugu ziurtasun osoz jakin idazkera eta herri ahoskera bat zezen ala ez, ikertutako kasu bakarra tartekoa baita, zeren eta Pedro-gisa idatzita agertu arren, Petro ahoskatzen duten. Dena den aspaldiko egoera izanda ere lagungarria izango zaizuelakoan nago.

Maiztasunari dagokionez etxeena baino ezin dugu ikertu agertutako guztiak hartu ditugulako, deiturak berriz, etengabe ez errepikatzeko, baztertuz.

Ikertutako ibarrak hurrengo hauek dira:

Araitz, Basaburua (biak), Olaibar, Ezkabarte, Bortziriak, Anue, Larraun, Ultzama, Atetz, Izarbeibar, Etxauri, Odieta, Esteribar, Zaraitzu, Baztan, Malerreka, Bertizarana, Ultzama, Erroibar, Aezkoa, Erronkaribar, Aranatz eta Iruñea, horiekin batera, Zizur, Antsoain, Oltza eta Galar zendeak.

Izena	Lekua	
PETRABELCHENA	NA,	DONEZTEBE (HIRIA)
PETRABELCHENA	NA,	DONEZTEBE (HIRIA)
PETRICO	NA,	USKARTZE
PETRICONEA		OIEREGI
PETRICORENA	NA,	BEINTZA
PETRICORENA	NA,	ETXAURI
PETRICORENA	NA,	ITZALLE
PETRICORENA	NA,	IRURITA

Izena	Lekua	
PETRICORENA	NA, ITUREN (HIRIA)	Etxea
PETRICORENA	NA, ARANTZA (HIRIA)	Etxea
PETRICHENEA	NA, ARANTZA (HIRIA)	Etxea
PETRICHONEA	NA, BERUETE	Etxea
PETRICHONEA	NA, LABAJEN	Etxea
PETRICHORINEA	NA, LESAKA	Etxea
PETRIENEA	NA, GOIZUETA	Etxea
PETRIENEA	NA, ALBIASU	Etxea
PETRIENECHIPIA	NA, ZIGA	Etxea
PETRIESANDI	NA, OTSAGABIA	Juan
PETRIGALANTENEA	NA, ARANTZA (HIRIA)	Etxea
PETRIGENABEITICOA	NA, ZUBIETA (HIRIA)	Etxea
PETRIGENAGOITICOA	NA, ZUBIETA (HIRIA)	Etxea
PETRINA	NA, ENERITZ	Etxea
PETRINETA	NA, AÑORBE	Etxea
PETRIRENA	NA, GORRITI	Etxea
PETRIRENA	NA, ZURIAIN	Etxea
PETRIRENA	NA, ZABALDIKA	Etxea
PETRIRENA	NA, GARTZAIN	Etxea
PETRIRENA	NA, ZIGA	Etxea
PETRIRENA	NA, ORONOZ	Etxea
PETRIRENEA	NA, LEITZA	Etxea, egunean Petrinea
PETRIRENEA	NA, BEUNTZA	Etxea
PETRIRENEA	NA, ANIZ	Etxea
PETRISANCENA	NA, OLAGUE	Etxea, Petrisanzena idatzita
PETRISANCENA	NA, ETXALAR (HIRIA)	Etxea, Petrisanzena idatzita
PETRISANCENA	NA, SUNBILLA (HIRIA)	Etxea, Petrisanzena idatzita
PETRISANCENA	NA, OTEITZA	Etxea, Petrisanzena (Bertizarana)
PETRISANZENA	NA, URDAZUBI	Etxea
PETRISANZENA	NA, AZPILKUETA	Etxea
PETRISANZENEA	NA, LESAKA	Etxea
PETRISENEA	NA, NARBARTE	Etxea
PEDROBORDA	NA, LEITZA	Etxea, egunean Petrinea eta Petrorena
PEDROCENEA	NA, EZKURRA	Etxea
PEDROCONEA	NA, AROZTEGI	Etxea
PEDROCORENA	NA, OLABE	Etxea
PEDROCORENA	NA, ZILDOTZ	Etxea
PEDROCORENA	NA, SETUAIN	Etxea
PEDROCORENA	NA, (GALAR-) EZKIROTZ	Etxea
PEDROCHOENECOA	NA, ADIOTZ	Etxea
PEDROCHUARENA	NA, LUZAIDE (HIRIA)	Etxea
PEDROENECOA	NA, ZABALTZA	Etxea
PEDROJIMENEZENA	NA, BELASKOAIN	Etxea, Pedrojimezena idatzita
PEDROMANECOA	NA, IROTZ	Etxea
PEDRONEA	NA, ARESO	Etxea
PEDRONEA	NA, GENDULAIN	Etxea
PEDRORENA	NA, LANTZ	Etxea
PEDRORENA	NA,ERRAZKIN	Etxea
PEDRORENA	NA, BIDAURRETA	Etxea
PEDRORENA	NA, ERRATZU	Etxea
PEDRORENA	NA, ELIZONDO	Etxea

Izena	Lekua	
PEDRORENA	NA, ZUBITZA	Etxea
PEDRORENA	NA, ELTSO	Etxea
PEDRORENA	NA, GARRALDA	Etxea
PEDRORENA	NA, LARRAIA	Etxea
PEDROSANCENA	NA, EZKIROTZ	Etxea
PEDROZUBIRENA	NA, GOIZUETA	Etxea
PERUARAN	NA, LESAKA, ALKAIAGA	Etxea
PERUBELCENA	NA, ETXALAR (HIRIA)	Etxea
PERUCHENA	NA, ATALLU	Etxea
PERUCHENA	NA, UITZI	Etxea
PERUCHENA	NA, LARRASOAÑA	Etxea
PERUCHENEA	NA, BERUETE	Etxea
PERUCHENEA	NA, ERITZEGOITI	Etxea
PERUCHO	NA, ARANO	Etxea
PERUCHORENA	NA, UTERGA	Etxea
PERUCHORENA	NA, ZUBITZA	Etxea
PERUCHORENA	NA, (GALAR-) ESPARTZA	Etxea
PERUENA	NA, ETXALAR (HIRIA)	Etxea
PERUGENA	NA, INTZA	Etxea
PERUGORRIA	NA, BERA	
PERUGORRIENA	NA, ETXALAR (HIRIA)	Etxea
PERUJERENA	NA, ELGORRIAGA	Etxea
PERUNEA	NA, ARESO	Etxea
PERUQUIÑENA	NA, ETXALAR (HIRIA)	Etxea
PERURENA	NA, GAINITZA	Etxea
PERURENA	NA, OLAITZ	Etxea
PERURENA	NA, ENDERITZ	Etxea
PERURENA	NA, ZIAURRITZ	Etxea
PERURENA	NA, OSTITZ	Etxea
PERURENA	NA, ELIZONDO	Etxea
PERURENA	NA, LEKAROZ	Etxea
PERURENA	NA, IRURITZA	Etxea
PERURENA	NA, DONEZTEBE (HIRIA)	Etxea
PERURENA	NA, NARBARTE	Etxea
PERURENA	NA, LEGASA	Etxea
PERURENA	NA, INTZA	Etxea
PERURUQUIRENA	NA, LESAKA	Etxea
PERUSCORENA	NA, OSTITZ	Etxea
PERUSQUENEA	NA, BERUETE	Etxea
PERUSQUENEA	NA, ARANTZA (HIRIA)	Etxea
PERUSQUENEA	NA, ARANTZA (HIRIA)	Etxea
PERUSQUERENA	NA, EZKURRA	Etxea
PERUSQUITORENA	NA, ASTITZ	Etxea
PERUSTENA	NA, BETELU	Etxea
PERUSTENA	NA, LEITZA	Etxea, egunean Perustenea
PERUTEA	NA, ELGORRIAGA	Etxea
PELLORENA	NA, IRURITA	Etxea
PELLOSEMERENA	NA, ERRATZU	Etxea

EN TORNO A URDAITZ / URDÁNIZ

Patxi Salaberri

*Miembro de la Comisión de Onomástica de la Real Academia
de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia*

No se puede afirmar categóricamente, como hace el concejo de Urdániz, que “el nombre tradicional y con el que siempre se ha conocido este pueblo” sea *Urdániz* y no *Urdaitz*. En este punto hay que tener en cuenta una cuestión fundamental al hablar de toponomía mayor, y es que frecuentemente ha existido en el País una doble tradición: por un lado tenemos la tradición oficial escrita que refleja únicamente, en la inmensa mayoría de los casos, la versión romance del topónimo de que se trate, y por otro la versión popular vasca transmitida de generación en generación de manera oral, que no aparece sino muy excepcionalmente en los documentos oficiales, excepto en los topónimos menores compuestos de *bidea* ‘camino’, *muga*, *landa* ‘vega’, *mendi* ‘monte’, etc. (cf. *Larrasoainbidea* en Sarasibar, *Zubiribidea*, *Zubirico erreca* en Osteritz, *Zuriainbidea* en Ilurdotz, etc., todos ellos en el catastro de 1901).

Es seguro que *Urdaitz* ha sido el nombre verdaderamente tradicional y popular en la localidad, pues como ha ocurrido en otros muchos lugares de la geografía foral, no hay duda de que el euskara antes de desaparecer era en la mayoría de los casos la única lengua de los urdaitztarras, es decir, estos eran unilingües vascófonos (1). Sabemos que la pérdida del euskara en la localidad es sumamente reciente: tenemos constancia, gracias a un estudio realizado por A. Irigaray sobre la frontera lingüística vasco-castellana (2), que en 1935 hablaban euskara en esta localidad las personas de 50 años en adelante, y también, gracias a otros trabajos similares, que a finales de la década de los sesenta todavía quedaban vascohablantes (3). El investigador Koldo Artola ha tenido la ocasión, en estos últimos años, de recoger testimonios vivos del euskara de

(1) Sobre este tema se puede ver *El espacio bilingüe*, J. M.^a Sánchez Carrión, Eusko Ikaskuntza, Pamplona, 1981, 45-48.

(2) *Una geografía diacrónica del Euskera en Navarra*, Ediciones y Libros, Pamplona, 1974, 12-17.

(3) Ver la obra de J. M.^a Sánchez Carrión titulada *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra*, Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 1972, 130-131.

localidades como *Ilurdotz* e *Inbuluzketa* (4), y también hay algún material publicado sobre el euskara de *Irotz* (5). A. M.^a Etxaide empleó informantes de *Inbuluzketa* y *Leranotz*, además de otros de lugares más septentrionales como *Eugi* e *Iragi* (6).

Todo esto quiere decir que *Urdaitz* ha estado vivo en Urdaitz hasta hace bien poco, en las últimas décadas al lado del oficial *Urdániz* que ha acabado imponiéndose, al perderse la lengua autóctona.

Por lo que respecta a la antigüedad de *Urdaitz*, es necesario desligar los nombres que como éste han sufrido la pérdida de la nasal intervocálica, de otros que han experimentado otros tipos de cambio generalmente más modernos, debidos en parte a factores lingüísticos como por ejemplo la intensidad del acento del dialecto alto navarro meridional hablado en la zona, y en parte a factores extralingüísticos como son la falta de escolarización en lengua vasca y la falta de normalización de la misma, es decir, hay que poner en distinto nivel nombres como *Urdaitz* que responden a una ley fonética general en euskara, presente también en alguna lengua románica como el gallego-portugués, que hace que cierta clase de *n* caiga cuanto está situada entre vocales (cf. *Amillano/Amillao*, *Argiñano/Argiñao*, *Galdeano* o *Galdiano/Galdio*, *Labiano/Labio*, *Torrano/Dorrao*, *Urdanoz/Urdotz*, *Zolina/Zolia...* todos ellos en Navarra, *Oiquina/Oikia*, *Lazcano/Lazkao* en Gipuzkoa, *Galdácano/Galdakao* en Bizkaia, etc. Hay sin embargo otra clase de nasal que no cae nunca: cf. *Elkano* en Navarra y Gipuzkoa) y variantes como *Zubri*, *Lasuin* (Larra-soña), *Sauta* (Saragueta), *Beute* (Beruete), *Ittun* (Ituren), etc., bastante recientes según todas las apariencias, las cuales han experimentado cambios más o menos aleatorios, de ningún modo común a todo el territorio de habla vasca, y que no se pueden aceptar tal cual, debiendo ser sometidas a un proceso de normalización lingüística..

En cuanto a los testimonios documentales, un análisis somero de la documentación deja claro que *Urdaitz*, escrito *Urdaiz* por carecer el castellano de un grafema para representar la africada dorsoalveolar sorda [c] (escrito *tz*), aparece ya en la primera mitad del siglo XVII:

“Pieza en Urdayz bidea, afronta con los términos del lugar de Urdaniz”, Akerreta, 1629 (7).

(4) Por ejemplo en “Hegoaldeko goi-nafarraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiaker)” , *FLV*, 60, 1992, 187-227.

(5) Javier Irigaray Imaz, “Rescoldos del euskera en Iroz (Valle de Esteribar, Navarra)”, *FLV*, 31, 1979, 163-169.

(6) *El Euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-67)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.

(7) Archivo de Santa Engracia, monasterio de claretianas de Olite, censos, 9.

En el mismo siglo nos encontramos a *Miguel de Urdaiz y Joanes de Urdaiz* habitantes en Ekai y Gulina en 1645 (8), sin duda nacidos en *Urdaitz* o descendientes de urdaitzarras.

Más recientemente, se documenta *Urdaizbidea* “el camino de Urdaitz” como término de Setoain en el catastro de Esteribar de 1901, junto a otros nombres como *Anchorizco alorra* “la pieza de Antxoritz”, *Larrasoainbide(a)* “(el) camino de Larrasoaña” en Akerreta, *Iragualdea* “la parte hacia Iragi” en Eugi, *Yroz landa* “la vega de Irotz”, *Sagasetabidea* “el camino de Sagaseta” en Irotz, *Aquerretaco biscar* “la espalda de Akerreta” en Irure, *Olloqui landa* “la vega de Olloki” en Olloki, *Ydoybidea* “el camino de Idoi” en Sarasibar, *Urtasunmuga* “la muga de Urtasun”, *Leranozmendi* “el monte de Leranotz” en Usetxi, etc., todos ellos del catastro del valle de 1892.

Pasando a los testimonios vivos, mencionaremos en primer lugar los recogidos por Koldo Artola (9) el nueve de Mayo de 1981 en Inbuluzketa, pueblo mugante con *Urdaitz*, de labios de Apolonia Egozcue Goñi, nacida en dicha localidad en 1895. Contestando a la pregunta “Misio-neak izan dira hemen?” “¿Ha habido misiones aquí?, ¿se han hecho misiones aquí?”, responde de este modo: “*bai... Urdeizti, bai; oráñik, orái orítzen naiz. Misiotán... () ba maztéki zar bátek útzi men tzué dirue, máteko misioak... dirié... ebázi ematen tzuén bezala. Ta, órduen, dirú pixkét el zeláik (sic), kartzén tzuté fráille on bát, Urdeitzé ta... erráten zuté: «eldú'en astián... misioak»*”. Es decir, traducido al castellano: “sí... **de Urdániz**, sí; todavía, ahora me acuerdo. En las misiones... () dicen que una mujer mayor dejó un dinero, para que hubiera misiones... un dinero... lo ganaba como lo daba. Y, entonces, cuando se conseguía (?) un poco de dinero, traían un buen fraile, **a Urdániz** y... solían decir: «la semana que viene... misiones»”.

Como puede verse tenemos aquí primero una forma *Urdeizti* que corresponde a lo que en la lengua estándar diríamos *Urdaiztik*, es decir, “(venir...) de Urdániz”, y en segundo lugar *Urdeitze* (*Urdaitza*) “(ir...) a Urdániz”. Aquí podemos observar que la forma primitiva *Urdaitz* atestiguada en el siglo XVII, que procede de una forma anterior *Urdanitz* de la que también se deriva la forma oficial *Urdániz*, más conservadora que la forma vasca en cuanto al tratamiento de la nasal intervocálica, pero menos en lo que respecta al tratamiento de sibilante final (tenemos *Vrdaniç* en 1244, y *Urdanitz* en 1274) (10), se ha convertido por asimilación

(8) Inventario del Reino de Navarra, sección estadística.

(9) “Hegoaldeko goi-nafarreraren zentua...”, 218-219.

(10) *Nafarroako herri-izendegia/Nomenclator euskérico de Navarra*, Gobierno de Navarra-Euskaltzaindia, Pamplona, 1990, 51.

de vocales en *Urdeitz*, forma usada todavía, como a continuación tendremos ocasión de comprobar, en los pueblos más septentrionales del valle (Iragi y Eugi) en los que se conserva la lengua vasca.

Joaquín Garrúes Goñi euskaldun nacido en Ilurdotz en 1895, llama, en entrevista realizada por Koldo Artola el 4 de Junio de 1983 (11), *urdaitzarrak* a los nacidos en *Urdaitz*: “*urdáiztarrák, dénak díre motxáleak*”, es decir, traducido al castellano, “*los de Urdániz, son todos esquiladores*”.

El día 17 de diciembre nos dirigimos en un primer momento a Iragi, lugar en la que tuvimos ocasión de entrevistar separadamente a los hermanos Jesús y Cruz Linzoain, nacidos en 1992 y 1924, naturales y habitantes del mismo y vascohablantes. A nuestra pregunta acerca de cómo llamaban a Urdániz en euskara nos contestó Jesús literalmente “*neretako da beti Urdeitz [ürdéic]* (para mí es siempre *Urdeitz*)”. Este nombre en los distintos casos de lugar y tiempo se declina así según este informante: “*Urdeitez [ürdéice] naie*” (voy a Urdániz), “*Urdeizti [ürdéstí] torri naiz, heldu naiz*” (hé venido, vengo de Urdániz), “*Urdeitzen [ürdéicen] baitut aixkide batzuk*” (tengo amigos en Urdániz), “*Urdeizkoa [ürdéiskoa] da*” (es de Urdániz), “*Urdeizko arotza deitu beharko dut, ezbaitago ongi ure*” (tendré que llamar al herrero de Urdániz, pues el agua no está bien). Si una persona es natural de Urdaitz se le llama *urdeiztarra* [ürdeistára]. Cruz Linzoain, por su parte, nos dio las siguientes respuestas: “*Urdeitz [ürdéic]*” (Urdániz), “*Urdeitez [ürdéice] juan biaut*” (tengo que ir a Urdániz), “*Urdeitzen izendu naiz [ürdéicen iséndu nqis]*” (he estado en Urdániz), “*heldu naiz Urdaiztik [ürdáistik]*” (vengo de Urdániz), “*urdaiztarrak [ürdáistarak]*, *urdeiztarrak [ürdeistárap]*, *Urdeizkoak [ürdéiskoak]*” (urdaiztarras, de Urdániz).

Seguidamente pasamos a Eugi, localidad en la que entrevistamos en primer lugar a Anita Egozkue, nacida en 1923, y hermana del bertsolari Urbano Egozkue. A nuestras preguntas contestó lo siguiente: “*Urdeitz [ürdéic]*” (Urdániz), “*Urdeitez [ürdéice] juan ta hori, mandatuz o lanera o...*” (ir a Urdániz de recados o a trabajar...), “*Urdeizti [ürdéstí] heldu naiz*” (vengo de Urdániz), “*Urdeitzen [ürdéicen]*” (en Urdániz), “*urdeiztarrak [ürdeistárap]*”. Posteriormente nos dirigimos al caserío de la misma localidad llamado Arginen borda, donde tuvimos oportunidad de hablar con Pedro Añorga (nacido en 1912) y Beatriz Etxebarria (nacida en 1926). Esta última a nuestras preguntas contestó del siguiente modo: “*Urdeitz [ürdéic]*” (Urdániz), “*Urdeitzen [ürdéicen]*” (en Urdániz), “*Urdeiztik [ürdéistik]*” (de Urdániz), “*Urdeitez [ürdéice]*” (a Urdániz). El primero nos dio las siguientes respuestas: “*Urdeiztarrak [ürdeistárap]*”, “*Urdeitzen [ürdéicen]*” (en

(11) “Hegoaldeko goi-nafarreraren...”, 210.

Urdániz), “Urdeitz [urðéic]” (Urdániz), “Urdeizko [urðéisko] arotza” (el herrero de Urdániz).

Resumiendo, el nombre popular y tradicional de la localidad llamada en castellano *Urdániz* ha sidoi *Urdaitz*, forma documentada ya para el siglo XVII, y viva hasta hace bien poco en pueblos como Ilurdotz e Inbuluzketa, y conocida y empleada todavía por los vascohablantes de Irati y Eugi bajo la forma *Urdeitz*, debida a lo que se ha dado en llamar armonía vocálica (un tipo de asimilación de vocales). En lengua vasca la forma normalizada de este topónimo mayor es *Urdaitz*, forma propuesta por la Real Academia de la Lengua Vasca (12).

(12) *Nafarroako herri-izendegia.*

NAFARROAKO ZENBAIT IBAR, HERRI ETA AUZOREN EUSKARAZKO IZENAK

*Patxi Salaberri
Onomastika batzordeko kidea*

Lan honetan Nafarroako zenbait ibar, herri, eta auzoren euskarazko izenez arduratuko gara, hots, euskara bizirik egon zen bitartean herri eta bailara horiek izan zuten euskal izena zein izan zen aztertuko dugu (kasu batean edo bestean herria oraindik euskalduna da). Izen asko, gehienak, euskal etorkikoak dira, baina honek ez du esan nahi euskaldunok beren horretan erabili ditugunik beti, euskaraz arruntak diren arau fonologikoak indarrean egon baitira hemen, bestetan bezala, bokal arteko sudurakariaren erortzea, kasu.

Ez dugu, inondik ere, “aurrehistoria”-ra itzuli nahi, baina bai euskaldunen artean ohizko izan diren izenak, aldaerak, berreskuratu. Aldaera hauek gutxitan azaltzen direla esan daiteke, hauen agertze-maiztasuna izen ofizialek dutenarekin erkatzen bada, baina guziarekin ere behin baino gehiagotan edireten ditugu eskuarki, batez ere karpeta mordoxka miatu ditugun alderdietan.

Bakarren batzuek, “praktikotasuna” aintzat harturik galduztako ize-nok errekuperatzeak zertarako balio duen galdegin dute berriki. Hauei beste galdera batez erantzun dake: zertarako balio du, Nafarroatik atera gabe, *Doneztebe, Hiriberri* (Arakilen, Aezkoan...), *Dorrau, Aurizberri, Luzaide...* bezalako izenak gordetzeak? Ez al da askoz azkarrago eta “praktikoago” erdaldunen artean korritzen duten *Santesteban, Villanueva, Torrano, Espinal* eta *Valcarlos* euskarazko ofizialtzat jotzea? Beste maila batean, zertarako konplikatu behar dugu bizia -otz bukaera gogaikarria euskarazko izenetan sartuz baldin bideseinaleak egiteko orduan errazago, merkeago, eta batez ere, onargarriago (erdaldunentzat, jakina, kasu gehienetan) (1) bada erdaraz arrunta den -oz uztea?

Gure irudiko erantzuna argia da: bai orain bizirik (nahiz hilzorian) dauden izenetan, bai dokumentazioan aurkitzen ditugunetan, euskaldu-

(1) Hemen ez gara Baztangoa bezalako kasuez ari.

nen artean arruntak diren edo izan diren izen edo aldaerak ofizialdu behar dira (*Zarrakaztelu, Nabaskoze, Gerendiaian, Biotzari, Nardoze...*), beharrezko dituzten (izatekotan) ukituak egin ondoan (*laurta → Ihaurrieta, Antxoia, Antxua → Aintzioa...*). Honek ez du esan nahi, diogun berriro, aurrehistoriara jo behar denik; tokian tokiko euskara noiz(tsu) galdu zen hartu beharko dugu kontuan, eta honetan eta dugun informazioa oinarrituta erabakia hartu. Alderdi honetatik zorrotz jokatu beharra dago gure ustez, maiz lekukotasun bakarrarekin edo pare batekin egin beharko baitiogu aurre auziari. Erran nahi duguna zera da, lekuoa soberan ez ditugula izanen anitzetan.

Zalantzak bat baino gehiago izanen dira, bereziki informazio urria dugun kasuetan, baina “praktikotasun” gaizki ulertu horrek ezin izan de sake, gure ustetan, euskaldunek erabilirikako ohizko izen edo aldaerak bazter uzteko adinako indarrak.

Herri edo ibar baten izen euskalduna zein izan den jakiteko bide bat baino gehiago dago. Hauetako bat mugaldeko euskaldunei beheitia-goko herriei, harremanak izan dituzten herriei nola esaten dieten galde-gitea da. Honela jakin ahal izan genuen, adibidez, *Carcastillo* eta *Tudela* euskaraz *Zarrakaztelu* eta *Tutera* (*Tutra Zaraitzun, sinkopaz*) direla, edo beste arlo batean *Dos Hermanas* ezagunari *Axitarte* (*Axiterte*, bokal-armoniaz) esan izan zaiola euskaraz harrarteaz hegoaldean behintzat. Bide hau, halarik ere, ez da nahi genukeen bezain emankorra, eta Nafarroako mendebaldean esaterako deus gutxitarako balio izan digu (2).

Herrien (batik bat) eta bailaren (neurri txikiagoz) izen euskaldunak ezagutu ahal izateko beste bide bat agiri zaharren miaketa da: hemen toponimo euskaldunetan, batez ere *bide* bigarren osagaitako dutenetan, baina ez bakarrik hauetan, edireneng dugu sarri askotan euskara aspaldi handian galdu zuten herri eta haranen izena, eta kasu batzuetan baita inoiz euskaldunak izen diren ez dakigunenak, goragoxeko herri euskaldun ohietako toponimiari esker.

Guk oraingoan Euskaltzaindiaren *Nafarroako herri-izendegia* lanean (3) bildutako datu eta emaitzetatik (erabakietatik) saihesten diren izenetako batzuk baizik ez ditugu ukituko (*Amillao* eta *Antzin* dira sal-buespenak), paper zaharren arakatzea lan mantso, astun eta maiz gogai-karria izanik mordoxka bat besterik biltzeko gauza izan ez baikara. Beste asko eta asko hor daude, ikertzaileen esperoan, agiri egokia zeinek au-

(2) Dena den, gure ikerketak ere ez dira sekulan izan zitezkeen bezain sakon eta jarraituak alde batetik, eta bitxi bat edo beste jasogabeak ere ez gara, beste aldetik, hala nola *Goñeri* edo *Oolloibar* (*Ollobar*) Bautista Etxarren jaun jatorraren ahotik, edo *Xabros* (*Sabrose*) “*Jabróis*” Jazinto Ramirez espartzar euskaldunagandik.

(3) Iruñea, 1991.

keratuko zain. Hauen artean erdaraz *-ano* bukaera dutenak aipa daitekezke (*Bakedano*, konparaziorako), aski berandu arte euskaldunak izan diren *Villamayor de Monjardín* edo *Villatuerta* bezalako herrien euskarazko kideak, edo franko hegoaldean egonik ere bidez herri euskaldun ohiiek loturikako Erriberako hainbat herriren izenak.

Guk bidutakoetan agiriko lekuko zehatzaz landa, gure ustez aldaera batutzat proposa daitekeena sartu dugu, izenburuan:

1. Adios:

NHI-n euskal izentzat *Adiotz* eman bazen ere, aipurik zaharrena **Adios**-en aide mintzo da, eta guk dokumentazioan forma hau aldi bakar batez bilduagatik, garbi samar ikusten da euskaraz ere **Adios** ibiltzen zela. Hau, dena den, ikerketa sakonago batek baiesten edo ezesten duen artean ezin da seguratu.

1.1. *Adiosbidea*:

—“otra pieza situada en el terº llamado adiosvidea... afrontada con el Camino”, Muruzabal, 1547 (4).

2. Ageza:

Izen hau bitan aurkitu dugu, Agezaren mugakideak diren Galipentzu eta Morionesen, hots, herriaz hego nahiz iparraldean. Grafia aski argia da, eta *Ayesa*-rekin lotzeko arazo fonetikorik bat ere ez dago (5).

2.1. *Agezabidea*:

—“otra pieza en agueçabidea... se atiene al Camino Real”, Galipentzu, 1641 (6).

—“otra pieza en agueça bidea”, Miriones, 1650 (7).

3. Altzutza:

Izendegian *Altzuza* hobetsi zen, baina han-hemenka ugariak dira izen hau *Alchucha*-itxurapean duten toponimoak. Cf., esaterako, Burlatako edo Uharteko *Altzutzate*-ren lekuoa (8). Etimologia ere *Altzutza*-ren alde mintzo da, bukaeran itxuraz *-tza* ugaritasunezkoa baitugu. Dena den, Burlatako eta Uharteko toponimoetako *Alchucha* Eguesibarreko he-

(4) PRA-Gares, 2. k.

(5) Iku Alfonso Irigoienen “Nafarroako *Aiesa* toponymoa euskaldunen artean *Ageza* forman ere erabili izan dela dirudi” artikuluxka, *DRPLV-III*, 161-162. orr.

(6) IEA, 387. kart., 12. zkia, 9. or.

(7) PRA-Oibar, 26. k.

(8) Jimeno Jurío, *Estudio toponímico de Burlada*, Burlatako udala, Iruñea, 1991, 47. or., eta *NTEM-I*, 70. or.

rri-izena den ez da erabat segurua, eta beste aldetik aipatu *Altzutzate* toponimoak -*sate* bukaera duten aldaera franko ditu. Hauek, agian, *ate*-ren adierakidea irudi duen *esate*-ren (*sate* bilakatua zenbaitetan, hala nola Zareko *Martisatea-n*) aldaerak baizik ez dira izango. Gainera, eta eskuardi, -*tze* ediren ohi dugu alderdi honetan, ez -*tza*.

4. Alu (Allo):

Allokoek beren herriak euskaraz zer-nolako izena zuen ikasten dutenean sobera ez direla poztuko ongi badakigu ere, uste dugu, lekuoak zeharo urriak izan arren, Oteitzan 1757an ediren dugun *Alu* dela Alloren euskarazko benetako izena. Fonetikoki ez dago arazorik: jatorria **Allu* moduko bat izan zitekeen, hots, alboko geminatua zuen forma bat. Hemendik erromantzeko alboko sabaikaria aterako zen, eta euskarazko *L* hasiera batean “gogorra” (cf. *castellu* > *castillo, gaztelu*). Erromantzeak, gainera, azken bokala irekiko zuen, ohizkoa den gisan, eta euskarak eba-keria zaharrari eutsiko zion.

Dokumentaturik dagoen *Alo*-tik (9) ere abia gaitezke erdarazko eta euskarazko aldaerak erdiesteko. Kasu honetan erromantzeak alboko “gogorra” latineko alboko geminatuaren ondorengoekin identifika zezakeen, eta [l]-ren bidez eman, euskarak azken bokala hersten zuelarik. *Alo* zer den ez dakigu, baina Garesen, Alutik ez urrutি, **Aloa** izeneko dermioa ediren dugu, 1548. urtean:

—“dos peonadas... En la pte llamada Aloa... afrontada... por la parte de vaxo con el Rio de arga y de la part de arriba con el Camino q ban de la dicha villa para El lugar de Artaçu” (10).

4.1. *Alubidea*:

—“mas otra pieza en el tterno de Alubidia... afrontada a... Camino q se ba ala Villa de Allo”, Oteitza, 1757 (11).

Egia esan, *Allobidea* ere aurkitu dugu, herri eta urte berean, baina beste aldetik, badakigu euskara galdu edo ahultzearekin euskal toponimoetan ere erdarazko aldaerek sarrera handia izan dutela (cf. *Zarebidea/Sadabidea* Leatxen):

—“Mas otra pieza en el tterno de Allobidea... afrontada a Camino que se ba a la v^a de Allo” (12).

(9) Ikus *NHI*, 216. or.

(10) PRA-Gares, 2. k.

(11) PRA-Oteitza, 2. k.

(12) Id., 3. k.

5. Ameskoa:

Izen honek sortarazten dituen zalantzak hauek dira: Azkuek uste zuen moduan *ametz* zuhaitz-izenetik eratorria da, ala honekiko lotura ez dago inolaz ere argi? *Ametz*-ekin zer ikusia izan arren ezinezkoa da euskaldunek berek etorkiko ustezko [s] bizkarkaria apikari bilakatua?

Honako toponimo hauetan ediren dugu:

5.1. Ameskoatea:

—“Una pieza en amescoa atea... tente a Rio Caudal”, Ulibarri, 1698 (13).

—“Una pieza en amescoa atea”, Biloria, 1695 (14).

5.2. Ameskoabidea:

—“otra pieza en amescoa bidea termino de viloria”, Biloria, 1693 (15).

—“otra pieza... en Amescoa videa”, Biloria, 1732 (16).

5.3. Ameskoazargaña:

—“...y desde alli alapared del Castillo de Amescoa Cargaña y de alli a la Cueba de mecalorra”, Zudairi, 1665 (17).

5.4. Ameskoazarlepoa:

—“...mas arriba de la pieca de Urrayçola asta el arbol que tiene dos cruces y otras señas beniendo acia Amescoa Asta Amescoacarlepoa donde esta un encino...”, Zudairi, 1665 (18).

6. Amillao:

NHI-n erdarazko *Amillano*-ren euskal ordaintzat *Amillao* ematen bazen ere, ez zegoen erabakia oinarritzeko froga gehiegi. Oraingoan harritako erabaki hura baiesten duten bi lekuko dakartzagu. Jatorria, era-kutsian dagoenez, *Amillano* ofiziala dugu.

6.1. Amillaomendigaña:

—“(otra pieza... en)... Amillau mendigaña”, Galdio, 1602 (19).

(13) PRA-Artabia, 9. k.

(14) Id., 16. k.

(15) Id., 7. k.

(16) Id., 23. k.-bis.

(17) Id., 2. k.

(18) Id., 2. k.

(19) PRA-Lizarra, 65. k., 18. zkia.

6.2. *Amillaoburua:*

—“(otra pieza... en)... Amillau burua”, Amillao, 1620 (20).

7. *Antzin:*

Izendegian *Antzin* eman zen erdarazko *Ancín*-en euskarazko aldaeratzat, baina dokumentazioan ez da ageri euskaldunek *Antzin* esaten zu-telako frogarik bat ere. Guk herri-izen hau toponimo euskaldun batean aukitu dugu, eta horregatik dakargu hona.

7.1. *Antzinbidea:*

Lekuko bakarra dugu, eta ez dakigu txistukaria igurzkaria ala afrikatua den:

—“una pieza... en Ancinbidea termino de Mendilibarry”, Mendilibari, 1692 (21).

8. *Aramendia-a:*

Izendegiaren arabera *Aramendia* da *Aramendía* ofizialaren euskarazko izena. Guk ediren dugun toponimoan ikusten den gisan, bukaerako -a hori artikulua da. Hortaz, *Aramendia-a* proposatu behar genuke.

8.1. *Aramendira bidea:*

—“otra (pieza)... en aramendira bidea...”, Eultz, 1726 (22).

9. *Aranatz* (Aranaratxe):

Kasu honetan gauzak ez daude guk nahi genukeen bezain garbi, dokumentazioan *Aranaz*, *Aranach*, eta *Aranas* aurkitzen baitugu, azkeneko txistukaria beti herskari aitzinean dagoelarik (cf. hegoaldeko goinafarreraz arruntan diren “esta” ‘ez da’, “estirade” ‘ez dira’...). Beste aldetik, *Nafarroako herri-izendegia-n* bildu lekuoetan XIV. mende arte *Aranarach*, *Aranarass*, *Aranaratx*, eta *Aranarax* dugu (23), hots, amaieran itxuraz [ʃ] edo [č] duten aldaerak. Hauek, halarik ere, bitxi samarrak dira euskal fonetikaren aldetik, hitz bukaeran arruntenak afrikatu bizkar-kariak, eta ez sabaikariak, direnez gero. Gainera, bildu ditugun lekuotasunetan soinu guztiak jatorrizko bukaerako [s] edo [c] batetik erator daitezke, -z grafema, jatorrizko soinutzat [ʃ] edo [č] aitortuz gero, aski azalgaitz gertatuko litzatekeen bitartean. Nolanahi ere den, ez dago za-

(20) Id., 67. k., 464. zkia.

(21) PRA-Artabia, 6. k.

(22) Id., 23. k.

(23) 206. or.

lantzarik alderdiko euskaldunek *Arana(t)z* edo *Arana(t)x* ibiltzen zutela euskaraz mintzatzerakoan.

Ditugun lekuoak hauek dira:

9.1. *Aranas bidea*:

—“una (pieza) en el (termino) que llaman Aranas bidea... afrontada a... Camino que se ba a Aranarache”, Eulate, 1696 (24).

9.2. *Aranachbidegaina, Aranasbidegaina, Aranasbidagaina, Aranazbidegaina*:

—“una pieza... sita en el termino del dho lugar llamado aranazbidegaina... tente... a camino Rl que se ba al dho lugar de Aranarache”, Eulate, 1689 (25).

—“otra pieza en Aranachbidegaina”, Eulate, 1698 (26).

—“otra pieza en Aranasbidagaina”, Eulate, 1717 (27).

—“una pieza en... Aranasbidegaina”, Eulate, 1707 (28).

9.3. *Aranazko iturria*:

—“...y desde alli (Erenzauko hegia-tik)... fueron asi bien a la fuente llamada de aranazco yturria”, Eulate-Aranatz, muga-berrikusketa, 1686 (29).

9.4. *Aranazmuga, Aranasmuga*:

—“Primte. Una pieza en Aranaz Muga... tente a pieza de Maria de Andueza viuda de Lopez de Albizu V^a de Aranarache”, Eulate, 1691 (30).

—“...la una (pieza) en el terº q llaman aranasmuga”, Eulate, 1707 (31).

10. **Beire**:

Izendegian ohizko *N.t.e.c.c.-ren* ordez *Beire* sartu genuen, zuzen gure aburuz. Beirerekin muga egiten duen Uxuen ediren dugu toponimo hau.

(24) PRA-Artabia, 16. k.

(25) Id., 5. k.

(26) Id., 16. k.

(27) Id., 22. k.

(28) Id., 19. k.

(29) Id., 2. k.

(30) Id., 6. k.

(31) Id., 19. k.

10.1. *Beiremuga:*

—“ytten otra pieca en beyremuga u mojon de beyre”, Uxue, 1608 (32).

11. *Berro(t)za-a?:*

Azken *-a* horren galtzea elkartekan joateari zor zaiola dirudi, ez artikulua edo izateari, *Berrotza*-ko *-tza* atzizki multzokari izan bailiteke.

11.1. *Berrozbidea:*

—“otra pieza en berrozbidea tte a... zequia Conzegil”, Etaiu, 1724 (33).

12. *Estella:*

Hiri honen euskarazko izena Nafarroako (eta bestetako) giro euskaldun-euskaltzaleetan beti *Lizarra* izan dela esan dezakegu, neurri batez Euskaltzaindiak izen honi eman dion bultzada dela medio (34). Beste aldetik, Jimeno Jurío eta Ricardo Zierbideren lanei esker (35) badakigu orain auzo baten izena besterik ez dena antzina hiri osoarena izan zela. Guziarekin ere, *Lizarra* ingurua euskalduna izan zen azken mendeetan bertako euskaldunek ibiltzen zuten izena *Estella* zela garbi dago, toponimia aintzat hartzen badugu. Mendiez iparraldeko euskaldunek ere (Arakil eta Ergoienekoek, adibidez) *Estella* eta *Estellerria* ibiltzen dute *Lizarra* eta *Lizarra* ingurua aditzera emateko, eta Iruñerrian ere *Estellerria* ibili izan da, *Estella*-z landara (36).

Beste aldetik, eta arestian esan bezala, *Lizarra*-k badu bere tokia euskal kulturan eta eguneroko bizitzan (egunkariak, irratи-telebistak, ikastolak, testuak...), eta ez dugu uste kontra egin behar zaionik, hartu duen indarra hartu duenez gero (cf. *Vitoria/Gasteiz*, adibidez).

12.1. *Estellabidea, Estellabideondo, Estellara bidea:*

Eulate, Zudairi, Gollao eta Iguzkitza-Oteitzan ediren dugu *Estella* izena euskal toponimoen osagarri:

—“otra pieza en el termino de gollano y en el q llaman Estellabidea”, Gollao, 1697 (37).

(32) PRA-Oibar, 13. k.

(33) PRA-Artabia, 22. k.

(34) Ikus, adibidez, *Euskal Herriko udalen izendegia*, Bilbo, 1979, 27. or., edo berrikiaigo *NHI*, Iruñea, 1990, 160. or.

(35) “Informe sobre las denominaciones Lizarra/Estella y Atarrabia/Villava”, eta “En torno a las denominaciones de la ciudad de Estella”, *FLV*, 51, 1988.

(36) Ikus Jimeno Juriotren *TCPCO*, 267. or.

(37) PRA-Artabia, 17. k.

—“Una pieça... en la parte llamada Estellabideondoa... afrontada con Camino Real que ban a estella”, Eulate, 1665 (38).

—“otra pieza En el puerto llamado estellabideondoa”, Zudairi, 1696 (39).

—“otra pieza... en los terminos de Zudaire y en el llamado estellara bidea azia al lado del molino”, Zudairi, 1723.

—“ocho peonadas en el termino de estellabidía que afronta a camino que se ba a la Ciudad de Estella”, Oteitza, 1754 (40).

13. **Galbarra-a:**

Izendegian *Galbarra* ofizialaren euskarazko izentzat *Galbarra* agertzen da, baina itxuren arabera bukaerako -a hori artikulutzat jo beharra dago. Narkuen azaltzen da, bi toponimo ezberdinetan:

13.1. *Galbarbidetxipia:*

—“otra pieza en galbarbide chipia... tente a piezas de Maria albarez Marichimi”, 1695 (41).

13.2. *Galbarko zaidua:*

—“otra (pieza) en galbarco zaldua teniente a piezas de franco (Francisco) albarez y Mojón de Galbarra”, 1682 (42).

—“otra pieza en galbarco zaldua... tente a pieza de la dha María garcia y de María Mendaza viuda de Pedro Remiro Vecina de galbarra”, 1698 (43).

Badugu, halaz ere, azken -a hori artikulutzat jotzearen kontra mintzo den lekukotasuna:

—“otra pieza en galbarra bidea”, 1691 (44).

14. **Galdio** (“Galdiano”):

Galdio-ren jatorria, esan beharrik ez legoke, erdaraz ofiziala den *Galdeano* da, edo orobat dena, honen *Galdiano* [galdjáno] aldaera herrikoia. *Galdiano*-tik bokal arteko sudurkaria eroritakoan **Galdiao* aterako zen, eta hemendik i-ren ondoko bokal-laburketaz, *Galdio*. Laburketa ho-

(38) Id., 2. k.

(39) Id., 16. k.

(40) PRA-Oteitza, 1. k.

(41) PRA-Artabia, 8. k.

(42) Id., 9. k.

(43) Id.

(44) Id., 6. k.

netan zer ikusia izanen zuen azentuaren tokialdatzeak, hots, *Gáldeo* > *Gáldeo* gertatuko zen (ikus *Larragua* izena aztertzerakoan dioguna. Cf., gainera, *Zebrio* > *Zeberiano*, eta *Zipirio* > *Zip(i)riano*) (45).

14.1. *Galdioibidea:*

—“Yten otra (pieza)... en el termino de Galdiovidea”, Etxabarri, 1826 (46).

15. *Gollao:*

Izen honen iturburua, bistan denez, izen ofiziala den *Golláno* dugu. Hemendik, bokal arteko sudurkariaren ondorioz, **Gollao* aterako zen, eta hemendik, azkenik, *Gollau* ([goláu] seguruenera). Cf. *Torráu* > *Dorráu* (baita > *Dórro* ere).

Dokumentazioan *Gollau* aurkitzen dugu, 1689ko *Gollai-* okerraz beste guztietañ:

15.1. *Gollaudermaua:*

—“el dho franco lopez (hipoteca) una pieza... en gollau dermaua tte a piezas del palazio de gollano”, Bakedano, 1724 (47).

—“otra pieza... en el terº de gollau dermaua tte a piezas del dho Palazio (del lugar de Gollano)”, Bakedano, 1729 (48).

15.2. *Gollauko txaparduiburua:*

—“una pieza en gollaico chaparduyburua termino de gollano”, Gollao, 1689.

16. *Iribarri* (*Ulibarri*):

Euskal toponimoetan *Iribarri* eta *Ulibarri* azaltzen badira ere, esan beharra dago lehena askoz ere arruntagoa dela, hots, askoz ere gehiagotan agertzen dela. Bigarrena agertzea hizkuntza ofizialaren eraginari lepora dakioke, zenbaitetan, baita toponimo euskaldunetan ere, aldera hau (ofiziala) eta ez herrikoia, aurkitzen baitugu. Honako leku-izen eta herri hauetan topatu ditugu:

(45) AV, 47. sarrera.

(46) Allin eta Ameskoetako hip., 12. lib., 85. or.

(47) PRA-Artabia, 22. k.

(48) Id., 23. k-bis.

16.1. *Iribarribidagaina, Ulibarribidagaina, Iribarribideondoa* (Narrue):

- “otra pieza en yribarribidagayna”, 1692 (49).
- “otra pieza en Ulibarry bida gaina”, 1694 (50).
- “huna pieza en ulibarri bide gaina”, 1689 (51).
- “otras pieca en yribarri bideondoa Con su mangada”, 1644 (52).

16.2. *Iribarribidea, Iribarribidegaina* (Biloria):

- “una pieza en Yribarri videa”, 1678 (53).
- “otra pieza en Yribarribidegaina”, 1695 (54).

16.3. *Iribarriko muga* (Galbarra):

- “una pieza en yribarrico muga”, 1691 (55).

17. **Kaseda:**

Kasedabidea behin baino gehiagotan dokumentatzen da, baina *Santakaramuru* ez bezala, gaurregun ez dago bizirik. Izendegiko *N.t.e.c.c.-ren* ordez *Kaseda* proposatu behar genuke, euskaldunek *Kaseda* ibili izan dutela kontu argia baita, hurrengo toponimo honetan ikus daitekeen moduan:

17.1. *Kasedabidea*:

- “Ms otra pieza... en el terno de Caseda videa tente (‘teniente’) al camino q ban a Caseda”, Leatxe, 1723 (56).

18. **Lana:**

18.1. *Lanabidea, Lanara bidea*:

- “Una pieza cara de San Bartolome... tente a senda q se pasa a bal-delana... Una pieza en lanabidea”, Abaigar, 1697 (57).

(49) Id., 6. k.

(50) Id., 7. k.

(51) Id., 5. k.

(52) Id., 4. k.

(53) Id., 16. k.

(54) Id., 16. k.

(55) Id., 16. k.

(56) IEA, 1765. kart., 9. zkia., 915. or.

(57) PRA-Artabia, 8. k.

—“otra pieza en lanara bidea”, Abaigar, 1698 (58).

18.2. *Lanarbidea*:

Toponimo honek beste toponimo batean oinarriturikako gentilizio batean du sorburu. Osagaiak, bistan denez, hauek dira: *Lanar* (< *Lana* + *-ar*) + *bidea*.

—“otra pieza en lanarbidea... pegante a pieza del dho Pº Sanz de galdiano y Camino RI q los de baldelana ban a Estella”, Ollogoien, 1694 (59).

19. *Larraga*:

19.1. *Larragabidea*:

—“La hulttima (muga) se pusso Juntto a el camino de Larraga... la que tira drechamentte pr el camino subiendo hacia el lugar y el llamado Larragavidea”, Oteitza, 1752 (60).

—“ottros vienes... sittos en los terminos de estta dha Villa goza y posee una pieza en el llamado Larragavidia... afronttada a Camino Real que se ba a la Villa de Larraga, terno de Ydoiberria”, Oteitza, 1761 (61).

20. *Larragua* (*Larraona*):

Toponimo honen jatorria dudarik gabe ofiziala den *Larraona* dugu. Hemendik, euskaraz arrunta den bokal arteko sudurkaria erori, eta **Larraona* emanen zuen lehenik, eta **Larrawa* gero. Beranduago, euskaraz eta gaztelaniaz arrunta den bezala, belare bat agertu zen [w]-ren aitzinean, *Larragua* sortuz (cf. guartu “ohartu”, guatze “ohatze”, guain [gwáin n]...) (62). Garbi samar dago, beste aldetik, azken forma honek azentua bigarren silaban zeramala, alegia [lañágwa] ebakitzen zela, bestela, izen honek erdarazko formak gaurregun duen azentuaketa (*Larraóna* esaten da) atxiki izan balu, -o- ez baitzatekeen -w- bilakatuko inodik inora. Hortaz, zera pentsatu beharra dago, gaurko *Larraóna* antzina (edo euskaldunen ahotan) *Larráona* zela, edo euskarara igarotzerakoan azentua ezkerretara mugitu zela, arrazoia garbi ageri ez dela (cf., dena den, *Torráno* > *Dorráu* > *Dórro*).

Bitan ediren dugun *Larragoa* aldaera forma ultzazuzendu bat beserrik ez da gure iritziz, alegia, agirietan maiz baino maizago opatzen dugun -oa-/ua- txandakatzearren adibide bat gehiago baizik ez.

(58) Id., 9. k.

(59) Id., 7. k. Cf. Legariako *Senda de los Valdelaneses*. Id., 8. k., 1695.

(60) PRA-Oteitza, 1. k.

(61) Id., 3. k.

(62) Dena den, aitortu behar da ala euskaraz nola erdaraz soinu belare horren agertzea hitz hasieran gertatzen dela, eskuarki, ez hitz barruan.

20.1. *Larraguabidea, Larraguabidapea, Laraguabidegaina, Larraguabidea:*

—“otra pieca... en Larragoa Vide... afrontada... con... camino real que ban a Larraona”, Aranatz, 1687 (63).

—“otra pieza en Larraguabidea termino de Eulate... tente a pieza del palacio de S. Mn.^o, Eulate, 1693 (64).

—“otra (pieza) en larraguabidegaina”, Eulate, 1705 (65).

—“otra pieza... en larraguabidapea... con... Camino RI que ban a la rraona”, Aranatz, 1709 (66).

—“otra pieza... en larraguarabidea”, Aranatz, 1711 (67), Eulate, 1700 (68).

21. *Mendabia:*

Izendegian *N.t.e.e.c.* agertu arren, garbi dago, jarraian ikusten denez, euskaldunok *Mendabia* erabili izan dugula.

21.1. *Mendabiabidea:*

—“otra pieza en mendabia Vide... ter^o de Arroniz... que Afruenta con camino q ban a mendabia”, Arronitz, 1602 (69).

22. *Mugairi:*

Izendegian Euskaltzaindiak *Mugairi* eman zuen ofiziala zen *Mugairen* euskarazko kidetzat, bukaerako bokalaren irekitzea, beherago iku-siko dugun *Zudairi/Zudaire*-rena bezala, erdararen eraginari zor zitzailakoan edo. Orain dakartzagun lekukotasunak Andrés Iñigo batzordekideak bilduak dira, eta bertan ikus daitekeen moduan, *Mugairi* aldaera da bakarra edo nagusi XIX. mende arte:

—“...en las casas de mugayry que es en la valle de vertiz...”, 1544 (70).

—“...en mugayri...”, 1569 (71).

(63) PRA-Artabia, 4. k.

(64) Id., 7. k.

(65) Id., 19. k.

(66) Id., 20. k.

(67) Id., 20. k.

(68) Id., 16. k.

(69) PRA-Arronitz, 4. k.

(70) PRA-Doneztebe, 10. k.

(71) Id., 67. k.

- “Joanes de mugayri vecino de oronoz...”, 1580 (72).
- “...una borda con su mançanal sita en mugairi...”, 1644 (73).
- “...en el lugar de oyeregui cavo la puente de Mugayria...”, 1646 (74).
- “...otra heredad en el termino de mugairi...”, 1683 (75).
- “...mugairi...”, 1769 (76).
- “...en la benta nombrada mugaide jurisdicion de el lugar de oronoz”, 1783 (77).
- “...benta de mugairu (sic) propia de los terminos del lugar de oronoz...”, 1812 (78).
- “...en la benta de Mugairi, jurisdiccción del lugar de oronoz...”, 1814, 167. k., 22. zkia.

23. **Murgieta** (“Murgindueta”, Arakil):

Izendegian aldaera honen lekuko biziak bildu baziren ere, forma osoa hobetsi zen, oker ez bagaude bien artean dagoen alde handiagatik eta *Murgieta* eta antzeko aldaeren ustezko berritasunagatik. *Murgieta* ordea, ez da batere berria, segituan ikusteko aukera izanen dugunez, eta gure ustez *Otsagabia-Otsagi*, *Olatzagutia-Olazti* eta abarren taldean sartu behar genuke, aldaera osoa eta laburtua ontzat joaz.

23.1. *Murgietabidea*:

- “yten otra p^a·en murgieta videa... afrontada... con el Camino Real...”, Ihabar, 1565 (79).

24. **Olatz** (Egues):

Izendegian *Olatz Txipia-a* agertu arren, argi dago izen hau beste zerbaiti dagokiola, eta erdarazko *Olatz-en* euskarazko kideak *Olatz* izan behar duela.

(72) Id., 52. k.

(73) Id., 65. k.

(74) Id., 4. k.

(75) Id., 78. k.

(76) Id., 78. k.

(77) Id., 132. k., 7. zkia.

(78) Id., 207. k.

(79) PRA-Arakil-Hirib., 2. k.

24.1. *Olazbidepea*:

—“otra (pieza)... en Olazbidepea linta con... Camino de olaz”, Labio, 1858 (80).

25. *Olexua*:

Lekuko bakarra dugu, eta bertan azaltzen den -x- grafemak [š] soinua ezezik, [x] ere adieraz lezake, baina edozein moduz, izendegian bilten diren testimonio zaharrek garbi uzten dute oraingo [x] lehenagoko [š]-tik atera dela (cf. euskaraz [š]/erdaraz [x] duten hainbat herri-izen eta toponimo). Dena den, euskaraz dugun lekuko bakarrak -ua- du, eta bilateke hau izatea euskaldunek erabili zutena.

25.1. *Olexuabidea*:

—“una pieça... en el termino detayo llamado olexua bidea”, Etaiu, 1600 (81).

26. *Oleta* (Olleta, Orba):

Erdaraz *Oleta* deitzen duguna euskaraz tradizionalki *Oleta* izan da euskaldunen ahotan, Lergako *Oletabidea* toponimoak frogatzen duen moduan. Etimologia ura bezain gardena da: *ola* “etxola, burniola” + *-eta*. Beste aldetik, erdarazko [l]/euskarazko [l] erlazioa oso ongi dokumentatua dago, jatorrizko alboko “gogorra” latineko alboko geminatuen ondorengoekin identifikatu delarik erromantzez (cf. *Zabala/Zaballa, Ollabarre/Olaberri...*) euskaraz ohizkoa den bezala -l- dugun bitartean.

26.1. *Oletabidea*:

—“otra pieza en Oletavidea... afta (“afronta”)... a camino que ban á Olleta”, Lerga, 1798 (82).

27. *San Martin* (San Martin Unx):

Izendegian *San Martin Unx* eman bazen ere erdarazko *San Martín de Unx-en* euskarazko baliokidetako, toponimia euskaldunean *San Martín* besterik ez dugu opatzen, alderdiko jendearentzat, bistan denez, *San Martin* bakarra *San Martin de Unx* izanik ez baitzen *Unx* eransteko beharrik sentitzen.

27.1. *Sanmartinbidea* (*San Martin Unxeko bidea?*):

—“Yt. otra p^a en temjo llamado Sanmartinbidea”, Amatriain, 1538 (83).

(80) Agoizko hipot., 4. lib., 366. or.

(81) PRA-Arronitz, 2. k.

(82) PRA-Oibar, 84. k.

(83) Id., 2. k-bis.

27.2. *Sanmartinmuga:*

—“...del camino del molino azia chucho comprendiendo San Martin muga”, Uxue, 1729 (84).

28. *Santakara:*

28.1. *Santakaramuru:*

Izendegian *Santakara* Uxueko *Santakaramuru* toponimoan ageri zela eman zen aditzera, baina hala ere, arrazoi sozio-politikoengatik edo, *N.t.e.e.c.* jarri zen erdarazko izenaren parean, hau egia ez bada ere, obra horretan berorretan garbi ikus daitekeen gisan. *Santakaramuru* oraindik biziak dago, eta osasun onez.

29. *Saragueta:*

Hemen Koldo Artolaren “Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)” (85) izeneko lanean biltzen den Arrietako *Sauta* (*Sautára*, *Sàutará* adlatiboa, *Sáutakó* leku-genitiboa) aldaera aipatu nahi nuke. Izendegian *Zaragueta* sartu genuen, oinarri urriz nere irudi-ko, eta hori aldatu behar genukeela uste dut, bertako euskaldunek (Arrieta, Saragueta bezala Artzibarren dago) *Sauta* ibiltzen baitzuten, ez **Zauta*, eta horrek azpian *Saragueta* dugula esan nahi du, ez *Zaragueta*. Bilakaera hau izan zitekeen: *Saragueta Sarauta Saauta Sauta*.

30. *Sarea* (Zubietako auzoa da) (86):

Izendegian *Sarecoa* ofizialaren euskarazko adierakidetako *Sarekota* hautatu zenagatik, badirudi, dokumentazio eskasa ikusita, izen honek ez duela inolako oinarririk. Auzoan bada *Sareko borda* deritzan baseria, eta hau dela medio zenbaitek *Sarekoa* ibiltzen dute auzoa izendatzeko. Guztiarekin ere, bertakoentzat auzoaren izenik arruntenak *Sarea* da, mende honetako katastro guztietan aurkitzen dugun berbera, alegia, eta gure irudiko hauxe da hobetsi behar genukeena, *Sarekota* baztertuta.

31. *Tebas:*

Izendegian izen ofizialarekin bat datorren *Tiebas* hautetsi zen herriaren euskarazko baliakidetzat, baina euskal toponimoetan bi aldiz azaltzen den *Tiebas-ez* gainera *Tebas* ere badugu, diptongaziorik gabe. Azken aldaera hau, gainera, behin baino gehiagotan agertzen da XIII. mendean, *Tiebas-en* aldamenean (87).

(84) PRA-San Martin Unx, 33. k.

(85) *FLV*, 60, 1992, 187-227. orr.

(86) Proposamen hau, eta ematen diren lekukotasunak, Andrés Iñigorenak dira.

(87) Ikus *NHI*, 186-187. orr.

T(i)bas-en etorkia zein den ez dakigu, eta ez dirudi axola handiegikoak denik darabilgun auzia argitzeko, baina adibidez euskal jatorri garbikotzat bide den *Zarikiegi-n* ere edireten ditugu, maiz aski gainera, diptongodun eta diptongorik gabeko aldaerak (ikus *Zarikiegi* sarrera), eta gure ustez hemen ere antzeko zenbaiten aitzinean egon gaitezke, hots, euskarazko izena *Tebas* litzateke, nahiz izen “ofiziala”-ren eraginez *Tiebas* ere ageri den, beste toki batzuetan bezalaxe. *Tebasbidea* eta *Tiebasbidea* Jimeno Juríok bildu ditu, Beriaingo dokumentazioan (88).

32. Urdotz (Urdànoz):

Urdotz erdarazko *Urdànoz*-en euskarazko kidetzat agertzen da dokumentazioan. Bi aldaera hauen iturburua 1243 eta 1248an azaltzen den *Urdanotz* (NHI, 161.or.) dugu. Bilakaera, berriz, hau izan bide da: *Urdanotz* > *Urdànoz* (erdaraz), *Urdanotz* > **Urdaotz* > *Urdotz* (euskaraz).

32.1. Urdozbidea, Urdozbidaburua:

— “ona pa en odiaga tenjent... con hera de anso arcaya... otra pa en el camino que ban a Urdanoz clamado ordoz (sic) bidea”, Munarritz, 1521, PRA-Jaitz, 5.k.

— “...e la (pieça) de munarriz es en la pt (part) clamada Urdoz bidaburua tenjent de la una part con pa (de) Johanjco el biejo con pa de mayzterra e con el dicho camo.”, Munarritz, 1521, PRA-Jaitz, S.k.

33. Urkidi:

Izendegian Zubietako auzo den *Aurquidi* ofizialaren euskarazko baliakidetzat *Aurkidi* eman bazen ere, badirudi, dugun dokumentazioa iku-sita, *Urkidi* egokiagoa litzatekeela. Diogun, bidenabar, azken honen etimologia askoz garbiago ageri dela. Hona hemen ditugun *Urkidi*-ren lekuoa (91); *Urquidabarrena*, *Urquidisusso*, *Uquidiyusso*, 1551 (92), *Urquidi*, 1554, 1569, 1593, 1605, 1677 (93), 1730 (94), 1807, 1808 (95), eta 1824ean (96).

(88) Ikus *TCPCG*, 109. orr.

(91) Proposamen hau eta aipatzen diren lekukotasunak Andrés Iñigo batzordekidea-renak dira.

(92) PRA-Doneztebe, 16. k.

(93) Id., 18., 15., 30., 29., eta 58. karpetak, hurrenez hurren.

(94) Iturengo udal artxibategia (IUA).

(95) PRA-Doneztebe, 165. k., 61. eta 14. zkiak.

(96) Hipotekak, 126. karpetak.

Aurkidi lehen aldiz 1663an azaltzen da (*Aurquidi berecoa*) (97), *Urkidi* baino mende bat pasatua beranduago; gero 1687, 1698 (98), eta 1753an (99) edireten dugu berriz huts-hutsik (*Aurquidi*), eta 1796an hutsik nahiz *garaia* posposizioak lagunduta (100). Aurrerago mende honetako katastroetan ageri da berriz, 1927tik aitzina, eta gaurregun ere horrela (*Aurkidi*) erran ohi zaio.

34. **Zarikegi** (Zarikiegi, Ziur zendea):

Izendegian *Zarikiegi* eman genuen izen ofiziala den *Zariquiegui*-ren euskarazko adierakidetzat, nahiz lan horretan berorretan *Zarikai* aldaera herrikoia ere biltzen zen. Dokumentazioan ikus daitekeen moduan, *Zarikegi* zein *Zarikiegi* azaltzen da XII. mendetik XVII.-era, eta toponimia euskaldunean, Jimeno Jurioren TCPCC, 148-149. orr., lanean ikus daitekeenez, arruntak dira *Zarikegi* nahiz *Zarikiegi* osagaitako duten leku-izenak: *Zariquiegui ardancetara bideam*, *Çariqueguico ardancea*, *Zariquiegui bide yturquetan*, *Zariquiegui perdona bidea*, *Çariquegui çelaya*, *Zariquiegui-bidea*, *Çariqueguibidea*, *Zariquiegui bidea*, *Zariquiegui bide gaña*, *Zariquiegui bide senda*, *Zariquiegui bidea*, *San Salbatore parean*, *Zariquiegui bide zarra*, *Zariquiegui bide zaba*, *Zariquiegui erreca*.

Gure irudiz, egungo *Zarikai* herrikoia (Urritzolako Bautista Etxarrenek euskaraz ibiltzen du, izendegian ikusten ahal den gisan) 1837an dokumentatzen den *Zariquiegui bide zarra* bezalako toponimoetan dugun *Zarikei*-tik atera da, -ei > -ai irekitzea aski berria delarik (XIX. mendeko kontua, seguruenera), itxura guztien arabera. Bokal arteko belare igurzkariaren galtzea arrunta da gaurregun Nafarroako hainbat tokitako euskaraz, eta arrunta da, orobat, ditugun testu zaharretako anitzetan, eta -ei > -ai irekitzea baino zaharragoa dela dirudi. 1683ko *Çarique faceria goitiian* eta *Zarique bide zarra atracen dena Zarikei*-tik, eta ez *Zarikegi* edo *Zariquiegi*-tik, abiatuta azaldu beharko ditugu.

Hortaz, eta laburtuz, diogun gure irudiz *Zarikegi* izan dela herriaren izen euskalduna, *Zarikiegi* ere, izen ofizialaren eraginez seguru aski, agertu arren, eta *Zarikai* aldaera herrikoi oraindik bizi eta euskaraz era-bilia hortiek atera dela (*Zarikegi*-tik), *Zarikei* bitarteko zela.

35. **Zolia** (Zolina):

Izendegian *Zolina* ofizialaren euskarazko kidetako *Zolina* bera eman zen, bestelako lekukotasunik ez genuelako. Orain, ordea, badakigu euskaraz *Zolia* erran ohi zela.

(97) PRA-Doneztebe, 56. k.

(98) Id., 61. eta 84. karpetak.

(99) IUA.

(100) PRA-Doneztebe, 160. k., 102. zkia.

35.1. *Zoliabidea:*

—“una pieza... en la endrecera de Zoliabidea asta al camino que dirige a Zolina”, Badoztain, 1852 (101).

36. *Zudairi:*

Izen honen lekuko bakar dudazkoa dugu. Izan ere, hemen, beste hainbatetan bezala, ez dago *-i* ala *-e* den bereizterik, nahiz hauxe zen guri gehien interesatzen zitzaguna.

36.1. *Zudairidermaua:*

“una pieza en Zudairidermaua (Zudairedermaua?) y en errotarabidea”, S. Martin, 1710 (102).

(101) Agoizko hipote., 4. lib., 582. or.

(102) PRA-Artabia, 20. k. Burundan *Dermaua* soro-multzoa da, hau da lantzen den lurra, *Basoa-ri* kontrajartzen zaiona. Dena dela, bailara hotetan *dermaua-rekin* batera batzueta *dermio* ere badugu gaurregun, nahiz dokumentazioan *dermau* azaltzen den: *Dermaua* Altsasun, *Azpiko dermioa* (*Azpico dermauba* gehienbat agirietan), *Dermiotxiki* (*Dermauchipia* 1714ean) Olatzagutian, baina *Dermiotxikia*, *Dermiotxikibazterra...* eta beste Urdiainen. Iku *Nafarroako toponimia eta mapagintza* (NTEM), IX. eta X. aleak, Nafarroako Gobernua, Iruña, 1992, 40, 69-70, 72 eta 90-91. orr.

Ameskoa eta Lanako dokumentazioan beti *dermau* dugu, antza denez ondoko herriarekin muga egiten duen alderdia izendatzeko. Batzueta, halaz ere, mintzagai dugun hitz honen adiera Burundan duena bera izan liteke: cf. Ekalako *Dermauaren erdia* eta *Dermaubaren gohena* izenak (PRA-Artabia, 22. k., 1722, eta id., 3. k., 1685). Honen jatorria zuberera zaharrean edireten dugun *termañü-rena* (*FHV*, 303. or.) bera izan liteke, **termañu*, alegia, Lana eta Ameskoan desbustidura gertatu delarik lehenik, eta sudurkariaren galera gero (cf. erdarazko *perraña*, *perrana/euskarako perra*, *perrea*, *ferra* beste toki batzueta, Ergoienean kasu), hasierako herskari ahoskabearen ahostuntzeaz gainera.

BAZTANGO ERRANAIRUAK

Mariano Izeta

Baztango erranairuen bilduma hau, baztandarren artean entzundako elexaharrekin osatua daukat. Niri familiaren artean ere aunitz hartuak ditut, ama, osaba eta gainerakoei aditutako erranairuekin, holaxe osatua daukat. Esaera zahar hauek bizirik irauten dute eta maiz erabiltzen dira baztandarren artean, ez daude atzenduak.

Azkue eta Intzako Aita Damaso jaunen esaera zaharren bilduman ere badira nik bildutako esaera baztandarrak ere eta bai nik egundaiño aditu ez ditudanak. Nire bilduma osatua daukat baztandarrei entzun dizkiedan erranairuekin bakarrik, jendeak erabiltzen duen solasarekin, ahoskatzen duen bezala batere zuzendu eta apaindu gabe, esaerak eskatzen duen bezala.

Zenbait ohitura eta kontakizun bilduak dauzkat ere, lehenagoko xaharrei entzunik eta horietako aunitz ere gure haurtzaroko denboreta-koak.

Gehiago ere badirela?, bai hain segur, aunitz galduak, baina bai aunitz ere nonbaitere zokoratuak eta nire belarrietara etorri ez direnak.

1. ANTUXU TTALLA BETI BILDOTS.
2. AZITIK OZIE KARMENGO GLORIE.
3. ATS GORRI, BIER EGURALDI.
4. AUZAKO KASKOAN LANO, BIER DENBORA BANO.
5. AUZAKO MENDIEN LANO, BEROTZEKO DENBORA BANO.
6. AUZAKO KASKOAN BERTZA, BIER DENBORA BELTZA.
7. YANAKO ZOKOAN LANO, BIER DENBORA SANO.
8. BAZKO GOIZ BALITZ MARTXOAN EZPALITZ.
9. BAZKO GOIZ BALITZ MARTXOZ EZPALITZ (Gartzain).
10. BURUIK EZTUENAK ZANGOAK IBILI BEHAR.
11. BURUIK EZTUENAK ZAPEL BEHARRIK EZ.
12. LAUNBETA ATSO META (Lekaroz).
13. GOIZ NEGU, BI NEGU.

14. LASTER LAN, KAKA LAN.
15. KANDELERO BERO, NEGUE HELDU DE GERO. KANDELERO HOTZ, NE-GUE GAN DA MOTZ.
16. MARTXO MARTXANTA LARRU TRATANTA.
17. ELUR MELUR EZ DIET HIRE BELDUR, BADIET ETXEAN ARTOA TA EGUR.
18. TXAMAR, EZPANEN KAZKANABAR (Ultzama).
19. SAN MARKOS ASTEA, ARTOA ERITEKO ASTEA.
20. SAN MARKOS ASTEA, ARTOA ERITEKO ASTEA, AITZINEKOA BAÑO ON-DOKOA HOBEA.
21. SAN MARK, AZIE BALIN BAUK EMAK.
22. URRUNEKO ELTSEA URREZ, BEREHARTARA GAN TA LURREZ.
23. URRUNEKO BERRIEK URREZ, ONDORA GAN TA LURREZ.
24. SAN JIL, IRETZEAK BAKI TRANKIL.
25. SAN JIL, ARRAPALA BIL.
26. YINKOAK IN TA MILIKETZEKOA.
27. ZER IKUSI, HURA IKASI.
28. GIZON TTALLAK, ESPANTU HAUNDIE.
29. APIRILE BIRIBILE, ZERRIE URDENDEIAN HOTZAK HILE.
30. APIRILE BIRIBILE, ZERRIE URDENDEIAN GOSEAK HILE, ZERRIZAÑA ZO-KOAN ARTO PUSKE KOLKOAN.
31. APIRILE BIRIBILLE, ZERRIE URDENDEIAN HILLE (Aniz) Basaburua.
32. APIRILE BIRIBILE, ZERRIE URDENDEIAN HILE (Arizkun. Bartzangoiza).
33. ELIZE HURBIL, ALDAREA URRUN.
34. SAN ANDRES, GOIZLEAN AZAROA TA ATSEAN EZ.
35. ABENDUKO EGUNE, ARGITU ORDUKO ILUNE.
36. LURRAK MATEN DUENA, LURRAK HARTU.
37. UR GELDIEK ITEN OMEN DU SALTOIK HAUNDIENA.
38. KUKUEK ERRAMU EGUNEAN KUKU, SAN PEDRO EGUNEAN MUKU.
39. GERO GERO, HOTZA EZTENA BERO, ZURE PURDIE ERRE ETA NEREA BEGO.
40. LAUNBETERO ATRATZEN OMEN DA IRUZKIE AMABIRJIÑEIN LIXUE IDORTZEKO (Ziga).
41. ESKU HOTZAK AMODIO BERO.
42. NORAT HAIZE, HARAT AISE.
43. GARIZIME BERANT, NEGUE BERANT.
44. HALAKO EZTAIETAN, HALAKO ZOPAK.
45. AHAL DUGUN BEZALA, EZ NAHI DUGUN BEZALA.
46. AXERIEK PUZTENA EZIN ALTXA (gorde).
47. BALAKI GAZTEAK... BALEZA ZAHARRAK...
48. BARRASTAN INE, BARRASTAN GANA.
49. BAZTANDARRA TUKU-TUKU GASNA ERRE YALE, SURE GAN TA BATRE GABE.

50. BAZTANDARRA TUKU-TUKU GASNA YALE, AUTSERA GAN TA BATRE GABE (Aniz).
51. BEGIE NORAÑO, GOGOA HARAÑO.
52. HERRIA TTIPIAGO TA NASMENTA HAUNDIAGO.
53. EZ DEN LEKUTIK EZIN MAN.
54. GOGOZKO TOKIEN MALDIK EZ.
55. IKAZKINEIKIN BELTZ, ERROTAZAÑAIKIN XURI.
56. NOLAKO SAKIA HALAKO ERREFERA.
57. NORBAITEK BEHAR GALDU BERTZIAK IRABAZTEKO.
58. XILO BERRIEK EZ DU ZARRA TAPATZEN.
59. UKONDIA HURBIL TA EZIN MUSUIK MAN.
60. UR HAUNDIETAN ARRAIN HAUNDIEK.
61. URTIAN BEHIN BAZKO.
62. ZAHAR HITZ, XUHUR HITZ.
63. EZ IN MAKURRIK, EZ DUZU BELDURRIK.
64. YORRA BAT ARBI BAT, BI YORRA BI ARBI.
65. DOMINGO ARROLTZE GORRINGO.
66. ERRATZU MILE PETATZU.
67. GARTZAIN ZAPELA BETE GAZTAIN.
68. ALIMO-ALIMO PARETA ZARRAIN ARRIMO.
69. ARBOL HAUNDIEK ITZEL HAUNDIE.
70. EZTIO PUTZEK BI SOS ITEN.
71. EZTIK HOLAKO PUTZIK SALTZEN.
72. BEGIE ASE TA TRIPE GOSE.
73. MARTXO LORE MARTXA LORE, APIRIL LORE URRE LORE, MAIATZA LORE GABE; BAÑO HOBE (Etxalar).
74. MARTXO LORE DEUSEZ LORE, APIRIL LORE BATRE BAÑO HOBE; MAIATZ LORE URRE LORE.
75. MARTXO LORE BASA LORE, APIRIL LORE BATRE BAÑO HOBE, MAIATZ LORE PARE GABE.
76. MOZORRO ZINKO MUKITZU, SOBERA-SOBERA BADAKIZU.
77. YAKU FELIPE, MAIATZA SARRAKIO.
78. SAN GREGORIO MARTXOAN HAMABIAN; KAZKARABARRA AGOAN (Ultzama).
79. BI MENDIEN ARTEAN BEI BAT ORROKA.
80. ZER PAREA, KARAKOLA TA BAREA.
81. MAIATZA FARDO, EREAROA KLARO, ORDUEN BILDUKO DA OGIE TA ARTOA FRANKO.
82. MAIATZA FARDO, EREAROA SANO.
83. GOIZ GORRI, HAIZE EDO URI.
84. IRUZKI XURI... GAUR ERASAIN DU.
85. ELE GUTI ETA HEK ONAK.

86. HEMEN ESPANTU FRANKO, BAÑO FUNDAMENTU GUTI.
87. SOÑUEK ERAKUTSIKO DU NOLA DANTZA.
88. SOÑUEK ERAKUSTEN DU NOLA DANTZATU.
89. ESNE GAÑETAN AZIE.
90. ERAUNTSIE PASTU TA ONDOAN, GUARDASOLA HEDATU.
91. ZUREAK EDER, BERTZENAK UBER.
92. HIK NAHI DUK BERTZEN PUZTENAKIN ULIEK KENDU.
93. BERTZEN PUZTENAKIN ULIEK KENDU NAHITUENAK, BETI ULIEKIN.
94. AMABIRJINE YAUTSI OMEN ZEN ASTO GAÑETIK BANABAR PIKOR BATENGATIK.
95. BERRIKETAN PINTTO.
96. HIL ARTIO BIZI, ARARTIO EZ IZI.
97. BAKOTXAK BERE SAINDUARI OTOITZ.
98. EDANAGO ETA NAHIAGO.
99. ARPATU ANTZA EDO AZANTZA.
100. ORTZILEREKO EGUNE NOLA ARGITU HALA ILUNE.
101. ATSA PURDITIK ATRA HURRENA.
102. SASITIK LEKURE.
103. ITXUREN KONTRAKOA.
104. ESPAÑOLA YAN TA HOTZ. FRANSA YAN TA BERO, NAHIZ TA DEUS EZ-TEN GERO.
105. KAFIA ONA DA, BAZKARI ONAREN DIRIJITZEKO TA TXARRAREN ERRE-MEDIATZEKO.
106. BAKEA TA BI SOS.
107. ZORRI PIZTUE.
108. GOIZ OLLANDA.
109. APEZAK AZKEN HITZA BERETAKO.
110. GALTZAGORRI PIPITA MOTZ, URIA DENIAN HAIZIA HOTZ.
111. OKOLINGO LEPOKO AIZIAREN HOTZA, HANTXEN IKUSI NUEN NIK FRAILE BURU-MOTZA.
112. HARTAN HUNTEM GORRAMENDIKO MAKILETAKO... HAUXEN NERETAKO.
113. SEGURUAK EZTU PAREIK.
114. DESKUIDOA GU BAÑO LENAGO SORTU ZEN.
115. DESKUIDOA GU BAÑO ZAHARRAGOA DA (Arizkun).
116. ULIEN KEÑUE ASKI DU.
117. HOBEIK ERO BAÑO, BERO.
118. ITXUE BAÑO, HOBE OKERRA (begi bakarra).
119. “IDURIE” EZTA IKETZA.
120. ETXEKO OGIE BAÑO, KANPOKO ERREXA HOBEA.
121. ERREGETAKO OLLARRAIN PAUSUE LUZETZEN DU EGUNEK.

122. ERREGETAKO OLLARRAIN URRETS BAT LUZETZEN DU EGUNEK.
123. AUKERA MAUKERA, AZKENEAN OKERRA (Irurita).
124. ELURRE XURIE DELAIK, BELTZA DA.
125. MIN HARTZEN EZTUENAK, EZ DU “ATXIK” ITEN.
126. MIN HARTZEN DUENAK “ATX” ITEIK.
127. ELURREK ATEKAK ESTENTIK.
128. MANTSO, BAÑO SEGURO.
129. ELUR MELUR, EZTIEGU HIRE BELDUR, BADIEGU ETXEAN ARTO TA EGUR (Arizkun).
130. ELURRE MELURRE, EZ DIET HIRE BELDURRE, BADIET ETXEAN ARTOA TA EGURRE (Elizondo).
131. GAUR MOZKOR, BIER OPOR (Ultzama).
132. IÑAUTEAK AUZITAN BAZKOAK ATEAN.
133. SORTZEAK HERIOTZA ZOR.
134. ADINEK BEREÀ ZOR.
135. ZORRA BAÑO, HARTZEA HOBE.
136. SEGURUAK EZTU BERE PAREIK.
137. UMEA AK HAZI, NEKEAK BIZI.
138. ZERBAIT DEN TOKIEN, BEGIEK ARGİ.
139. DEUS EZTEN TOKIEN, ESKUEK GARBI.
140. SORTZEAK HILTZEA ZOR.
141. AITA HAUNDIA, AMA LATXA, UMEA BELTXA (Asmakizuna).
142. YAUNTXIKI TXAPEL HAUNDI (Asmakizuna).
143. KUPEL BATEN BARNEAN BI ARDO JENERO (Asmakizuna).
144. ZAHARRAK ESKAPOIK EZ, TA GAZTEAK SEGURANTZIK EZ.
145. HI EZ YAIZ, EZ HURE TA EZ BERTZE HURE.
146. ABENDUE BURDINE; ILBELTZA ALTZAIRUE.
147. MARTXOAK ATRAIE, APIRILEK YAN.
148. BERTZE LANIK EZTUENAK, KATUE UREAN BUSTI.
149. ZERRIEK PUZTENA BIURRIE.
150. SEGURKI HALARE.
151. OSASUNE ZER DEN EZTAKIGU, GALDUE KUSI ARTIO.
152. ZAURIEN GAÑEAN PIKUA.
153. NEKAZARIE BETI IKESTUN.
154. GAÑEK LAUDE, BERAK HAUTE. GAÑEK LAUDE BEHERAK HAUTE.
155. TRIPEK MAN GUZIEK HARTZEN TIK.
156. BAI, KOMENI ASTOAI MANTELLINE.
157. BAI, TOKATZEN ZAIO ASTOAI TXOKOLATIA.
158. GIZONAK NON DU INDARRA? ERTZETAN, IÑON EZ BERTZETAN.
159. ONGI HAZIE TA GAIZKI HEZIE.

160. BI ETXETAKO ZAKURRE, GOSEAK HIL OMEN ZEN.
161. TUTULUNDRES, BIER SAN ANDRES.
162. AMERIKANO POBREA, PURDIE URBEAN BUSTIE.
163. ADINEK EZ DU BARKATZEN.
164. NON ZURE GOGOA, HAN ZURE ZANGOA.
165. NON DA NERE GOGOA, HAN DA NERE ZANGOA.
166. SANO DENAK, EZTU KUTSUOK UZTEN.
167. ALTSU TA MALTSU, BIEK IGUALTSU.
168. ALTSU TA MALTSU, DENAK IGUALTSU.
169. URTE AGONTOSUA, BAÑO DESGRAZIATUA (Sunbillia).
170. IKUSI TA URRUXE.
171. IKUSI TA SIÑETS.
172. AZKEN HILEK PAGATUKOIK DENA.
173. ESPAÑAKO MANDOIK HAUNDIENA, ZARDIN ZAR BATEK BOTA 'OMEN ZUEN.
174. UREK EZTU ONBOR ONIK GOITI KARTZEN.
175. ERRANA DEN BEZALA: UREK EZ DUELA ONBOR ONIK KARTZEN AZPITIK GOITI (Lekaroz).
176. HOTZA BAZKATZEN.
177. ABENDUKO GAU EDERRAREKIN, OSTATUKO NESKA GALANTAREKIN ETA BIDE BAZTERREKO ARBOLAREKIN, EZ DAITEKE IÑOIZ FIDETU (Irurita).
178. ANBATEKO PURDIKO MINE HARTU DUGU.
179. HARIEK ORRATZA BAÑO LUZEAGO BEHAR BAITU.
180. HIK ASTUAK ASTALKETAN BAÑO MOLDE GUTIAGO DUK.
181. DAKIENAK BADAKI PUZKERRA KERRENEAN SARTZEN.
182. HEMEN NABILA GOITI TA BEITI, BEINERE EZ HIL BAINAN ARRIKKUAN BETI (Urdazubi).
183. SAPA GAITZE DAGO.
184. HORREK ERE... PURDIEN ZILOA.
185. HORREK ERE BAIK PURDIEN ZILOA (Arizkun).
186. GOGOZKO TOKIEN, MALDIK EZ.
187. ZARTASUNE BALIOSA DA GAZTETASUNEKO FALTEN ERREMEDIATZEKO.
188. ONGI ITEKO EZTA SEKULAN BERANTEGI.
189. ALDERDI EDERRA ETXEA GORATZEKO!
190. AROTZAIN ETXEEAN KERRENA ZUREZ.
191. BEGIKO ZIKINE BAÑO GEHIAGO EZ DUTE IKUSI NAHI GIZON HOI.
192. MAIPETIK XUXTU.
193. ZARRAK DAUKE BETI ZER ERRAN, GAZTEAK ZER IKASI.
194. GOIZ GORRI, HAIZE EDO URI.
195. OGIEK ERRAN ZUEN: TTIPIE BANAIZ EDO HAUNDIE BANAIZ MAIA-TZEAN BURUTUKO NAIZ.

196. HAUTS URTE ARTO URTE.
197. AGOA BETE UR HOTZEKIN.
198. PURDIE LASTOZ.
199. ERBIE PASATU TA LAZOA PATU.
200. EZ NAIZ NI ERE ATZO GOIZEKO BILDOTSA.
201. HIL TA ONDOAN ZOPAK AGORA.
202. BEGO BETI ZARRA NAUSI.
203. URIE AI ZUEN YAUTSI AHALA.
204. ASTOA SALDU TA MANDOA EROSI.
205. ENANZU HAUNDIKO GIZONA.
206. A ZER GAZTAIN-MUSTRIKE DAUKEZUN.
207. IRUZKIE GOITI DAIELAIK, ARDO GUTI EDAN (Lekaroz).
208. HI BAYAIZ, NI ERE BAI (Lekaroz).
209. NORBAITEK ERRAN DU TORRI BEHAR DUELA.
210. UMEAК HAZI ETA NEKEAK BIZI.
211. BATEN GAITZE BERTZEAIN ON; DINDILI DON! (Arizkun).
212. NOLAKO PIPE, HALAKO TOXA (Arizkun).
213. IXKUN KAXKUN, BAS-ESKUALDUN (Arizkun).
214. NOR NERE OFIZIOKO, HURE NERE ETSAI (Arizkun).
- 215.ERRAUTSE PAUSETEKO DINE (Euri guti egiten duenean).
216. HAU GORAPENEAN SORTUE (Pertsona luzeari).
217. ANIZ, HAMEKA ETXE, HAMEKA LABE TA HOGEITEBI ZETABE, BAT BER-TZEZ BEHARTU GABE.
218. ELE ZURITZERA TORRI GARA.
219. ETXEKO SUE ETXEKO HAUTSEZ ESTALI.
220. GOSEAK EZTU PENTSAMENTU ONIK.
221. GORAPENEAN, ORTZILEREA BERAPEN.
222. MAIATZA ARTO YALE GARRATZA.
223. ARBOL APALEAN AISE ITEN DA EGURRE.
224. ARTOPILE IN BERRIEN GURI.
225. AURPEIEK GALDU TUZTE.
226. NOLAKO MAISTERRA, HALAKO BAZTERRA.
227. SAKEL BATEAN URIE TA BERTZEAN IRUZKIE.
228. AMEN, ZU HOR TA NI HEMEN.
229. BROZEL BAT BETE SOLAS ETA TITERE BATEN FUNDAMENTUIK EZ (Le-karoz).
230. EZ GOSE BAI GOSE, BI GOSE (Arizkun).
231. EZ GOSE BAI GOSE, ZAZPI TALO (Arizkun).
232. ERROTAN EGON ETA BIDEAN LASTER.
233. ARRAS GOSE, TALO T'ERDI (Arizkun).

234. ERROTAN EGON TA BIDEAN TROSTA (Ultzama).
235. BEREAK BERE ETA BERTZENAK ERDIZ (Arizkun).
236. YATEN DUEN SAINDUEKIN EZ FIETU (Arizkun).
237. AGO ETXIEN EZTA ULIK SARTZEN.
238. MUGI ADI! ASTO-ARRAK INEN DIK UMEA HI TORRI BAÑO LENAGO (Arizkun).
239. EZTIK HORREK MINGAÑEAN ILEIK.
240. DELAIK BON ETA EZTELAIK EGON.
241. MARTXOAN KATUAK PIZILIK EZ ETA APIRILEAN ATERIK EZ (Arraioz).
242. BAI OTE? LARREAN OTE.
243. MARTXOAN LAÑO NORAÑO, APIRILEAN ELURRA HARAÑO (Arraioz).
244. BA! EZ DU MINGAÑAN MAKURRIK.
245. GAUR MUKU, EZ URIK TA EZ BEROIK.
246. ERREKISTE HAUNDIKO NESKATIKOA.
247. HEMEN NABILE BESTONDIA EZIN PORROKATUZ.
248. HAMAR GIZON ONETATIK, BEDRATZI AMAINGATIK.
249. HARTZEN DUENA ZORDUN DA.
250. AUNITZEK EZ LAN TA EZ YAN.
251. BERENAK BERE, BAI BERTZENAK ERE.
252. BERTZEEN ESKUTIK OGIE XUR.
253. IN ZAZU LANA TA IZEIN DUZU YANA.
254. GIZONAK MANATZEKO OHOREA, EMATZEAK KIDERRA.
255. URTEAK AGOA LUZE DU.
256. OSASUNE TA BAKIA, HOIEK EDEKIKO ZERUKO ATEA.
257. ELKARREKIN BETI GUDUAN DABILTZE.
258. SANJUANETAKO ARTOAK BEHAR DU BELE BAT TAPATU.
259. GIZON MOXKORRA ARGIA ALDERA, PIPA GALDUTA TOXA ERE BAI, OÑI-KEN TRAILA-TRAILARAI (Gartzain).
260. AKORT ETA APART (Arizkun).
261. AMAIUR; HAURREN XATARRAK EZIN BIUR (Arizkun).
262. AZPILKUETA; YO TA BOTA (Arizkun).
263. AKITU TA BAKE.
264. IRURITARRA TIRRI-TARRA, TORI PUZKERRA TA MAN SAGARRA.
265. ALMANDOZ KIZKOZ; BERROETARRAK GALTZA MOTZ; ANIZTARRAK BURU MOTZ; ZIGARRAK MUTURRE ZORROTZ.
266. HARIE LUZEAGO BEHAR DA ORRATZA BAÑO; AUNITZ ALDIZ.
267. LENAGOKO LEPOTIK BURUE.
268. NEGUA ONA IZETEKO SANMARTINETAKO HIRU ALDIZ ELURRE IN BEHAR DUELA.
269. ZORRI ILE PIKTUE.

270. APIRILEAN ZENBAT IZOTZ, MAIATZEAN BERTZE HAINBERTZE ELUR ERAUNTSI.
271. MARTXO LORE ERGEL LORE, APIRIL LORE BATRE EZ BAÑO HOBE, MAIATZ LORE URRE LORE (Ziga).
272. MARTXO LORE KAKA LORE, APIRIL LORE URRE LORE, MAIATZ LORE BATRE EZ BAÑO HOBE (Erratzu).
273. HALAKO EZTAIEK, HALAKO ZOPAK (Amaiur).
274. AITE KATUE, SEME MIXINE (Amaiur).
275. AMA PIKE, SEMEA ERGELA (Amaiur).
276. ITZULAIK EA BADUKEN PUZTENIK (Amaiur).
277. OTSAIL LORE, BATRE LORE. MARTXO LORE, BATRE EZ BAÑO HOBE. APIRIL LORE, URRE LORE. MAIATZ LORE, PARE GABE (Gartzain).
278. GIZONA GIZON SASKIPETIK ERE (Arizkun).
279. EZ IZEN ETA BAI USTE (Gartzain).
280. HAUNDI NAI ETA BETI GALTZA ZAR (Lekaroz).
281. ZALLA DA SOÑU TA DANTZA (Almandoz).
282. EZ DAITEKE BEROTU TA IRIKIN (Almandoz).
283. YOSTATUZ LANA GUTI (Almandoz).
284. GIZON TTIPIEK PURDIE APAL.
285. GIZON TTALLAK PURDIE APAL.
286. NAIAGO DUT HOI SINETSI BAÑO, BOKADU ON BAT IRETSI.
287. ZOPAK AGORA.
288. GANTZAK EZ DIEKAK TRABIK INEN (Arizkun).
289. ARTOAK ZULUBITEN (Aniz).
290. INTZ MILIKETZEKO UTZIE (Elizondo).
291. GIZON LAÑOTSUE (Aniz).
292. PURDI KILIKE (Arizkun).
293. PURDI DANTZARI (Arizkun).
294. UR URTE ELUR URTE (Arraioz).
295. HOLAKO MAZTEKIE HALAKO ETXEA.
296. BETI BADIRE YAUNAREN YAUNAK.
297. ALTZAK EZTU BIHOTZIK, EZ GAZTANBERAK HEZURRIK.
298. BETI AGERTZEN DIRE YAUNEN YAUNEK (Arizkun).
299. MARTIN TIN TIN, ERROTAKO SORGIN; TIPULE TA GATZA MARTIN PURDI LATZA (Arizkun).
300. BETIKOA YAINKOA.
301. SAN JIL, IRETZE BAKITZEA ZIL.
302. FRANTXISCO ASTI GUTIXKO, NESKATXETAKO MOLDE GUTIXKO.
304. EZTA OBISPOIK APEZ IN GABEKOIK.
305. ARRAÑAK GAN TA SAREAK HEDA.
306. BAREA EXURRIK ETA ODOLIK GABEA.

307. OKILE KANTARI, URIE FITE.
308. AITZINETIK EDERKI TA ONDOTIK ATSIKI.
309. ZER DA BERRI? YAZ HIL ZENA EZTELA AGERI.
310. IDUZKI XURI, FITE URI.
311. ABENDUAREN ERDIE GAUA TA BERTZE ERDIE BESTA.
312. EZKUR URTE XAGU URTE.
313. HI ANTUXU INTZENEKO, NI ERE BILDOTS BEDERE BANINDUNEN.
314. GARTZAIN, HOR BADAGO HAINBERTZE ARTZAIN.
315. ALMANDOZ, GALTZA MOTZ.
316. BERROETA, HAN BADIRE HAINBERTZE IRETZE META.
317. ZIAUR, BESAPEA BETE HAUR.
318. SANTIOAK ZEREKIN, AMABIRJINEK HAREKIN.
319. DIRUE LAGUN ONA, YABE TXARRA.
320. BEGO BAKOTXA BERE GUSTOAREKIN, KAKAMORROAK KAKAN DIN.
321. HOBE DA BEHIN GORRI, EZENEZ BETI HORI.
322. BAIK BERE AITAIN ITIA, AGOTIK BOTAIA.
323. GOIZ GORRI ATSEKO HAIZEA EDO URI (Aniz).
324. APIRILLE BIRIBILLE ZERRIE URDANDEIAN GOSEAK HILLE; EZ, EZTAGO HILLE PUZTENA BADABILLE (Aniz).
325. NORBAITEK GALDU BEHAR BERTZEAK IRABAZTEKO.
326. MAIATZA FARDO, EREAROA CLARO, URTE HORTAN ARTO TA OGI FRANKO (Arizkun).
327. NEGUE PAUSEKO, UDE LANEKO (Erratzu).

BERRIAK

EUSKALTZAINDIA ETA BILBAO BIZKAIA KUTXAREN LITERATURA-SARIAK

Bilbo, 1993-V-26

Juan Mari Lekuona

Iaz, 1992an eginiko literatura-sarien deialdian, idazlan hauek izan ziren irabazole: “Txomin Agirre Saria” 1992, Luis Mari Mujika Urdangarin, *Loitzu herrian uda-partearen* deritzan idazlanarekin; “Toribio Altzaga Saria” 1992, irabazole Junes Casenave-Harigile, *Agota* deritzan idazlanarekin; “Felipe Arrese y Beitia Saria” 1992, irabazole Patxi Ezkiaga Lasa, *Komediaren Jainkoa* deritzan idazlanarekin; “Mikel Zarate Saria” 1992, irabazole Joxe Manuel Odriozola, *Soziolinguistikaren atarian* deritzan idazlanarekin.

Lau hauetatik hiru aurkezten ditugu hemen: Casenaverena, Ezkiagarena eta Odriozolarena. Baino ez dugu hemen plazaratzen Mujikaren lana, Luis Marik nahi izan duelako bere aldetik eta bere gogara argitara ematea bere lehenengo eleberria, antolatzaleen baimenarekin.

Alde batera utziz sari hauek duten historia laburra, gauzak egungo irizpidez ikusita, zera da nabari: askorentzat erabakigarri gertatzen dela horrelako sari bat jasotzea, idazlearen aurrerapausu bat markatze alde.

Joan den urtean, 1991an, saritutakoenean Xabier Lete aurkitzen zen. Dozena bat urte bazen poema libururik argitaratu ez zuela oiarzuar honek. Ez hori bakarrik: erorialdi sakona jasana zuen bere gorputzeko osasunean. Eta sarion aitzakian, aproba egin nahi izan zuen, ea epai-mahaiaik nola ikusten zuen beraren gaisoaldi ondorengo poemagintza. Sariketaren bulkoa ez zen gelditu, hemen saritutako poemategian bakarrik. Bigarren poesi libur bat ere ekarri zuen, *Hitz ikurrak* poemategia, ikuspegiz eta hizkuntzaz maila bikainekoa.

Galbahe bat da literatura sarketa, idazlanarekiko aitorpen bat, egiarentzat bulko bat, eragin on bat. Eta dinamika honen beharraz oharturik, Euskaltzaindiak, bere ohizko zereginetan, pozik hartzen du bere gain horrelako lanik, euskara bizia eta eguneratua sortzen dutenen sustapenerako.

Aurten sarituak izan direnen artean egon daiteke, noski, horrelako eragin baten beharrik, lehiaketa honetan esku-hartzeko. Egia esan, laurok badute lehendik beren izena euskal letretan. Bai Casenavek, bai Ezkiagak, bai Odriozolak, bai Mujikak, ez dute aurkezpen beharrik, ez idazteko dinamikaren beharrik, ez leku bat bilatu beharrik euskal idazleen sarobe borobilean. Laurotan badira *curriculum*-aren aldetik, espedienterik jantzienetakoa aurkezten dutenak gaurregungo euskal idazleen esparruan.

Hala ere, ez geundeke oso bidez kanpo, pentsatuko bagenu, sari tuok urrats berri bat eman asmoz aurkeztuko zirela sarketa honetara. Izan ere, idazleari ezinbestekoa zaio urrats berriagotan sartzea, aldakorra den garaiko taupadarekin bat etortzea, hizkuntzaren kontzertuan aldiandaldiko ahots egokia edukitzea, ahots propioa. Bizia aldatzen doan eran, aldatzen ere doa literatura. Eta nahitaezkoa da jakitea, ea baliagarri den norberaren literaturgintza garaiko sinaleei begiratuta. Guzti honen berri emateko, kritikarekin batera, sarketa hauek izan ohi dira idazlanarekiko iritzia sendotzen dutenak.

Euskaltzaindia eta Bilbao Bizkaia Kutxak antolatzen dituzten literatura-sariok badute mailarik eta osperik aski, lehendik izena duten ofiziko idazleei ezagutza, aitorpena eta bulkoa eskuratzeko. Irabazleen zerrendak duen ditzira historikoa da erakusgarririk onena leihaketon maila ona adierazteko. Gero, lanen argitaratzea ere hor legoke, bestela argitaratuko ez liratekeen zenbait literatur genero plazaratzeko modua eskaintzen duelako sarketak. Eta alderdi hau ere oso kontuan hartzekoa da sari honek egiten dituen zerbitzuen artean, zenbait genero eta hainbat lan, modaren erakartasun eskasiaz, karpeten barruan zokoratzeko arriskuan aurkitzen direnean. Bestalde, luzatzen den eskupekoak ere aipagarri da, idazlanaren nekeak sari bat izan dezan, badirenez generoak liburutzetik etekin urria dutenak, baina literaturaren garapenerako beharrezkoak direnak. Eta ez da harritzeko, ahalegin luzea eta zaila eskatzen duten literatur motak horrelako eskupeko baten atzetik etortzea, ordain-sari bila.

Aurten sarituen artean, behar bada Luis Mari Mujikaren idazlana izan daiteke, orain arte idatzi dituen liburu ugariei bagiratuta, berikuntzarik ausartena dakarrena, beste hirurek ohizko zaizkien alorrak landu dituztenez. Orain arte poeta eta saialari agertu zaiguna, eta askotan sariztatua gainera, batez ere poesi alorrean, hara non datorkigun eleberri batekin. Bere lehenengo aproba du narratibako barruti honetan, nobelagintzan. Eta esan dezakegu Luis Marrentzat aurkezpen bat bezala dela sari hau jaso izana, epaimahaiak maila on bat aitortzen diolako nobela horri, eta sarketak zabalkunde bat eman diolako erakutsi duen gaitasun

berriari eta “Txomin Agirre Saraiak” ohore bat ere ematen diolako eta izen bat egileari.

Junes Casenave-Harigile, bere *Santa Grazi* (1976), *Ibañeta* (1978), *Zumalakarregi* (1989), eta gainerako lanekin, eta pastoralez argitaratu dituen beste lanei esker, aintzindarietako bat dugu herri-teatro honen berrikuntzan. “Toribio Altzaga Saria”, 1992koak, ez dio ez duen ohorerik ekarriko, eta alde honetatik zer irabazi gutxi du sariak eman diezaiokeen aipua. Baino alderantziz begiratuta, sarijeta bera dugu irabazle, zaitasunetan bizi den antzertiak maila oneko idazlana hartzen duenez, eta estimigarria dena, ifarraldeko teatro tradizionaletik eskuratua.

Patxi Ezkiagak, bestalde, hamarretik gora ditu poema-liburuak, eta beraz asko, “hamar asko baita” esaera zaharrak dioenez. Oso ezaguna da, eta miretsia ere bai, gure artean. Idazle oparoa denez, eta hainbat eredu eta poesi mota lantzen ahalegintzen denez, jakin nahiko zuen zein zen bere ahalegin honi epaimahaiak eginiko harrera. Denok dakigu, frantzes ereduko olerkigintza ezezik, ingeles eredukoa ere oso gutxik bezala ezagutu eta landu dituela Patxik. Are eta aipagarriago hau, entzuten denez, gaur euskal poesian gehiago jarraitzen dela inegeles joera frantzesekoena baino. Eskolak eskola, Ezkiagari ziurtatu zaio estimatzen dela poemategi horretan eginiko lana, maila estetikoa eta dakarkien testuaren hizkera maila.

Jose Manuel Odriozola saiakerarekin datorkigu. Genero hau asko landu zen diktadura garaian, nahiz eta gaur geldiune batean aurkitzen den. Behar bada Odriozolak erakutsi nahi izan digu, bizi dela generoa, ederra dela eta beharrezkoa ere bai. Gai konkretura jaitsez, “euskaraz gizarteratu beharra”, eta autoreak bere buruaz duen iritzia kontuan hartuz, hau da, soziolinguistikaren inguruan... “baliabide teoriko sendoz eta zorrutzet hornitu gabea”, “Mikel Zarate Saria”, 1992koak, ekar diezaioke, mahaikoen iritzian, lanak merezia duela ezagutza, ospea eta aitormen betea.

Bukatzeko, gure nahia eta gure xeedea hemen aipa ditzadan. Nahi genuke Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa sariok antolatzen jarraitzea. Egileen mesedetan da, eta euskararen mesedetan batez ere. Sari hauen esparruan, literaturako liburu zirkuitu bat mugitzen da, idazlan interesarriez osatua, berarizko balioa duena irabazleen zerrrendak emanik, eta atrakzio sendoa ere duena idazle eta idazlan berrientzat. Eta ez genuke ahantzi behar gure helburuetan Lizardik euskal poesiari ezarritako jomuga: “mintzo landu elertitsua”, modernitateari erantzun bat emanez. Hori egitea idazleei dagokie. Sari-antolaztaleei, berriz, dinamika bat sortzea, idazleen lan eskergak eragin on bat izan dezan, onartzean, ohorean eta diruzko eskupekoan. Denen beharrean baita gure “mintzo landu elertitsua”.

Toribio Altzaga saria, 1992: Junes Casenave-Harigile: *Agota*.
Felipe Arrese Beitia saria, 1992: Patxi Ezkiaga Lasa: *Komediarenean jainkoa*.
Mikel Zarate saria, 1992: Jose Manuel Odriozola: *Soziolinguistikaren atala*.

*Jean Haritschelhar
euskaltzainburua*

Bilbo, 1993.05.26

Andereak eta jaunak,

Egin duen mintzaldian, Juan Maria Lekuona-k erran du idazle batentzat hamar obren egitea asko dela. Zenbakiekin naizeno, gogora nezake hamaika zenbakiek asko edo hobeki erran anitz-en balioa duela. Kantu zaharretan maiz entzuten da zazpi eta ez bakarrik euskal kantuetan. Ziberotarrek badute esaldi pollit bat “biga bostetan” aipatzen dutelarik. Hiru zenbakia errannahi berean enplegatzeten da eta, hain zuzen, kondatuko dizuet ixtorio ttipi bat, laburra, Lafitte kalonje zenak niri kondatua:

Uztaritzeko erretoreak, duela urte parrasta bat, gerla aintzinean zer nahi gisaz, sortu zuen eske bat Pazko egunean, ez naiz oroit zeri buruz. Egin zen eskea erran bezala Pazko egunean, egun hartan eliza bete-betea delakotz eta markatu zuen kahier batean: “Aurten sortu dudan eskeak honenbeste diru eman du”. Beraztze urtean idatzi zuen: “Igaz sortu nuen eskeak honenbeste diru eman du”. Hirugarren urtean ba ote dakizue zer idatzi zuen? “Betidanik sortua den Pazko eguneko eskeak honenbeste diru eman du”.

Badakit aspaldi honetan harremanetan garela Bilboko edo Bizkaiko kutxekin sarien emaiteko, baina aro berri bat sortu da duela orain hiru urte eta erran nezake beraz betidanik Euskaltzaundiak Bilbao Bizkaia Kutxarekin emaiten dituztela sari guziak denbora berean *Txomin Agirre* saria, *Toribio Altzaga* saria, *Felipe Arrese Beitia* saria, *Mikel Zarate* saria eta *Resurrección María Azkue* saria idazle gazteentzat.

Niretzat poz haundia da eta nahi nuke azpimarratu poz haundirekin Euskaltzaindia Bilbao Bizkaia Kutxarekin eskuz esku lanean ari garela euskal literatura sustatuz.

Hirugarren urtean sartzen gara gaur, denbora berean zabaltzen ditugula igaz sariztatu diren obrak eta idekitzen dela datorren urriaren 15-a artio aurtengo sarietarako eskuskribuen eskaintzeko epea. Nire agiantza da betidanikako literatura sari horiek segi dezatela ez bakarrik datorren urtean, baina geroago, menderen mendetan. Amen!

BILBOKO METROAREN GELTOKIEI BURUZKO DIKTAMENA

Bilbon, 1993.eko otsailaren 25ean

*Jose Alberto Pradera jauna
Bizkaiko diputatu nagusia eta*

*Josu Bergara jauna
Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburua*

Jaun agurgarriok:

Euskaltzaindiaren Jagon Sailean behin baino gehiagotan nabaritu dugu leku izen ugari oker edo erdarazko izenekin bakarrik agertzen direla. Euskaltzaindiaren dagokion batzordea, kasu honetan Onomastika-koa, ohartu da Bilboko Metroaren geltoki izenak egitasmoetako iragarkietan nola agertzen diren eta hori garaiz zuzentzeako asmoz, hara horretarako batzordeak prestatu duen irizpena.

Dagokion sail edo erakunderen bidez bideratzeko erregua egiten zaizue, zeuon arretagatik aurretiaz eskerrak emanaz.

Har ezazue gure agurrik zintzoena.

*Endrike Knörr
Jagon sailburu eta Onomastika batzordeburua*

Dictamen sobre los nombres de las estaciones del metro de Bilbao

Nombres publicados	Recomendación académica
Basauri	Basauri
Etxebarri	Etxebarri
Basarrate	Basarrate
Santutxu	Santutxu
Casco Viejo	Zazpi Kaleak (1)
Abando	Abando
Moyua	Moyua
Indautxu	Indautxu
San Mamés	Santimami (2)
Deusto	Deustu
San Ignazio	San Ignazio (mejor)
Lutxana	Lutxana
Erandio	Erandio
Astrabudua	Astrabudua (3)
Leioa	Leioa (4)
Lamiako	Lamiako
Areeta	Areeta
Neguri	Neguri
Aiboa	Aiboa
Algorta	Algorta
Andra Mari	Getxo-Elexalde (5)

(1) *Casco Viejo* es un ‘invento’ muy reciente, sin arraigo alguno, tanto en castellano como en euskara, ya que siempre, y así lo atestigua repetidas veces el más ilustre de sus hijos, Miguel de Unamuno, el casco antiguo de Bilbao se ha llamado y se sigue llamando SIETE CALLES. En euskara todo vascoparlante de cualquier comarca vizcaina/o llama ZAZPI KALEAK. Es la doble denominación que debería llevar esta estación. Además, el pretendido nombre euskérico ‘Bilbo Zaharra’, sería *Bilbao la Vieja*, que está en la zona de Urazurrutia.

(2) El hagiónimo *San Mamés* tiene un equivalente euskérico *Santimami* o *Santimamíñ*. En la misma área metropolitana, en el Txorierrí, existe esa denominación de *Santimami*. Podía llevar también doble denominación *Santimami/San Mamés*, por estar muy arraigado el hagiónimo castellano.

(3) *Astrabudua* es un topónimo euskérico diáfano, pero que cuando se declina pierde la -a final como artículo en muchos casos, *Astrabuduko*, *Astrabudutik*, *Astrabuduan*.

(4) Ha de tratarse de un error, ya que es *Leioa* y no *Leoria*.

(5) *Andra Mari*. Se está extendiendo equivocadamente como denominación euskérica de Santa María de Getxo. *Andra Mari* no es más que la advocación mariana de la parroquia. El nombre del lugar en euskara no tiene que ver con la advocación mariana, ya que es *Getxo-Elexalde*, como lo atestiguan los vascoparlantes autóctonos, igual que muchísimas anteiglesias vizcainas, *Izurtza-Elexalde*, *Gorozika-Elexalde*, *Nabarriz-Elexalde*, *Arratzu-Elexal-*

Nombres publicados	Recomendación académica
Berango	Berango
Larrabasterra	Larrabasterra
Sopelana	Sopela (6)
Urduliz	Urduliz
Plentzia	Plentzia
Cruces	Gurutzeta (7)
Fueros	Foruak (8)
Santa Teresa	Bagatza (9) (10)
Urbinaga	Urbinaga
Sestao	Sestao
Abatxolo	Abatxolo
Portugalete	Portugalete
Peñota	Peñota
Santurtzi	Santurtzi

de, etc. Así está aprobado, por otra parte, en el *Nomenclátor de Entidades de Población de la Comunidad Autónoma Vasca*.

(6) *Sopelana*. Para cualquier vascoparlante autóctono es *Sopela*, ya que pierde la *-a-* intervocálica. Es regla general conocida por cualquier iniciado en la toponomástica vasca y que sucede en todo el País: *Lemonal/Lemoa*, *Lejona/Leioa*, *Torrano/Dorrao* (N), *Miñano/Miñao* (A), *Lazcano/Lazkao*, *Cestona/Zestoa* (G), etc. Igual sucede en la onomástica gallego-portuguesa y en la gascona.

(7) *Cruces*. El nombre vasco de este barrio es *Gurutzeta*, como lo atestigua la placa que aún existe en las inmediaciones del hospital.

(8) *Fueros/Foruak o Foruen pasealekua o paseo de los Fueros*.

(9) Si bien lo único que se conoce en este momento es el hagiónimo de *Santa Teresa* que sólo data de la época franquista. Sería procedente denominarlo con el topónimo tradicional de Barakaldo *Bagatza*, que hoy se pronuncia y se conoce con la grafía romanizante 'Bagaza', por la pérdida del euskara en la zona.

(10) De acuerdo con el apartado 2 del artículo 10 de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara (Anexo 1), convendría utilizar la doble denominación en los nombres como *Zazpi kaleak/Siete calles*, *Santimami/San Mamés*, etc.

EUSKALTZAIN OHOREZKO BERRIAK IZENDATZEA

Donostia, 1993.06.26

- Bernardo Estornes Lasa
- Jean-Baptiste Etcheberri
- Carlos Santamaria Ansa
- Martin Ugalde Orradre
- Augustin Zubikarai Bedialauneta

OHOREZKO EUSKALTZAINA 1993

Donostia, 1993.06.26

Martin Ugalde

Ni 1969an Venezuelatik etorri nintzenean Euskaltzaindia eta *Argia* izan ziren nire babesleku.

Hemen sentitu nintzen Herrian.

Euskaltzaindia ez zen orduan hemen, sasoi eder honetan, biltzen, baizik eta hor goien trastez bete zegoen ganbaran! Hala zebilen euskara! Eta eskertu egin behar, gainera, hori egiten uzten zigutelako. Gure artean bazen istilurik orduan ere, euskara batua dela eta. Don Manuel Lekuona, eta Aita Villasante etortzen zaizkit gogora orain Mitxelenarekin batera, besteen artean.

Kazetaria naizenez ofizioz, *Zeruko Argian* egin nuen garai hartan Euskara Batuaren arazo hura apur bat arrazointzeko ahalegintxoa bi alderdietako buru batzuoi elkarrizketak eginez, baina ez zen aski izan, noski, eta ni neu ere eraman ninduen uholdeak! Halera, euskal erakundeek duten sustrai eta jokabideei esker Ikastola eta Euskaltzaindia, hizkuntzaren sustraietatik eraiki diren instituzioak, aurrera doaz, iraun dute eta iraungo dute euskaldunen bihotzetan, eta erakunde iraunkor hauen ondoan itxaropen guztiak aurrean ditugu. Gure politikako munduan iritzi batekoak et bestekoak Euskal Herria aurrean dugula, elkarlan hau bera egiteko gauza bagina!

Esker beroak Euskaltzaindiari hain konpani onean ohorezkoko euskaltzain izendatu nauelako, euskaldun batek jaso dezakeen saririk ederrena.

Esker mila.

HIL BERRIAK

EUSEBIO ERKIAGA ALASTRA (1912-1993)

I. **Bizi-xehetasunak.**—Lekeitio-n (Bizkaia) 1912.eko irailaren 4ean jaioa. Euskaltzain urgazle 1952an izendatua. Euskaltzain osoa, berriz, 1963an. Sarrera-hitzaldia Lekeitio egin zuen 1973an. Hitzaldi horren gaia: “Eusebio M.^a Azkue gizon eta olerkari”. Harrera-hitzaldia, berriz, Juan Gorostiaga euskaltzainak egin zion.

Bilbon bizi zen. Begoñan ezkondu zen 1943an Mercedes Telleria anderearekin eta lau seme-alaba izan zituzten: Esther, Franzisko Jabier, Sara eta Eloisa. “Perito mercantil” titulua zuen. “Banco de Vizcaya”-n lan egiten zuen, eta hortik aitzakia hartuz, Euskaltzaindiko diruzain izendatua izan zen 1966an.

Erkiaga jaunak bizkaieraz idazten zuen arrunki, baina 1950. urte inguruuan Federico Krutwig jauna lapurtar klasikoaren alde lan egiten hasi zenean, Erkiaga ere bilkura haietara joaten zen Berriatua, Garro “Otxolua”, Gorostiaga eta beste batzuekin.

Lapurtar euskalki honetan ere egin zituen lan batzuk. Adibidez, eta Fernando Mendizabalek dioenez, 1952an Iparraldean egindako poesi-sariketan bigarren sari bat irabazi zuen Lapurdiko euskeraz idatziriko “Azkueren heriotza” deritzeron olerkiaz. Ikus *Euskera* (1960), 421.

Eta Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-k dakarrenez, Axularren jaiotzaren laugarren mendeurrenra bete zenean, honako olerki hau agertu zuen *Gure Herria*-n: “Axular handiari, ohore”. *Gure Herria* (1956), 351-352.

* * *

II. **Emaitz a joria.**—Bai, joria benetan izan da Erkiaga jaunaren literatur emaitza. Hemen eskerrak eman nahi dizkio Arana Martija euskaltzainari bibliografia biltzeko eman didan laguntzagatik.

Hona hemen, hasteko, bere bizitzean zehar, zein egunkari, astekari eta aldizkaritan argitara izan zuen: *Bizkaitarra* (1930), *Euzkadi*, *Yakintza*, *Egin*, *Euzkerea*, *Eguna* (1937), *Egan*, *Olerti*, *Guernica* (Argentinakoa), *Euzko Gogoa*, *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, Banco de Vizcaya-ren *Boletín Informativo* (Ipar Amerikako euskal artzaintzat egiten zen, 1964-1970, 28 zenbak), *Idatz-Mintz*, *Zer. Eguna* euskarazko egunkariaren sortzaileetariko bat izan zen.

Argitaratutako liburuak:

- *Arranegi*, Zarautz, 1958.
- *Araibar zalduna*, Zarautz, 1962.
- *Batetik bestera*, Zarautz, 1962 (bigarren argitalpena, Labayru, 1985).
- *Jaioko dira* (Labayru, 1984).
- *Txurio txoria* (Labayru, 1986).
- *Iribarrea galtzen denean* (Bizkaiko Foru Aldundia, 1987).

III. **Euskaltzaindiko *Euskeria* aldizkarian agertutakoak.**—Euskaltzaindiko *Euskeria* aldizkarian lan hauek gutxienez dauzka atereaek:

- *Kanpainen atsekabez* (teatro-lana) (1960), 259-272.
- “Euskaltzaindiaren hasieratik urgazle izan zanaren mende-urrena: Migel Arruza Egia (1890-1966)” (1990), 275-280.
- Bizente Amezaga Aresti (1968), 285.
- Hitzaldia Euskaltzaindiaren urre-eztaietan (1971), 64-71.
- “Larreko” gizon (Pablo Fermín Irigaray Goizueta) (1973), 195-202.



- “Eusebio M.^a D. Azkue gizon eta idazle” (sarrera-hitzaldia) (1974), 325-349.
- Eguzkitza Meabe, Juan Bautista (1875-1939); (1976), 217-235.
- Eguzkitzaren lanen zerrenda (1976), 235-238.

IV. Sariak eta Omenaldiak:

- 1936an Lekeition egindako euskal poesi jaian “Lora gorriak” lirika lanagatik.
- 1950ean “Educación y Descanso”k antolatutako sariketan, bigarren saria, “Nekazariaren” olerkiagatik.
- 1951a poesi eta teatro-sariak: “Azkueren heriotza” eta “Siniste gogorra” lanengatik.
- 1958ean nobela-saria *Arranegi*-gatik (Bizkaiko Junta de Culturak emanik).
- 1960ean Domingo Agirre nobela-saria *Araibar zalduna* nobelagatik. Ikus *Euskera* (1960), 422.
- 1985ean Ondarroako Kultur Etxeak antolatutako saria, “Taloak eta arraina” lanagatik.
- 1988an Lekeitioko Udalaren omenaldia jaso zuen. (Omenaldirako Euskaltzainburuak eskutitz bat zuzendu zion eta Alfonso Irigoien euskaltzainak jende-aurrean irakurri zuen. Ikus *Euskera* (1989), 355.
- 1992an Bizkaiko Foru Diputazioak omenaldia egin zion.

Hil aurreko egunetan, 1993.5.26an, Euskaltzainburu jaunak bere eskuz emanik eta Erkiaga beraren etxeán —gaixorik baitzen—, Euskaltzaindiaren domina jaso zuen. Hil bereko 31n, gaueko hamaitetan hil zen. Ekainaren 2an izan ziren hilietak Begoñako basilikan, Karmelo Etxenagusia, euskaltzain urgazlea, meza emaiile izan zelarik.

Lekeition, Eusebio Erkiaga jauna jaio zen kaleak beronen izena darama gaur.

L. V.

PAUL GUILSOU (1920-1993)

Iragan Abuztuaren 25ean, goizeko 9 etan, Parise VII.eko La Bourdonnais karrikaren 97.eko 7.solairuan zeukan gela xuhurrean, tiroideko minbiziaren ondorioz, itzali zaigu, bi aita seme mediku adiskideen artean, 30 bat urte honetan Euskaltzaindiak bere urgazle zeukan Pol Giltzu (*) senpertar apez euskaltzalea.

Nehor gutik ezagutu duke hemen, Iparraldeko bizpalau lagunek adiskide gunean herritarra. Bazuen alabaina 37 urte Parisera joana zela eta joanez gero ez zuen herrira itzultzerik onartu, ez etxeko ez apezpikutegiko dei guziengatik. Bizzitartean beste mundura joan zaigularik ixil-ixila, bere gorpua zientziari utzirik, erran ohi den bezala, eta bere arima Jaungoikoari, aipamen hau zor dioene ustez Euskaltzaindiak, belaunaldi bereko garen Iratzeder-ek eta biok prestatu dutuna, paper xaharrak eta aspaldiko oroitzapenak bildurik.

1920.eko Urtarrilaren 24ean sortu zen, Senpere Erkaztegia izeneko baserrian, Pol Giltzu, aita Giltzu eta ama Berhuet senar-emazteen 5.haurra. Lehena Mane, etxen gelditua, 1984.ean hil zen eta honen seme Laurentz-ek jarraitzen du Erkaztegian. Bigarrena Benat Uztaritze Arruntzara ezkondu zen eta han zentu zen 1986.an. Jose et Ana aldiz bizi dira oraino Landes-etako Ychoux hiriko eskualdean.

Uztaritzeko apezgaitegian eta gero Baionan ikasketak egin ondoan, Paul Guilsou apeztu zen 25 urteetan, 1945.eko Apirilaren 2an eta berehala Mugerrera joan, Janpiarre Urrikarriet erretoraren laguntzera. Zinez norbait bazen, nihonek ere bispahiru urte lehenago Miarritzen zegoelarik ezagutu, eta gazte askok bezala, miretsi nuen Urrikarriet aldudar apeza.

Estatu Batuetako James E. Jacob ikerlek Frantziako Euskaldunen etnonacionalismoaz egin duen lanean aitortzen du Piarres Lafitte eta Janpiarre Urrikarriet izan direla, bakoitza bere gisara, gure belaunaldian abertzetasunaren hazia erein duten bi gizonak. (Jacob James E., *The Basque of France: a case of peripheral ethnonationalism in Europe, Political Anthropology*, 1975, I, 67-87).

Eta izatez, Belokeko aita Lertxundi eta Iratzeder-ek prestaturik Urrikarrietek Mugerreko elizan emaiten zituelarik lehen aldikotz bezperetako salmoak euskarak, parrokiako eskolan andere Malharin-ek abiatzen zituen lehen irakaspen euskarak, eta apaizetxetik beretik, Rezola eta Mendiola gipuzkoarrek zituzten Euzkadi Irratiaren lehen emankizunak ontzen, Frantziako barne ministro Mitte-

(*) Bere eskutitzetan horrela sinatzen zuen Pol Giltzu.

rrand delako batek, Franco-ri amore emanez, abertzaleen botza gaurtik biharrera ixilarazi zuen arte.

Giro horretan Mugerreko bikari gaztea ere lotu zen bere aldetik, euskararen lantzeari. Zenbait urte geroago Parisetik igorri zizkion hitz hauek Iratzeder adiskideari: “Apezteko izaki eta, nere ustez Eskualdunen apez bearra, Eskualdunak errespetatuz eta maitatuz nuela egiten ahalko ene apezlania egiten nuen ene bai- tan eta hortako eskuara ahal bezain ongi jakin nahi nuen”.

Eta orduantsu, bere Xileko atzerrian aita Justo Mari Mokorroa euskal esaldi berezienak biltzen ari zen bezala, Euskal Herrian berean Giltzu apeza euskal erran zahar eta erran airen ihizian zebilen, abiatu berria zen *Herria* astekarian argitaratzen zuela bere “errantegiaren” hoherena.

Mugeren ere lan ona zeraman bestalde apeza gazteak bai haur tipiekin katinman, bai gazteekin, orduko bikari anitzek bezala, antzerkigintzan. Horren lekuko badugu eskutan lehenik *Nere lehen katixima*, Belokeko Ezkila argitaldariak 1954.ean argitaratu zuena; berak dioenaz “nere eskual lanetan maiteena” eta gure ustez, berriz argitara baledi, oraino baliagarri litekeena.


Hor daude gero *Gure Herria* aldizkari berpiztuak argitaratu zituen gure lagunaren antzerkiak: *Gazte: seme galdua* (1950), *Petan Mihiku* (1951), *Koropilo Azeri zaharra* (1952), *Gizona* (1953). Nork edo nork gutiets ditzake menturaz gaur Giltzuren lan horiek, baizik eta klasikoengok egokitze batzuez besterik ez direla. Jakin behar da bizkitartean obra horiekin, urte haietan, arrakasta izigarria bildu zuela Euskal herri anitzetan Mugerreko antzerki taldeak. Bestalde ez dugu zeren ahantz zer hainetan zegoen oraino euskal antzerkia, Barbier, Zaldunbide, Mirande, Zerbitzari, Leon Leon eta Lafitten saioengatik, Iparraldeko idazleak bakarrik aipatzeko. Ez baitzen oraino agertu ez Larzabalen ez Monzonan, are gutiago Daniel Landart erdi mugertarraren obrarik.

Zorigaitzez 1950.ean, 46 urtetara doi-doia zoalarik, Janpiarre Urrikarriet apeza hil zen, pankreatitis gaizto batek eramanik. Haren orde Mugeren erretore sartu zen Harinordoki baigorriarra eta ondoko urtean bikaria aldatu behar zela. Giltzu gure laguna igorri zuten Hazparneko ikastegira, irakasle kondu, Gaztelu kalonjeareen laguntzaile.

1952.tik 1956.ra, lau urte iragan zituen Hazparneko ikastegian senpertar apezak eta gero, bapatean, berak eskutu zidan aurki niezaion —ez dut behinere jakin zergatik— ihesleku bat Parisen. Lehenbizian apezlagun bezala hartu zuten XIX.eko “Marie Médiatrice” deitu elizan, baina handik laster “Saint Pierre du Gros Caillou” parropiara nahiago izan zuen etorri eta geroztik hor zen kokatu azken eguneraoino.

Hogeita hamazazpi urte luzez badakit Baionako apezlagun adiskide askok eskaini diola Giltzuri haren sorterrira itzularazteko urrats bat edo beste egitea. Debaldetan izan da beti: irakurri berri dudan gutun batean idazten zuen 1960.ean: “Jainkoak mainaz galdua nauka: Norbait ere ari izana ditaike otoi zearen duela hiru urte eterdi herritik gan zen apez hunentzat...” Bururatzan baitzuen: “hemen betiko”, emanez, erran behar dugu hitza atxiki zuela gure gizonak.

Ez zion bada uko egin ez etxeari ez euskarari eta bere irakurketa ala solasaldietan Parisen ere ari zen beti ere "errantegia" aberasten: Hiru erran aire andana bederen bazituen igorriak 1975ean, 1976.an eta 1982.an edo *Herria*-ri edo *Euskaltzaindia*-ri edo Belokera Iratzeder-i. Baino bera ez zen Euskal Herrira hanbat agertzen. Anaiaren ehortzeten kariala izan omen zen etxen azken aldikotz. Egia erran, uste dut gure adiskideak bere apezlanerako alortzat hartua zuela Pariseko eremu zabala eta nahasia. Ez zituen ez euskaldunak baztertzen eta behin entzun diot Pariseko Euskal Etxearen ardura zuen lagun bat, "kasu" berezi zer-bait etortzen zitzaiolarik, Giltzuri bidaltzen ziola beti, harekin konpon zedin. Gaua jakina zen alabaina gutartean Pariseko ardi eta antxu galduen artzaina bilakatua zela senpertar apeza.



Funtsean *Herria* astekariaren 1961. eta 1962.ko zenbakiak kurritzen dituenak aurki dezake hor, nihonek egin dudan bezala, 80 artikuluko sail luze eta arraro bat. Ez du sailak sinadurarik, baina "Jainkoa sotoetan" du izenburua eta "neskatxa baten oroitzapenak" direla baitio berak, ohartzen gara "Saint Germain des Prés" deitu existentzialista gazteen auzotegiaz, diharduela oso-osorik. Gazte horien "segretarioa", Lafittek dioen bezala, nor ote zen ez da zail asmatzea, hura baitzen hortik ez urrun bizi zen euskaldun apaiza.

Azkenean aipatuko ditut ere beste bi eskuizkribu, Iratzederren eskutan dir-renak: batek Tupi-guarani eta Keshua indioen hizkuntzak ditu euskararen parean ezartzen, eta besteak berriz Azteka indioena. Ez diegu ez emanen egileak berak emaiten zien baino garrantzia gehiago, jostatzeko bezala idatziak zituela baitio berak.

Baina gure adiskide zenari “Agur! eta Ikus arte!” erraitean behar dut hemen adiarazi nehork noizbait nahiko duclarik 60. hamarkadako euskal literaturaren historiaz hitzegin, ez dituela agian ahantziko Pol Giltzu-ren *Petan Mihiku*, *Koropilo Azeri zaharra*, *Seme Galdua*, *Jainkoa Sotoetan* eta *Errantegia*. Nori berea ez ote da alabaina zuzenbidea?

P. Charriton

**EUSKALTZAINDIAREN AURKITEGIA
ETA
BATZORDE-ORGANIGRAMA**

EGOITZA / SEDE

Plaza Barria, 15

48005 BILBO / BILBAO

BULEGOAK / OFICINAS

Telf. 94-415 81 55

Faxa: 94-415 81 44

Arduraduna: Jose Luis Lizundia Askondo

AZKUE BIBLIOTEKA

Telf. 94-415 27 45

Faxa: 94-415 00 51

Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES

ARABA / ALAVA

San Antonio, 41
01005 VITORIA / GASTEIZ
Telf. 945-23 36 48; Faxa: 945-23 39 40
Ordezkaria: Manuel M.^a Ruiz Urrestarazu

GIPUZKOA / GUIPUZCOA

Hernani, 15, behea
20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
Telf. 943-42 80 50; Faxa: 943-42 83 65
Ordezkaria: Juan Mari Lekuona

NAFARROA / NAVARRA

Conde Oliveto, 2, 2
31002 IRUNEA / PAMPLONA
Telf. 948-22 34 71; Faxa: 948-21 07 13
Ordezkaria: Jose Mari Satrustegi

IPARRALDEA / PAYS BASQUE NORD

37 rue Pannecau
64100 BAIONA/BAYONNE
Telf. 07-33-59 59 45 59
Ordezkaria: Pierre Charriton

EUSKALTZAINBURUGOA/CARGOS ACADEMICOS Y EJECUTIVOS (*)

Euskaltzainburua/Presidente: Jean Haritschelhar

Buruordea/Vicepresidente: Juan Mari Lekuona

Idazkaria/Secretario: Endrike Knörr

Diruzaina/Tesorero: Jose Antonio Arana Martija

Iker Sailburua/Presidente Sección *Investigación*: Patxi Altuna

Jagon Sailburua/Presidente Sección *Tutelar*: Endrike Knörr

Bibliotekaria/Bibliotecario: Jose Antonio Arana Martija

Idazkariordea/Vicesecretario: Jose Luis Lizundia Askondo

Ekonomi-eragilea/Gestor económico: Juan Jose Zearreta

Eragile Teknikaria/Coordinador: Pello Telleria.

Argitalpenen-eragilea/Ejecutivo publicaciones: Ricardo Badiola Uriarte

(*) *Euskaltzaindiak 1992.eko abenduan eta 1993.eko martxoan onartua.*

EUSKALTZAIN OSOAK / ACADEMICOS DE NUMERO

1. Patxi Altuna, E.U.T.G. Mundaiz, Apdo. 1359 Postakutxa, 20080 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-27 31 00; (faxa): 943-29 26 35.
2. Jose Antonio Arana Martija, Karmelo Etxegarai, 6, 48300 GERNIKA (Bizkaia), 94-625 07 01 (etxea); 94-415 27 45 (bulegoa).
3. Miren Azkarate, Antso Jakituna, 26-6 D, 20010 DONOSTIA/SAN SEBASTIAN, 943-46 75 85; 943-470003; (faxa): 943-47 16 99.
baita funtsean, han eta hemen. Eta erakunde politiko desberdinetan bizi arren, Euskaltzaindia dugu denok gidari, irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan erabiltzen den euskara gero eta berdinagoa izan dezagun. Axularrek salatzen zuen bezala ez baitugu euskara gero eta desberdinagoa eta elkarrentzat ulerkaitzagoa izaterik nahi, “zeren eresumak baitituze different”. Antolamendu politiko desberdinetan bantua izan arren, euskara bakarra nahi dugu. Eta horretarako aholkulari eta gidari bera onartu dugulako gaude gaur hemen Euskaltzaindiarekin bat eginik.

Ez da gutxi. Euskara batzeko asmo eta bideetan harrotu ziren hau-tsak ikusirik, besterik ere gerta baitzitekeen. Baino honetan bederen euskaldunok izan dugu burubiderik, malgutasunik eta ezaguerarik, zorionez. Eta Euskaltzaindiak bere lana askatasun eta sosegu osoz egiteko aukera du gaurregun. Erantzukizuna ere, jakina, aukera horren araberakoa da.

Erantzukizun horretan ez da bakarrik utzi, noski. Inoiz baino giza eta diru-balibide hobeak baititu bere esku. Eta orain 75 urte ez bezala laguntzaile baliotsuak sortu zaizkio inguruan: Unibertsitateak, euskal filologia, euskararen irakasle katedradunak, euskal liburugintzan, hiztegi-gintzan, ikerkuntzan, euskal komunikabideetan, administrazioan eta abarrretan dihardutenean taldeak eta elkarreka.

Euskaltzaindiari eta euskararen langile guztiei, nire eta agintari guztiengarri eskerrona agertu nahi nieke ospakizun honetan, gaur jasotzen ari garen uzia beste batzuk urte zailetan, ereindako haziaren fruitua dela gogoratz. Baino eskerronarekin batera, elkarlanerako deia egin nahi di-zuet guztioi. Batez ere, azken urteotan egin dena azter dezagun eta egiteke dagoena burutu.

Euskaltzaindiko jaun-andreok,

zorionak eta eskerrrik asko.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

EUSKALTZAINDIAREN GOMENDIOAK ETA ERABAKIAK

-zio, -zione, -zino

Euskarak latinetik eta latin-hizkuntzetatik harturiko maileguen artean *-tione* atzizkiak axola berezia du, euskal hitzei ere gehi baitakieke, *amorrazio, begitazino* eta kidekoak emanez.

Atzizkiak zenbait aldaera ditu euskalkien arabera. Literatura tradizioan nagusiak hauek dira: *-zino* edo *-ziño* bizkaieraz (*-zino* zenbait idazle lapurtar klasikotan ere agertzen da, eta bizkaierazko zenbait testu zaharretan, baita ere *-zione*); *-zio* gipuzkeraz, goinafarreraz, eta Aezkoa eta Zaraitzuko hizkeretan, eta *-zione* Iparraldeko euskalkietan, Baztanen (baita ere *-zio*, Echeniquek bederen) eta Erronkarin. Azken hogeita bost urteetan euskara batuaren eraginez horietarako bi aldaera dira ia erabat gailendu direnak: *-zio* Hegoaldean eta *-zione* Iparraldean. Beraz, badirudi euskara baturako hautaketa bi aldaera horien artean egitea dela bidezkoena, eta soziolinguistikazko arrazoien kariaz Hegoaldean erabilia dena hobestekoa dela.

Hortaz, Euskaltzaindiak *-zio* aldaera (hots, *amorrazio, begitazio, debizio, instalazio, integrazio, zibilizazio, administrazio, segizio, barkazio*, bezalako formak) hobesten du euskara baturako.

Euskaltzaindiak 1993ko azaroaren 27an onartua

Ordinalen eta banatzaileen idazkera

Ordinalen letra bidezko idazkeran arazoak sortzen dituen bakarra 5.aren ordaina da. Literatur tradizioan erabiltzen diren formak *bostgarren* (edo *bortzgarren*) eta *bosgarren* (edo *borzgarren*) dira. *Boskarren* eta gainerako -k- dunak ez dira autore zaharretan ia agertzen: forma -k- dunak (*boskarren* eta *bostkarren*) soilik erabiltzen dituen bakarra M. Zabala da, eta horrelako formak erabiltzen dituzten beste hirurak -Capanaga, Añibarro eta Iztueta -aldaera -g- dunak ere badarabilzate. Gero XIX. mendearen bukaeraz gero gehiago zabaldu zen *boskarren*, baina Hegoa-dean soilik eta idazle garbizaleen artean bakarrik. Beraz badirudi euskara baturako egokiagoak direla -g- aldaerak, eta horien artean batasunean kontsonante-multzoak murritzeko hartu den erabateko jokabidea (*hitzegi* eta ez *hitzegi* e.a.) kontuan harturik badirudi forma bakuna dela gomendatzeko. Arrazoi bertsuakatik badirudi *bosna* (*borzna*) eta ez *bostna* dela gomendatu behar den forma.

Bestalde 21., 42. eta kidekoei dagokienez, *batgarren* grafia erabatekoa da, eta salbuespen bakarra M. Zabala da, *ogetabatkarren* erabiltzen duena. *Batgarren* gehienbat aurreko osagaitik bereizirik agertzen da tradizioan (*hogeita batgarren*, *zenbatgarren*, e.a.), eta hori da hain zuzen numeralentzat gomendatu zen idazkerari gehien egokitzen zaion aukera.

Hortaz hau da ordinalentzat Euskaltzaindiak euskara baturako gomendatzen duen idazkera:

Bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren (borzgarren), seigarren, zazpiigarren, zortzigarren, bederatzigarren, hamargarren, hamaikagarren..., hamabosgarren (hamaborzgarren)..., hogeigarren, hogeita batgarren, hogeita bigarren ..., hogeita hamargarren..., berrogeita baigarren.., ehungarren, milagarren... Eta galderetan zenbatgarren.

Saileko lehen kideari buruz, erabiltzen diren formek (*lehen*, *aurren* eta *lehenengo*, *lehenbikiko*, *lehendabikiko* e.a.) ez dute ortografi arazorik, eta oraingoz ez du Euskaltzindiak horietako batere hobesten.

Orobak, eta banatzaileei dagokienez, *bana* (eta, beraz, *hogeita bana*), *bosna* (*borzna*), *hamabosna* (*hamaborzna*), *ehuna*, *mila bana*, idazkera proposatzen du Euskaltzaindiak. Halaber, galderetan *zenbana* erabiliko da. Jakina denez, Iparraldeko tradizioan, zenbakia bokalez bukatzen deunan -na gabe -ra erabiltzen da: *bira* (baina *hiruna*, *launa*), *seira*, *zazpira*, *zortzira*, *bederatzira*, e.a. Euskaltzaindiak ez du erabilera hau gaitzesten.

Euskaltzaindiak 1993ko azaroaren 27an onartua

BATZAR-AGIRIAK

Arantzazun, 1993ko irailaren 30an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Peillen, Tx.
 Salaburu, P.
 San Martin, J.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea
 Badiola, R., argitalpen eragilea
 Telleria, P., eragile teknikaria

Ondoren, Pello Telleria eragile teknikaria aurkeztu du J. Haritschelharrek, Euskaltzaindiaren izenean ongi etorri eginez.

Erregelak

Erregelen testuaren azterketari ekin diote ondoren bilduek. Azkue Bibliotekari dagokion atala aztertu dute lehenik, Zuzendaritzak eskaini idazketa berrian, J.M. Satrustegik eta J.A. Aranak egindako oharrak kontuan harturik. Lehen eta bigarren artikuluak onartu dira, eztabaiderik gabe. Hirugarren artikuluaz luzaz hitz egin da, baina iritziak bateratu dira: ikerkuntz biblioteka da Euskaltzaindiarena. Laugarrena ere idazketa berrian onartu da, Akademiaren jabegoa den ondarea eta zainpeko etorkinak aipatuz. Bosgarren eta seigarrenean estilo kontuko aldaketak egin dira. Zazpigarren eta zortzigarren zeuden zeudenean onetsi dira, halaber bederatzigarren, maileguetan mugak ezartzen dituena. Hamargarren eta hamai-kagarrenan besterik gabe onartu dira. Hamabigarren artikuluan estilo aldatzea proposatu eta onartu da, nahiz gero batzordeño batek ardura hori hartuko duen, testu osoaz. Hamahirugarrenan oinarri testuan zetorren bezala ontzat eman da.

Arantzazun, gogartetxean, 1993ko irailaren 30ean, arratsaldeko lau t'erditan, bildu da Euskaltzaindia, aldameneko lerrokadan ageri diren lagunak bertan zirela. Ezin etorrira adierazi dute J.-L. Davantek, X. Diharcek, A. Irigoyenek eta P. Zabaletak.

Agiria

Uztaileko batzar agiria onartu da, bi zuzenketa jaso ondoaren.

Barne gaiak

Gaietan sartu aitzin, Euskaltzainburuak dolumina agertu dio Oyharçabali bere amaren heriotzeagatik.

Ondoren, Pello Telleria era-

Euskaltzainak izeneko atalaren bigarren artikulua ikertu da gero, hautatzeko garaiaren irizpidea adierazten duena. Zuzendaritzaren proposamena honako hau zen: Arabak, 1; bizkaierak, 3; gipuzkerak, 3; nafarrerak, 3; behenafarrerak, 3; lapurterak, 3; zubererak, 1, eta beste zappi euskaltzainak euskalki edota geografi irizpide hau kontuan hartu gabe hautatzea. Mugatzea arriskugarria dela esan du J.M. Satrustegik, eta berdin J. San Martinek. A. Irigoyenen gutuna irakurri da. Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako aldeak egun duen kopurua murriztea eskatzen du. F. Krutwigek euskaltzainburuari egindako beste gutun bat aipatu du hartzialeak, ildo beretik. I. Sarasolaren ustez, kopuruaren herenean geografia iritzia erabiltzea litzateke egokiena eta, P. Altunaren galderari erantzunez, sorteria ala bizitokia ikusi behar denentz, esan du kideek euskalkiaren berri emango dutela beti, zein-nahi den ere bizitokia. Honako proposamena hau egin du gero J.A. Aranak: Arabak eta zubererak bana izan dezatela; nafarrerak hiru, lapurtera-behenafarrerak hiru, bizkaierak hiru eta gipuzkerak hiru, eta gehienez sail guztiak kopuru bikoitza lortu ahal izatea. P. Salaburuk esan du, zer gerta ere etorkizunean, kontuan hartu behar dela bizkaiera eta gipuzkeraren indarra. Gutxiengoa-ren proposamena guztiak onartzen dute. B. Oyharçabalek eskatu du ezein euskalkik ez dezan laurdenea gaindi. Euskaltzainburuaren iritziz, aulkia izendatu behar dira luza gabe, euskalki-lurraldleen zehazteko.

P. Altunak proposamena ekarri du idatziz ondoren. Euskaltzaineek beren tokia borondatez utzi ahal izatea, adinagatik, eritasunagatik edota ezindurik aurkitzen direlako, eskatzen du. Mahai gainean gelditu da eskaria, eta aurreko gaiak bezala hurrengo batzarreetan erabiliko dira.

Argitalpenei buruzko atala aurkeztu da. Urriaren 20.a baino lehen bidali behar dira oharrak.

Eskuartekoak

Iruñeko Udalak azterketa baterako epaimahaikidea eskatu du. A. Iñigo izendatu du Euskaltzaindiak. Ordezkoia Patxi Salaberri izan daiteke.

Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Herrian erakundeko idazkaria den Francisco José Pérez Espinosaren eskea irakurri da. Erakundearen izenaz galdetzen du, eta bereziki *Euskal Herria* ala *Euskadi* den egokiena. Onomastika batzordeak prestaturiko erantzun zirriborroa irakurri du E. Knörrek: 1) Euskaltzaindiaren 1979ko erabakia oroitarazten da (ikus *Euskera XXIV:1*, 1979, 115-117), *Euskal Herria* izena bazter ez zedin eskatuz; 2) Gobernuaren Ordezkaritza *Euskal Herrian* proposatuz; eta 3) *Euskal Herriko* baino hobeki legokeela *Euskal Herriko Autonomia Elkarteo* izena, erakunde horrek ez baitu euskal eremu osoa hartzen. B. Oyharçabalen zuzenketa jasoaz, *Gobernuaren Euskal Herriko Ordezkaritza* onartu da.

ASESCOIN (Asociación Española de Coleccionistas de Naipes) elkartearen eskea irakurri da gero. Kartagintzaren euskal hiztegia ontzea eskatzen du. Euskaltzaindiak oraingoz ezin egin dezakeela erantzungo zaio, gerora aditurek saia-keraren bat, agian, egin badezakete ere.

Frantziak Bilbon duen kontsul anderea egoitzan izana dela berriki aditzerako eman du Euskaltzainburuak.

E. Erkiagaren hutsunerako proposamena ekarri dute, B. Gandiagaren alde, X. Diharcek, L. Villasantek, J.M. Lekuonak eta J. San Martinek. Bi dira, hortaz, hautagaiak: B. Gandiaga eta X. Kintana. Bozketa urriko batzarrean egingo da.

Euskaltzaindiaren 75. urteurrena dela-ta Erregeari ikustaldia egiteko Zuzendaritzaren asmoa azaldu du J. Haritschelharrek. Urriko batzarrean mintzatuko da.

Azkenik, J.L. Lizundiak *euskaldun, abertzale* eta beste zenbait hitzek erdaraz maiz duten okerreko erabilera aipatu du (*paisaje euskaldun, adibidez*). Jagor sailaren ustez, Euskaltzaindiak zerbait esan beharko luke. Geroko uztea erabaki da orobat.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarrea.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

OHIZ KANPOKO BATZARREA EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENEKO BATZARREAK ETA OSPAKIZUNAK PRESTATZEKO

Arantzazun, 1993ko urriaren 1ean

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Charriton, P.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Peillen, Tx.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.
 Lizundia, J.L., idazkariodea
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea
 Badiola, R., argitalpen eragilea
 Telleria, P., eragile teknikaria

Aduriz, J.A., LEF azpibatzorde idazkaria
 Kintana, X., Euskara Batuko ohargilea
 Kortazar, J., Literatura Ikerketa azpibatzorde
 idazkaria
 Urrutia, A., Jagon saileko idazkaria
 Zalbide, M., Hitzegigintza batzorde idazkaria

irekia izan dadin nahi du Euskaltzaindiak, esan du, idazle, irakasle eta euskaltzaleek parte hartuko dutela. Hitzaldi eta txostenek osatua izango da, hitzaldiak oro aginduak, halaber txostenetarik batzuk.

P. Charritonek soziologi alorra ere ukitu behar dela esan du, irrat-telebiseten, idatzizko prentsan eta irakaskuntzan gertatzen diren arazoak azterteko. Ildo beretik mintzatu da X. Kintana, eta horren gainean bibliografia lana eratzea proposatu du. E. Knörren ustez, urriko Biltzar nagusi horretan, gizarte ikuspegia ez, hizkuntza bera aztertu behar da soilik, ahalik eremu gehienetan. Gainera,

Arantzazun, gogartetxean, 1993ko urriaren lean goizeko hamar t'erditan, bildu da Euskaltzaindia batzorde idazkariekin, Akademiaren 75. urteurreneko batzarreak eta ospakizunak prestatzeko. Aldamenean ageri diren lagunak etorri dira. Ezin etorria adierazi dute M. Azkarate, J.-L. Davant, J.M. Lekuona, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta P. Zabaleta euskaltzain osoek; P. Goenaga Gramatika batzordeko idazkar eta M. Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkariek.

Hasierako hitzak Euskaltzainburuak egin ditu, 1994ko urrian egingo den Biltzarren egitarauaren lehen zirriborroa azaltzeko, hartako izendatu zen batzordeak aurkezta bezala. Biltzarra guztiz

denbora mugatua dela esan du. Gehiengoaren iritziz, euskara batua, gramatika eta hizkuntzalaritzaren eremuak dira Biltzarrean erabili beharrak, besteak gutietsi gabe.

Jagon Sailaren proposamena irakurri du A. Urrutia idazkaria et M. Zalbidetik argibidea osatu, irakaskuntzari dagokiola, batez ere. Sailaren Jardunaldiak Bilbon, 1994ko otsailaren 25 eta 26an, egingo dira, eta euskara zuzena izango dute ardatz, nahiz jagote eginkizunaren beste alorrik bidenabar aipa daitezkeen. *Euskara zuzena* deitura hoherena den galdegin dute P. Oyharçabalek eta P. Altunak. Oraingoz horrela utziko da.

Lexikologi Jardunaldien azalpena egin du ondoren. J.A. Adurizek. Donostian, urtarrilaren 28ean egingo dira, eta atzikiaiak izango dira mintzagai nagusia.

Gramatika batzordearen asmoa aurkeztu du gero P. Altunak. Sintaxiari buruz eztabaidatzeko izango dira, batez ere, Jardunaldiak, Irufiean, martxoaren 25ean egingo direnak. Erabilera ustez okerrak aztertuko dira, batetik, eta, bestetik, euskara baturako zenbait proposamen (hala nola *arazi-ren* erregimena). Hitzaldi labur batzuk ere eskainiko dira.

Hiztegi Batuko batzordearen azalpena egin du hurrena J.A. Adurizek. Apirilaren 22 eta 23an Gasteizen, egingo ditu Jardunaldiak batzorde honek. Bost mila hitzeko hiztegia lantzea da helburu nagusia.

J.L. Lizundiak ahoskeraz eratu nahi den batzordeñoaren lana azaldu du ondoren. Maiatzean bilduko da, 27 eta 28an. Fonologi batzordeñoa izendatzea ikusi dute bilduek egokien.

Onomastika batzordearen xedeak agertu dituzte gero E. Knörrek eta J.L. Lizundiak. Exonomastiak erabateko lehentasuna emango zaio, azken lauzpabost hilabeteetan bezala. Ponte-izenen, pertsonaia historikoen izenen eta munduko leku-izenen euskarako formak arautzea izango da helburua. Jardunaldiak Miarrizten egingo dira, ekainaren 23, 24 eta 25ean. P. Altunak Hiribarrenen *Escaldunak* poeman ageri diren izen propioak aipatu ditu. Batzordea ahalik informazio gehiean lortzen saiatzen dela esan du E. Knörrek eta eskaintza eta iradokin guztiak eskertzen dituela.

Literatura batzordeari datxekola, J.M. Lekuonak agertu du haren asmo nagusia. Euskal metrikaren eskuliburua lantzen ari da aspaldisko eta Donostian, uztailaren 23, 24 eta 25ean, egingo diren Jardunaldietan, burutu nahi da.

J.L. Lizundiak esan du egutegi honetan aldaketak gerta litekeela, baina lehenbailehen guztiz finkatzea komeni dela.

Azkenik, Biltzarrari dagokion numerazioaz hitz egin du J.A. Aranak. Gerra aurreko bi biltzarrak (*Euskal egunak*) kontuan harturik orain arteko numerazioa aldatu beharko litzateke. Nahasgarri izan litekeela-ta, ordea, gauzak bertan uztea erabaki da. XIII. Biltzarra izango da, hortaz, urriko hori.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarrea.

Jean Haritschelhar,
eusklatzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

OHIZ KANPOKO BATZARREA EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENEKO OSPAKIZUNEN HASIERA

Oñatin, 1993ko urriaren 1ean

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Salaburu, P.
 San Martin, J.
 Sarasola, P.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.
 Zabaleta, P.
 Aduriz, J.A.
 Atxaga, M.
 Aurrekoetxea, G.
 Badiola, R.
 Barandiaran, G.
 Garmendia Arruabarrena, J.
 Goenaga, P.
 Goikoetxea, J.L.
 Kintana, X.
 Kortazar, J.
 Laspiur, I.
 Lizundia, J.L.
 Martin, P.
 Mujika, L.M.
 Muniategi, A.
 Oleaga, J.
 Pagola, R.M.
 Ruiz Urrestarazu, M.M.

Oñatin, unibertsitateko Max Weber aretoan, urriaren 1ean, arratsaldeko bostetan, egin du Euskaltzaindiak ohiz kanpoko batzarrea, Akademiaren 75. urteurreneko ospakizunen hasiera eta urtean barrena egingo diren Jardunaldien eta Biltzarren egitaraua aurkezteko. Aldamenean ageri diren lagunak etorri dira. Ezin etorría adierazi dute P. Charriton eta J.-L. Davant euskaltzain osoek.

Oñatiko udal txistulariek agurtu dituzte, beheko ate nagusian, etorriak. Mahaian jarri dira, Euskaltzainburua eta Idazkariaz gainera, J.A. Ardanza Euskal Herriko Autonomi Elkarteko lehendakaria; J.C. Alli Nafarroako gobernuburua; Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusia eta Angel M. Iturbe Oñatiko alkatea. Aretoan ziren bestelako agintari asko, bai eta kultur erakunde eta elkarte batzuen ordezkariek, hala nola Eusko Ikaskuntzako burua den Gregorio Montreal Zia, halaber euskaltzale eta entzule anitz. Euskaltzaindaren langile gehienak ere etorri dira.

Uribarren, P.
Urkijo, I.
Urrutia, A.
Zalbide, M.
Zearreta, J.J.
sortu zirela gogoratu.

Lehendabizi, Oñatiko alkateek egin ditu ongi etorri hitzak. Ekitaldi hau Oñatiarentzat ohore handia dela esan du, eta herrian Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia

Ondoren, Euskaltzainburuak bere hitzaldia, "Urritik urrira... urrats bat gehiago" zeritzana, irakurri du. Bertan Akademiaren lanen berri eman du, azken urteotako fruituak bereziki aipatuz, eta aginte publikoen lagunza eskertu.

Hurrena, E. Knörrrek Jardunaldien eta Biltzarraren egitaraua, goizeko bilkuaran onartua, azaldu du banan-banan.

Ondoren, E. Galdosek hitz egin du, Euskaltzaindiari dagokion gidaritzaz, euskara batuari dagokiola.

Gero, J.A. Allik Nafarroak Euskaltzaindiaren sortzetik beretik nola lagundu duen aditzera eman du.

Azkenik, J.A. Ardanazk euskararen geroan Euskaltzaindiak duen toki gaarrantzitsua agertu du bere hitzetan eta bizi luze emankorra opa dio Akademiari.

Ekitaldia bukatutik, ahamen bat eskaini da guztientzat unibertsitateko kalostrean.

Jean Haritschelhar,
eusklatzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

Bilbon, 1993ko urriaren 29an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charriton, P.
 Davant, J.-L.
 Irigoyen, A.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Salaburu, P.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.
 Lizundia, J.L., idazkariordea
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea
 Badiola, R., argitalpen eragilea
 jakinarazi du. P. Charritonek egingo du hurrengo batzarreren batean zenduari buruzko txostena.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1993ko urriaren 29an, goizeko hamarrak eta erditan, bildu da Euskaltzaindia, aldañeneko lerrokanan aipatzen diren lagunak bertan zirela. Ezin etorria adierazi dute A.M. Labaienek, Tx. Peillenek, J. San Martinek, P. Zabaletak eta A. Zavalak.

Agiriak

Iraileko bi agiriak onartu dira, zuzenketa batzuk egin ondoren.

Barne gaiak

Euskaltzainburuak Paul Gulsou apaiz eta euskaltzain ur-gazlea Parisen hil berri dela

Erregelak

Euskaltzaindiaren Erregelen azterketari ekin diote ondoren bilduek, aurreko batzarreetan bezala, hain zuzen ere *Euskaltzainak* deritzan ataleko bigarren artikuluaz. Kideen kopurutik zein behar diren hautatu, batetik, euskalki eta probintzien arabera, eta, bestetik, zein irizpide horretatik landa izan da gaia. Azken honi dagokiola, guztia agertu dira herenaren alde. Zailago irudi du hautagaiak euskalki eta probintzieta egozteak, eta areago egungo egunean. Batzuen ustez, hobe da hori ez zehaztea. Beste batzuek, berriz, guztiz komenigarria dela esan dute. Lurralte bakoitzari zenbat kide legozkioreen mintzatu dira gero euskaltzainak. J.M. Satrustegik Nafarroako kopurua hirutatik murritz ez dadin eskatu du. Hiztunen zentsua kontuan hartzea proposatu du E. Knörrek. Euskaltzainburuak honako proposamen hau egin du, oraingo kideak euskalki eta probintzieta atxiki-tzeari buruz:

Bizkaiera: J.A. Arana, A. Irigoyen, L. Villasante.

Gipuzkera: P. Altuna, A.M. Labaien, I. Sarasola.

Goinafarrera: P. Ondarra, J.M. Satrustegi, P. Zabaleta.

Nafar-lapurtera: P. Charritton, X. Diharce, E. Larre.

Zuberera: J.-L. Davant.

Araba: E. Knörr.

Sail lokabea beste hau litzateke: Tx. Peillen, J. Haritschelhar, B. Oyharçabal, M. Azkarate, A. Zavala, J.M. Lekuona, P. Salaburu, F. Krutwig, J. San Martin.

I. Sarasolak esan du agian gehiengoaren irizpidea kendu behar dela. J.M. Satrustegiren iritziz, hobe da administrazio mugak aipatzea. Euskalki edo probintzi irizpideetan koska gutxien duena euskalkiena da, E. Knörren ustez, egungo egunen haurrak maiz gurasoen etxetik urrunsko sortzen baitira, besteak beste. B. Oyharçabalek esan du gizartea bizkor aldatzten ari dela eta bakoitzak esan behar duela nongotzat duen bere burua, eta P. Altunak aldian-aldian behar dela erabaki. Azkenean, euskalki eta probintzietara egotziriko hamalauak finkatzea, goian apatu bezala, eta gainerakoa hurrengorako uztea erabaki da.

Argitalpenak deritzan atalaz mintzatu dira hurrena batzartuak. Hirugarren artikuluun gainean P. Ondarrak idatziz adierazi duena kontuan hartuaz, “diru finantzabiadeari buruzko segurtamen irizpen” ezarriko da. Artikulu beraz Euskaltzaindiaren batzorde parekideko langileen proposamena irakurri da. Argitalpen eragilearen betebeharra sartzea eskatu dute. Horrela onartu da. *In voce* proposamen bat egin da eta lehen parrofaoren azken aldea horrela erabaki da: ...“baina xehetasunak Argitalpen eragilearen esku geldituko da, Euskaltzainburua, egilea edo bildumako arduradunarekin batera”. Bosgarren artikuluan “Euskaltzaindiak bere izenean argitaratzen dituen lan guztien jabego osoa” izango da testua. Gainerako artikuluak Zuzendaritzak aurkeztu bezala onetsi dira, idazkera konturen bat izan ezik.

Ahoskera batzordea

Eratu behar zen ahoskera batzordeari datxekola, Euskaltzainburuak Zuzendaritzaren proposamena irakurri du. Zenbait izen gehitu ondoren, honela erabaki da: P. Altuna (buru), I. Gaminde (idazkari), J.L. Alvarez Enparantza, P. Esnal, J. Manuel Etxebarria, P. Etxeberria, J.I. Hualde, L. Oñederra, R.M. Pagola eta X. Videgain.

Eskuartekoak

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzaz urteoro antolatzen duen Literatur Sariketarako epaimahaiak onartu dira. Hona zein izango diren kideak sail bakoitzean:

Txomin Agirre eleberri sarian: Felipe Juaristi, Ana Toledo eta A. Urretavizcaya.

Toribio Alzaga antzerki sarian: E. Arozena, D. Landart eta P. Urkizu.

Mikel Zarate saiakera sarian: B. Gandiaga, M. Lasa eta J.M. Lekuona.

J.-L. Davantek aurkeztu ditu Nekazaritza Hiztegian sortu diren zalantzak. Hurrengo batzarrean ikertuko dira. Oharrak azaroaren 20a baino lehen igorriko dira egoitzara zein ordezkaritzetara.

J.A. Aranak Azkue Bibliotekan urrian sartu diren argitalpenen katalogoa banatu du.

Eusebio Erkiaga zenaren hutsunea hornitzeko bozketa

Ondoren, Eusebio Erkiaga euskaltzainak utzi hutsunea betetzeko bozketa egin da. Prokurazio botoak hauek izan dira: A.M. Labaien eta J. San Martinena L. Villasantek; P. Zabaletarena J.A. Aranak; Tx. Peillenena P. Charritonek, eta A. Zavalarena J.M. Lekuonak. Bi ziren hautagaiak: B. Gandiaga eta X. Kintana, epe barruan eta Arautegiak agindu gisa aurkeztuak.

Lehenbiziko bozketak honako emaitza hau izan du:

X. Kintanak	11	boto
B. Gaudiagak	10	boto
Zuri	1	

Bigarren bozketak, berriz, honako hau:

X. Kintanak	11	boto
B. Gaudiagak	11	boto

Beharrezkoa zen hirugarren bozketa egin baino lehenago, Euskaltzainburuak galdu du inork deus adierazi nahi zuen. E. Knörrek, B. Gaudiaga anitz estimatzen duela eta euskaltzain ohorezkorako proposatu beharko litzatekeela esan ondoren X. Kintanaren alde mintzatu da, Euskaltzaindiak egun dituen betekizunak kontuan harturik hori baita, haren ustez, hautagataietan egokiena. J.M. Satrustegiren iritziz, bozketa geroko uztea hobe da, erabakitzea zaila izango denez eta aurkezleetarik bat falta delarik. A. Irigoyenek X. Kintanaren alde ere hitz egin du, euskara batuaren suztatzaile dituen aspaldidaniko merezimenduengatik, beraziki.

Bozketa egin da, emaitza honekin:

X. Kintanak	12	boto
B. Gaudiaga	10	boto

X. Kintana jauna izan da hautatua, hortaz. Arautegiak agindu bezala, aditzeratza emango zaio.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarrea.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

**Bilbon, 1993ko urriaren 29an
Ageriko batzarrea**

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charriton, P.
 Davant, J.-L.
 Irigoyen, A.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Salaburu, P.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.
 Aurrekoetxea, G.
 Badiola, R.
 Barrenengoa, F.
 Eguzkitza, A.
 Etxebarria, J.M.
 Gandiaga, B.
 Gereño, X.
 Lizundia, J.L.
 Muniategi, A.
 Rotaetxe, K.
 Ruiz Urrestarazu, M.M.
 Uribarren, P.
 Urkijo, I.
 Zearreta, J.J.

lehen zerrendaren gainean zalantzak sortu direla esan du. Azkenik, E. Erkiaga zenaren hutsunea betetzeko egin den hautaketaren emaitza jakinarazi du eta X. Kintana jauna euskaltzain berria dela jendartean adierazi.

E. Erkiaga euskaltzain zenaz txostena

Ondoren, Akademiaren ohitura jarraiki, ekainean zenduriko E. Erkiaga bizkaitar euskaltzainaren bizitza eta lanak gogorazi ditu L. Villasantek. Erkiaga jau-

Bilbon, egoitzaren beheko aretoan, 1993ko urriaren 29an, eguerdiko ordubatean, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarrea, alboko lerrokadan aipatzen diren lagunak bertan zirela. A.M. Labaienek, Tx. Peillenek, J. San Martinek, P. Zabaletak eta A. Zavalak ezin etorria adierazi dute. Euskaltzain oso eta urgazleez gain, jende asko zen aretoan. Toki berezia eman zaio P. Broussain euskaltzainaren iloba den Maider de Courson andereari.

Lehendabizi, goizeko bilkuaren berri eman du Idazkariak. Erregelen berriztapenaz mintzatu ondoren, eta bereziki euskaltzainak euskalkiarren edo bizitokiaren arabera hautatzeari buruz aurrerantzean izango diren irizpideez, ahoskera batzordearen eraketa aipatu du. Gero, Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzaz urteoro antolatzen duen literatur saraketarako epaimahaikideak zein izango diren azaldu du.

Orobat, Nekazal Hiztegiaren

naren zintzotasuna eta literatura alderako jaidura nabarmendu ditu oroz gain hizlariak bere txostenean.

P. Broussainen ondarea

Egun sartu da Euskaltzaindian P. Broussain zenaren ondarea, familiak emana. Hori dela-ta, P. Charrittonek egin du hitzaldia, Broussain jaunaren bizitza eta lanaz halaber. Haren garaia, karguak eta euskara eta euskal kulturari buruzko asmoak eta ahaleginak aipatu ditu lehendabizi. Euskara bateratu beharra kezka handia zitzaiola esan du eta Euskaltzaindiak hari eta A. Campioni aginduriko txostenean Broussainek parte handiena izan zuela azaldu. Azken hitzak esker onezkoak izan dira Broussainen familiarenganako, berak tesia egin zueneko aroan eta gero ere bidea errazteagatik eta Euskaltzaindiari ondarea emateagatik.

J.A. Arana bibliotekaria mintzatu da ondoren. Paper hauen kondaira egin du eta esker ona agertu dio berebat Broussain familiari, bereziki aretoan zen Maider de Courson andereari.

Gero, J. Haritschelhar euskaltzainburuak, euskaraz eta frantsesez, esan du egun ederra zela egungoa. P. Broussainek bere mundualdian izan zituen ohoreak aipatu ditu (alkatea, kontseilaria orokorra, euskaltzaina, etab.) eta orain paper baliotsu horiek ikerleen eskumenean izango direla azpimarratu. Hark ere Maider de Courson anderearekiko esker ona agertu ondoren, Euskaltzaindiaren brontzezko domina eman dio. Dominan data eta zioa daude zizelatuak.

Azkenik, mintzaldi llabur batean, de Courson andereak eskerrak eman ditu eta pozik agertu da haren aitonak hain maite zuen Euskaltzaindiari ondarea eman ahal izanagatik.

Jean Haritschelhar,
eusklatzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

Donostian, 1993ko azaroaren 26an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charriton, P.
 Davant, J.-L.
 Diharce, X.
 Irigoyen, A.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Peillen, Tx.
 Salaburu, P.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariodea
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1993ko azaroaren 26an, bildu da Euskaltzaindia, goizeko hamarretan, aldameneko lerrokadan ageri diren lagunak bertan zirela. Ezin etorria adierazi du E. Knörr idazkariak. J.L. Lizundia idazkarioordeak bete du haren lana.

Agiria

Urriko bi agiriak onartu dira, bi zuzenketa egin ondoren.

Gai aurrekoak

Euskaltzainburuak Xabier Kintana euskaltzain oso berria, urriko batzarrean hautatua, agurtu du eta langintza emankorra opa dio. X. Kintanak bere esker ona agertu du eta langintzarako prest eta gogatsu dagoela esan. Barne erregelek agindu bezala, Idazkaritzak izendapenaren berri eman zion idatziz, osoko batzarrearen ondoan, eta berak orobat erantzun, onartzen zuela adierazteko. Sarrera hitzaldia noiz egingo den erabakizun dago.

Andoni Urrestarazu, "Umandi", arabar euskaltzalearen hil berria eman du J. Haritschelharrek. *Gramática vasca-ren* (1955) egilea, Araian, 1902an, jaoia, Gas-zeiteen hil zen azaroaren 21an. Senideei dolumina igorriko zaie.

Erregelak

Euskaltzainen herenaren kopurua finkatzea eta euskalki eta probintzietara egoztea, aurreko batzarrean erabilitako gaia, izan da lehen puntu. Hona nola erabaki den erabat:

Bizkaiera: J.A. Arana Martija, A. Irigoyen, X. Kintana, F. Krutwig, J. San Martin eta L. Villasante.

Gipuzkera: P. Altuna, M. Azkarate, A.M. Labaien, J.M. Lekuona, I. Sarasola eta A. Zavala.

Goinafarrera: P. Ondarra, P. Salaburu, J.M. Satrustegi eta P. Zabaleta.

Nafar-lapurtera: P. Charritton, X. Diharce, E. Larre, J. Haritschelhar, B. Oyharçabal eta Tx. Peillen.

Zuberera: J.-L. Davant.

Araba: E. Knörr.

Aurrerantzean, euskalkieie edo probintziei atxikitzea gutxieneko kopuru honen arabera egingo da: bizkaierak 3; gipuzkerak 3, goinafarrerak 3, nafar-lapurterak 3, zubererak 1 eta Arabak 1.

Euskaltzainetan hutsarte bat gertatzen denean, euskaltzain izateko proposamenduaaz batera, hautagaia zein euskalkiri edo herrialderi atxikitzen zaion berak adierazi beharko du lehenago. Herrialde bati horrela atxikiiek ezingo dute gainditu euskaltzainen kopuru osoaren herena.

Ondoren, P. Altunak Arantzazun, iraileko osoko batzarrean, J. Haritschelharri egin gutunean proposatu zuena, aztertu da. Hona gutunak zer zioen:

“Euskaltzainburu jauna!

Euskaltzain osoak, halako adin batera iristean, euskaltzain oso izatea *nahitaez* bertan behera utzi behar dutela ez dut uste.

Daukat halere euskaltzain osoak, hala *nahi* balu, euskaltzain oso izatea *bere oldez eta gogoz* uzteko eskua izan behar lukeela.

Hori proposatzen dut eta eskatzen, ondotik datozkigun gazteei leku egitearen”.

Proposatzaileaz gainera beste zenbait euskaltzainek hartu dute parte eztabaidan. Gaia abenduko batzarrean erabakiko da.

Euskara Batuko batzordearen erabaki proposamena

Hurrena, urriko batzarrean banaturako puntuen gainean aritu dira euskaltzainak: *-zio*, *-zione*, *-zino* eta antzeko bukaerez; *bostgarren*, *bosgarren*, *boskarren* ordinalaren idazkeraz, eta *bosna*, *bostna* banatzailarenenaz. Euskara Batuko batzordeak, aurreko egunetan eskuratu dituen oharrak kontuan harturik, erabaki proposamena aurkeztu du. Eztabaidatu ondoren, hauxe izan da onartu den go-mendioa:

— *-zio* aldaera, aho batez.

— *bosgarren* idazkeraren alde 13 boto; *bostgarren* idazkeraren alde 4 boto (A. Irigoyen, X. Kintana, F. Krutwig eta P. Ondarrarena).

— *bosna* aldaera, aho batez halaber.

Nekazaritza hiztegia

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiaren eraginez zenbait erakunde Nekazaritza hiztegia aztertzen ari da. Euskaltzaindiaren ordezkarria den J.-L. Davantek urriko osoko batzarrean aurkezturiko zalantzak izan dira

mintzagai. Hona zer gomendatuko duen Euskaltzaindiak: izen sintagman *nekazal*ala *nekazaritza* auziari dagokiola, *nekazaritza* hobestea; *nekazal-en* antzezoak her-tsiki mugatzea, bereziki berriak direnean; *mahai-mahats* eta *mahai mahats*, biak zilegi jotzea; *apikultura* eta gisako hitzez denez bezain batean, euskal ondareko hitzak erabiltzea, hots, *erlazaintza*, e.a.

Eskuartekoak

J.A. Aranak Antonio Tovar zenaren gutundegia sailkatu dela aditzera eman du. Sailkatze lana idazleka egin da eta 881 gutunak 10 artxibo kutxatan sartu. Euskaltzaindiarentzat interesgarriak diren gutunak kopiatu dira eta original guztiak abenduaren lean itzuliko zaizkio C. Larrucea alargunari. Bestalde, Azkue Bibliotekan azaroan sartu diren argitalpenen katalogoa banatu du bibliotekariak. Guztira 118 liburu dira. Gainera, esan du *Absys* informatika sistema, Azkue Bibliotekak darabilena, Euskal Autonomi Elkarteko liburutegi publiko guztietan ezartzea erabaki duela Eusko Jaurlaritzak, dituen abantailengatik.

A. Eguzkitza eta X. Videgain urgazleak Onomastika batzordearen Exonomastika lantaldekide izendatu dira, bigarrena B. Oyharçabalen ordez.

Azken ordukoak

A. Irigoyenek azken asteetako egunkarietan agerturiko auziaz, hiztegi entziklopedikoak direla-ta, bi argitaletxeen artean, eta Euskaltzaindiak haren ustez harlezakeen kalteaz gutuna irakurri du. Akademiak arazo honetan zerikusirik ez duela adieraztea eskatu du Irigoyen jaunak. Idazkariordeak Euskaltzaindiak 1990ko maiatzean hartu zuen erabakia, egungo batzar papererian sartua, gogorazi du, hots, Euskaltzaindiak ez duela inongo entziklopediaren parte hartuko, nahiz euskaltzaineik, gizabanakoak diren aldetik, hori egin ahal duten. Euskaltzainburuak esan du Lur hiztegi entziklopediaren aurkezpenera joan zen bezalaxe atzo Elhuyar hiztegi entziklopedikoarennean izan zela, bietan hizlari izaki. P. Salaburuk aditzera eman du prentsako artikulua E. Knörr, B. Oyharçabal, I. Sarasola eta berak egin zutela, Josu Zabaletarekin batera, horretarako eskubidea dutelarik. Miren Azkaratek esan du artikulu horretako zenbait puntu osoko batzarrean eztabaidatu beharko ziretekeela lehenik. J.M. Satrustegik azaldu du Lur argitaletxearen saltzaileak hiztegi entziklopediko hura Euskaltzaindiarena zela esan ziotela. Haren eta bilduriko guztien iritziz, argitaletxeari agertu behar zaio gertakari hori. Horrela egingo da, lehenago antzeko beste kasu bazuetan egin den gisa. J.A. Aranak bi hiztegietan aurkitu dituen zenbait huts aipatu ditu.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarrea.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

Bilbon, 1993ko abenduaren 17an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Davant, J.-L.
 Diharce, X.
 Irigoyen, A.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Peillen, Tx.
 Salaburu, P.
 San Martin, J.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.
 Lizundia, J.L., idazkariordea

Akademi gaietan:

Gereñio, Xabier
 Videgain, Xarles

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1993ko abenduaren 17an, goizeko hamarrak eta erditan, bildu da Euskaltzaindia, aldameneko lerrokadan ageri diren lagunak bertan zirela. Ezin etorria X. Kintanak adierazi du.

Agiria

Azaroko batzar agiria onartu da, P. Altunaren proposamendi zegokion partea ezik, bere testua hitzez hitz sartzea eskatu baitu. Hala erabaki da.

Barne gaiak

A. Irigoyenen eskariz, Tx. Peilleni zorion beroa eman zaio Baionako katedra eskuratu duelako.

J.A. Arana diruzainak aurkezturik, batzarreak onartu du aho batez Euskadiko Kutanx mailegua eskatzea, Euskaltzaindiak ordainkizun dituen kopuruak ordaindu ahal izateko. Ondoren, P. Altunak ordainketetan gertatzen diren atzerapenen berri eman ez izanagatik Gramatika batzordearen kexa azaldu du. P. Charritonek ere adierazi du egile eskubideei dagokiela atzerapenak izaten direla. A. Irigoyenek batzordeetan irakurtzen diren txostenen ordainketaz galdezu du. Tx. Peillenek esan du Dialektologi batzordeak aurkeztu proiektuaren gainean ez duela erantzunik jaso.

J.A. Aranak Euskaltzaindiaren diru larritasuna azaldu du eta aurrerantzean argibide gehiago ematea agindu. J. Haritschelharrek erakundeak diru-sarreretan dituen arazoak aipatu ditu eta Diruzaintzarengan duen uste ona eta haren lanarekiko atxikimendu osoa agertu. Bestalde, esan du Dialektologi batzordeak ez duela inolako eragozpenik biltzeko, nahiz proiektu hark aurrekonturik ez izan.

Paul Guilsou

Hurrena, P. Charritonek Paul Guilsou (1920-1993) hil berriaz bere txostena irakurri du. Euskaltzalearen eta Euskaltzaindiko urgazlearen bizitza eta lanak

azaldu ditu —sorketa literatura, itzulpenak eta erran zaharren bilketa— xehekiro. Bukatzean, J.A. Aranak esan du Azkue Bibliotekan diren egile izenik gabeko eskuizkribuak erkatu behar direla, batzuk Guilsourenak izan baitaitezke. Ildo berezik, J. San Martinek Guilsouren eskuizkribuen katalogoa eratzea eskatu du.

Erregelak

Ondoren, abenduko gaiari jarraiki, P. Altunaren proposamena aztertu da, hots, euskaltzain osoek beren tokia utzi ahal izatea. J.-L. Davantek horretarako epea finkatzea eskatu du. B. Oyharçabalek Euskaltzaindiaren onarpenak nahitaezkoia izan beharko lukeela esan du eta azken erabakia Euskaltzaindiaren esku gelditzea eskatu. J. San Martinek euskaltzain-tokiaren uztearen arrazoia eman behar dela esan du. A. Irigoyenek esan du Erregelen oraingo testuan (39. art.) ageri den *ezindurik* zehaztu behar dela. I. Sarasolaren iritziz, halakoek emerituen gisako mailara pasa beharko lukete eta boto-ahala atxiki, bestelako ohorezkoen berdinak izan gabe. J. Haritschelharrek esan du boto-ahala galdu beharko luketela, baina zerrendan *euskaltzain ohia* ager litekeela izenaren ondoan. M. Azkarateren ustez, euskaltzain oso izatea utziz gero, boto-ahala eta osoko batzarrean izateko es-kubidea galtzea hobe, baina horretarako baldintza hauek bete beharko lirateke: uztea bere oldez beharko du egin euskaltzainak; beti ere bakarka eskatzea; hiru hilabeteko epea Euskaltzaindiak onartzeko, eta baimen hau nahitaezkoa izatea.

Proposamenak urtarriko batzarrean bozkatuko dira.

Eskuartekoak

Jose Luis Lizundia idazkarioordeak 1994ko batzar egutegiaren proposamena aurkezu du. Honela erabaki da, nahiz uztailari dagokiola aldaketaren bat gerta litekeen oporrentagik edo beste arrazoi batengatik:

- Urtarrilaren 27, 28 eta 29an, Bilbon: I. Jagon Jardunaldiak (euskarra zuzenaren gainean).
- Otsailaren 25ean, Donostian: Lexikologi Jardunaldiak (eratorpenari buruzko gomendioak).
- Martxoaren 25 eta 26an, Bilbon edo Iruñean: Gramatika Jardunaldiak (juntagailuak).
- Apirilaren 29 eta 30ean, Iruñean edo Gasteizen: Hiztegi Batuko Jardunaldiak (hiztegia osatzeko irizpideak, zenbait puntu orokor eta lehen hitz zerrrenda, 7.000 hitzekoa).
- Maiatzaren 27 eta 28an, Bilbon: Ahoskeria Jardunaldiak (ahoskerari buruzko gomendioak).
- Ekainaren 23, 24 eta 25ean, Miarritzen: V. Onomastika Jardunaldiak (exonomastika).
- Uztailaren 21, 22 eta 23a, Donostian: Literatura Jardunaldiak (metrika hiztegia).

- Irailaren 2lean, Donostian: Euskaltzaindiaren osakeraren 75. urteurrenaren ospakizuna eta euskal komunikabideekin jarduna.
- Urriaren 3tik 7ra, Leioan: Euskaltzaindiaren Biltzar Nagusia.
- Azaroaren 25ean, Bilbon: batzarre arrunta.
- Abenduaren 28, 29 eta 30ean, Oiartzunen: Manuel Lekuonaren omenez, haren sortzearen mendeurrenean, III. Herri-Literatura Jardunaldiak.

Azken ordukoak

Urtarrilean, Bilbon egingo diren Jagon Jardunaldien egitaraua aurkeztu da. Gai bakarra izango dute: euskararen zuzentasuna. Akademien arteko ekitaldia ere egun horietan egingo da. Euskaltzaindiaren 75. urteurrenari, duela 25 urte Iruñean egin zen bezala.

J. San Martinek esan du tarte bat eskaini beharko litzaiokeela erdaraz mintzatzean euskal izenen erabilera okerrari, komunikabideetan, batez ere. J.L. Lizundiak azaldu du erdaraz eta euskaraz hutsak ez direla desagertzen, nahiz ahoz eta izkribuz aditzera ematen den, eta *Basurto* aipatu du (euskarra zuzenean *Basurtu*).

Kultur Ministerioan erabakitako dirulaguntzen berri, literatur sorketaren alopean, eman du E. Knörrek, Euskaltzaindiaren izenean epaimahaikide izan denak. Euskarari datxekola, bi izan dira diruz hornituriko proiektua (800.000na pezeta): A. Lertxundiren *Hilean, bizian bezala* eleberria eta G. Gomez Zubiak egindako Perrault-en ipuinen itzulpena.

M. Azkarateren galderari erantzunez, Idazkariak esan du *Lur hiztegi entziklopedikoa*-ren zuzendaria den J. Zabaletari gutuna egin diola Euskaltzainburuak, liburuak saltzean Euskaltzaindiaren izena aurrerantzean erabil ez dadin. J.M. Sastruegi argitaletxe horren zabalkunde paperetako argazkia aipatu du, zeinetan lau euskaltzain ageri dira, entziklopediaren aurkezpen batean. J. Haritschelharrek esan du euskaltzainek eskubide hori badutela eta bera berriki beste entziklopedia batzen aurkezpenean mahaian izan zela, I. Sarasolarekin batera, prentsan agertu bezala. E. Knörrek adierazi du Akademiak ezin duela denbora galdu komunikabideetan esaten dena zuzenduz, guztiz axola handiko gauza ez bada. Bestalde, esan du jende arruntak badakiela bi eremuak bereizten, eta *El libro de estilo de ABC* liburua aipatu du, zeinen hitzaurrea Espainiako Erret Akademiaren Zuzendaria idatzia da.

P. Altunak *Gramatika laburra*-ren bigarren argitaraldiaren hitzaurrea ez dela berak idatzia esan du, eta kexu agertu da Gramatika batzordearen gainetik hartzen diren erabakiengatik. P. Salaburuk, liburuaren arduradunak, aditzera eman du hitzaurre hori egitea osoko batzarrean erabaki zela, lehen argitaraldian ohar-gileen izenak agertu ez zirela-ta.

Hitanoa

X. Gereñó eta X. Videgain aretoan sartu ondoren, Euskara Batuko batzordeak prestaturiko hitanozko paradigmen lehen emaitza aurkeztu du P. Altunak.

Lehendabizi, ordea, honako honek bide berezirik eskatzen duenentz eztabaидatu da. X. Kintanak hitanorako proposamenak egingo dituen batzordearen kidea iza-tea eskatu du gutunet, abenduaren 13an. P. Charritonek eta A. Irigoienek Aditz batzordeak gaia aztertzea eskatu dute. Aditz batzordea suntsitua denez, eta honetarako batzorde bat espreski eratzea komenigarria jotzen ez delarik, beste edo-zein gai bezala ikertuko da hitanoa eta ohargile guztiei proposamenak igorriko, osoko batzarreak erabakitzeko.

P. Altunak antzinatasunaren eta hedaduraren artean hautatu beharaz hitz egin du. Forma ugaritasunaren gainetik, Euskaltzaindia ereduaren bila dabilela esan du, idatzirako, oroz egin, baina ohozko erabilerako ere, M. Azkaratek esan bezala. P. Salaburen iritziz, paradigmaz erabaki ez ezik, erabileraz zerbait esan beharko luke Euskaltzaindiak (menpeko perpausetan hitanorik ez, adibidez). B. Oyharçabalen uste, eztabaidea ongi mugarriztatu behar da. J.A. Aranak berorika ere aztertzea eskatu du. I. Sarasolak esan du berorika ez dela euskararazko eremu guztiarena. Urtarrilaren 20ko epea eman da oharrak bidaltzeko.

Ondoren, hitzaldi aretoan, Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkariak bertan zirela, orobat urgazle, euskaltzale, kazetalari eta bestelako entzule asko, Euskaltzaindiaren 1993ko literatur sarien epaia iragarri da. Lehendabizi, J. Haritschelhar euskal-tzainburua esker ona agertu dio Bilbao Bizkaia Kutxari, urte askoz gero literatur sari hauek hornitzen baititu, halaber lan hauek epaitu dituztenei eta irabazleei. Literaturak hizkuntzaren biziarentzat duen garrantzia azpimarratu ondoren, bere kezka agertu du Haritschelhar jaunak, antzerki lan bakarra aurkeztu izanagatik eta saiakera alorrean benetako saiakerarik ez baita hartu. Gero, Idazkariak iraku-ri ditu epaimahaien agiriak. Hona epaiak:

- Txomin Agirre eleberri saria: *Pedrotxo* lanari, Martin Ugalderena.
- Toribio Altzaga antzerki saria: hutsik.
- Felipe Arrese Beitia olerki saria: *Garraren eta karroiaren margoak* bildu-mari, Juan Carlos Lopez Mugartzarena.
- Mikel Zarate saiakera saria: hutsik.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

BATZAR-TXOSTENAK

1994. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN EGUTEGIA (*)

*Jose Luis Lizundia,
idazkariordea*

Urtea ia amaitzean dago eta ohi bezala Zuzendaritzatik pasa eta gaur onartu ondoren, Euskaltzaindiaren batzarrera dakart egutegiaren egitasmoa. Abiapuntu bezala, gaineratu behar dut kontutan izan ditudala berreki datoren urtean, 75. urteurrenaren ospakizunak. Gainera, honetak, erabaki batzuk hartuak ditu jadanik Euskaltzaindiak. Bestalde, ohi bezala, bibliografia zenbait arakatu ditut: *Euskera agerkaria*, Luis Villasante, Santi Onaindia, Nikolas Alzola Gerediaga, Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* eta abar.

Ondorioz, hara hor, aurkezten dizkizuedan egutegirako ildo nagusiak, hots:

1. Euskaltzaindiaren sorrerako 75. urteurrena. Esan behar da honen egitaraua urteurreneko berbera dela, irailaren 30ean eta urriaren 1ean Arantzazun egindako bilkuretan onartua. Horretarako izendaturiko batzordeak aurretiaz prestaketa egin baitzituen, gero ere garatzen jarraitu duelarik, hain zuzen urriaren 29an egoitzan eta azaroaren 26an Donostian egindako bilkuretan. Beraz, urtarriletik irailera bitartean egingo diren jardunaldi guztienetan zehaztuta eta finkatuta dago. Urriaren 3tik 7ra Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean egingo den Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrarena ere. Horregatik bada, hemen ez gara lutzatuko.

2. Euskalari, idazle eta abarretan begirada bat eman eta lehen mailako mendeurren bat bakarrik aurkitu dut: D. Manuel Lekuona euskaltzainburu izan zenaren jaiotzarena. Bigarren mailako mendeurren bi, ordea, bata, Manuel Antonio Antiarena eta bestea, Juan Domingo Unzueta Abaunzarena.

D. Manuel Lekuona Etxabeguren 1894.eko otsailaren 9an. Oiartzungo "Etxetxiki" baserrian jaio zen. Ez naiz hemen bere bizitzaz arituko, *Euskera* 1987, 2an argitaratutako irakur baitaiteke. Hori dela eta, kontuan izanik 75. urteurrena tartean dagoela, abendurako atzeratzea deliberatu

(*) 1993.XII.6an, Durangon egindako bileran Zuzendaritzak onartua

du Zuzendaritzak eta hil horren 28, 29 eta 30ean, Oiartzunen egingo dira bere omenez III. Herri Literatura Jardunaldiak Ahoskotasuna izango delarik gaia. Azken egunean, hileroko batzarren ondoren, egingo zaio Manuel Lekuonari omenaldia. (Gainera honetaz Oiartzungo alkate den Iñarra jaunarekin mintzatzeko aukera izan dugu eta prest dago behar diren laguntzak eta azpiegitura emateko).

* * *

Bigarrenekoetan, lehendabizikoa Manuel Antonio Antia Aranburu da 1894.eko Urte Berri egunean hil zena Beterriko Urnietan. Berea 1830.eko apirilaren 26an, Goierriko Urretxun jaio zen Filosofia eta Letrak Oñatiako Unibertsitatean ikasi zituen eta Teologia Iruñeko Apaizgategiak. 1854ean apaiztu eta Leitzako organista izan zen eta 1853tik hil arte Urnietako erretore. *Zeruko bide zuzena eta segurua, karmeldar debotarentzat ikasbidea. San Joseren zazpi igandeetako jayera argitaratu zuen 1867an, P. Claret-ena itzuliz. Aita Mendiburu's izeneko olerkiarekin saria irabazi zuen Oiartzunen 1882an.* 1882ko Lore Jokoetarako, berriz, *Jesu-sen laguntalden sartzeako San Luis Gonzagaren Zeruko deia*, hiru ekitaldi-tako antzerkiarekin ohorezko aipamena irabazi zuen. *Kristau izan*, 1878an argitaratu zuen. *Jesusen biotz sagraduko deboziozco liburuchoa*, berriz, 1887an. Urnietako Lore Jokoak, 1886an antolatu zituen Abbadie eta abarrekin. Tolosako artxibategian Antonio Antiaren eskuskribu bat aurkitu zen *Asisko Franzisko Santuaren bizitza* izenekoa, Leopold Charance francesaren liburutik itzulia.

* * *

3. Fray Juan Domingo Unzueta Abaunza Durangaldeko Abadiñon jaio zen 1794.eko uztailaren 7an eta Durangoko hirian hil 1870.eko apirilaren 9an. 1885ean frantziskotarra baitzen bere probintziala zen A. Estartak aita Unzueta eta aita Garteiz izendatu zituen Uriartek egindako San Alfonso Maria de Ligorioren "Visitas al Santísimo"-ren itzulpenerako. Bere eskuan egon zen baita denbora batez, Juan Antonio Mogele *Peru Abarka* liburua ere, gero, atera zena Zarauzko komentutik Durango 1881ean argitaratzeko. Juan Ruiz de Larrinagak dioenez, aita Unzueta prestatu zuen Arzadunen *Cristinaubaren doctrinaren explicasinua*. *Doandigoco berbaldiac* izeneko santuen paregiriko batzuk ere idatzi zituen. Bi liburukiok argitalpen bina izan zituzten Tolosan 1894ean eta Durango 1900ean. Idazle honek, Gerediaga Elkartearen proposamenez, Abadiñoko Matiena auzo berrian kale bat du eta bertako ikastolaren izeña ere eraman zuen.

Bi idazle hauek direla eta Zuzendaritzak proposamen hau onarten du: Manuel Antonio Antiari zerbait egiten badio Urnietako Udalak, Euskaltzaindiak parte hartuko luke, ez hileroko bilkura batekin, agian,

batzorderen bat bertan bilduz baizik, Urnieta toki ona baita Donostiatik hurbil. Badirudi, bestalde, zerbait egiteko asmotan dabiltzala, hain zuzen urtarriaren lein, urteberri egunean, J. M. Lekuona buruordeak hitzaldi bat emango du.

Fray Juan Domingo Unzueta buruz ordea, agian, zerbait egiteko asmoa hartuko du Gerediaga Kultur Elkarteak. Euskaltzaindiak ezingo luke hileroko bilkurarik antolatu, zeren eta urtea oso hartua baitu. Agian, Abadiño oso ongi komunikatua dagoenez gero —hain zuzen Untzueta baserria, seguru asko, bere jaiotetxea, Bilbo-Behobia autoestrataren ondo-ondoan dago— batzorderen bat edo ordezkaritzaren bat joango litzateke.

* * *

1994.urterako egitasmo hau izango litzateke:

- Urtarriletik urriarteko bilkurak.
- Azoroaren 25ean, hileroko batzarra Bilbon, eta,
- Abenduaren 28, 29 eta 30ean, III. Literatura Jardunaldiak, hileroko eta omenaldiko bilkurak D. Manuel Lekuonaren omenez, Oiartzunen.

* * *

75. URTEURRENA

Jardunaldien egutegia

— Urtarrialaren 27, 28 eta 29an, Bilbon, egoitzan egiteko I. Jagon Jardunaldien. Izenburu hau eramango du: Hizkuntzaren erabilpen zuzena jagotea: Euskal Herrialdeetakoak, Katalan Herrialdetakoak, Galizia-koak eta agian Herbereetakoak (Holanda eta Flandria).

— Otsailaren 25ean, Donostian egiteko Lexikologi Jardunaldiak: Eratorpenari buruzko gomendioak.

— Martxoaren 24 eta 25ean, Iruñean egiteko Gramatika Jardunaldie-n: 1. Juntagailuen lanaren inguruko eztabaida. 2. Biltzarrean aurkeztuko diren gai zerrendaren proposamena.

— Apirilaren 29 eta 30ean, Gasteizen egiteko Hiztegi Batuko Jardunaldien gaia: Hiztegi Batua osatzeko irizpideak, zenbait punto orokor eta lehen hitz zerrendaren aurkezpena (7.000 hitz).

– Maiatzaren 27 eta 28an, Bilboko egoitzan egiteko Ahoskeria Jardunaldiak: agian gaur zehaztuko dute, une honetan bilduta baitago batzordea. Izenburu hau eramango du: “Euskal Ahoskerari buruzko zenbait gomendio”.

– Ekainaren 23, 24 eta 25 ean, Miarrizten egiteko diren V. Onomasatika Jardunaldiak: Exonomastika: kanpoko jatorriko izenak, hots, exotoponimoak eta exoantropónimia historikoak.

– Uztailaren 21, 22 eta 23an, egingo diren Literatura Jardunaldiak: Metrikaren kontzeptu nagusiak euskal ikuspegitik begiratuta: bertsio, letrroa, puntuak, modulu metrikoak. Euskal metrikako izendegi batua.

– Irailaren 21ean, Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioan egingo denean: Euskaltzaindiaren osakerako 75. urtearen ospakizuna eta euskal komunikabideekin jarduna.

* * *

XIII. BILTZARRA

– Urriaren 3tik 7ra 75.urteurrenenaren ospakizun-amaiera Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako Campusean, urtean zehar egindako Jardunaldiak erabilitako gaien eztabaidea eta ondorioztatzea.

EL EUSKERA EN EL VALLE DE CIGOITIA (ALAVA)

1993.XI.29

Jose Garmendia Arruebarrena

Quizá el título que encabeza estas líneas no responda a su contenido más que al final. Vaya esta advertencia como aviso premonitorio al lector. Pero antes nos vemos obligados a enmarcar el cuadro sobre expresiones vascas que hemos hallado en el Archivo General de Indias (Sevilla) y que se refieren al valle alavés mencionado. Archivo éste, como más de una vez nos decía su Director durante muchos años, amigo y venerado maestro, vallisoletano, D. José M.^a de la Peña y Cámara, “venero documental que dista muchísimo de haberse agotado y en el que los investigadores tienen aún campos prácticamente ilimitados”. Por tanto, inabarcable e inagotable.

Conocida es la enorme masa documental que alberga dicho archivo. Se calcula en unos seis millones de documentos en más de 42.000 legajos, distribuidos en unas 18 secciones. Secciones que abarcan desde 295 legajos como *Patronato Real* (años 1480-1790), pasando por la de *Consulados* con 2.588 legajos (años 1543-1857) como de la sección de *Gobierno* con 18.422 (años 1492-1854). Puede suponer el lector que en esos millares de legajos saltan temas sobre el País Vasco, y de la más diversa índole, que ni son conocidos ni han sido abordados, bien en el aspecto individual de personajes que llegaron a destacar en muy diversas instituciones, bien en aspectos colectivos. ¡Cuántos vascos aún sin estudiar y cuyas biografías permanecen ocultas en abundantísimas fuentes! ¡Cuántos otros de aspecto colectivo, aunque algunos son conocidos como la guerra entre vicuñas y vascongados, la Compañía de Caracas, encargo de armas a las fábricas de Vizcaya, embarco de tropas en San Sebastián, encargo de fabricación de navíos, etc., etc.

Hace mucho que, en busca de diversos temas y personajes vascos, nos ha acompañado ese soterrado y constante afán de dar con escritos en euskera. Los hallamos en latín, francés, inglés, etc. Ahora bien, no hemos tenido la fortuna que tuvo el profesor Enrique Otte, quien dio con una carta en vascuence del primer obispo y arzobispo de México,

Fray Juan de Zumárraga. Se trata de una copia (sección de Justicia, leg. 1.011, n.^o 2 R2). Está escrita el 15 de febrero de 1537, ocho años antes de la publicación en Burdeos en 1545 del primer libro impreso en vascuence, de Bernart Etxepare y publicado en esta misma revista (1).

Decíamos que hasta ahora no hemos tenido esa suerte, ni en los legajos de correspondencia con los Jueces de Arribadas de San Sebastián (2) (aunque quizá habría que revisar más a fondo de lo que hicimos) ni en todos —y no son pocos— tratan de la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas, como en otros de otras secciones. Hay secciones que pueden ofrecer sorpresas por lo variado de temas que abarcan, como es la de *Indiferente General*, en uno de cuyos legajos dimos con muchos folios sobre méritos y servicios del Lzd.^o Andrés de Poza. Son muchísimos los legajos que habría que ver en esa sección (3), así como en la de *Ultramar*, 880 legajos desde los años 1605-1870, por desgracia sección dividida entre Sevilla y Madrid.

Por su mayor presencia de vascos en Chile, México, Buenos Aires (Argentina), en legajos referentes a estas naciones, podría saltar la liebre. En una correspondencia en la Audiencia de Buenos Aires dimos con algunas expresiones, por indicación del gran historiador Mari Luz Urquijo.

La sección que más hemos manejado nosotros es la de *Consulados*, muy rica en cuanto al número y actividades comerciales de los vascos. Aún sin editar, confeccionamos *Guía de los vascos en el Archivo General de Indias* (Sevilla), dividido en dos partes. En el primero, van los inventarios con su explicación de cada sección, años, número de legajos, etc.; el segundo, es un índice unificado de los vascos que aparecen en los inventarios de las diversas secciones. Son en total, en este segundo volumen, unos 6.000 vascos con indicación de año, sección y número de legajos, lo que mucho puede servir un día a los investigadores, ya que no hay índices impresos, y sí solamente cuadernos escritos a mano y muchas veces borrados por el continuo uso.

Bien. La sección de *Consulados* es rica en cuanto a la correspondencia comercial o de amistad. Ya publicamos en su día, en el *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, estudios y noti-

(1) Véase en *Euskera* XXVI (2, aldia, 1981, 1-6 Bilbo, pp. 5-15) titulado “Nuevo y más extenso texto arcaico vasco: de una carta del primer obispo de México, Fray Juan de Zumárraga”.

(2) Legajos 2.406, 2.407 y 2.408, de *Indiferente General*.

(3) Es una de las secciones mayores y más interesantes del Archivo que comprende asuntos de toda índole y carácter, casi siempre de la máxima importancia. Está integrado por los papeles más diversos y procedentes de diversos lugares.

cias de remitentes de cartas en cuanto a la familia mutrikuarra de los Ibarburu y Galdona, la del vizcaíno de Elorrio y maestro de ceremonias de la catedral sevillana (personaje importante Adrián de Elosu) y la del alavés Tomás Ruiz de Apodaca.

Sólo encontramos, en cuanto a los Ibarburu y Galdona, algunas expresiones o palabras. La correspondencia epistolar dirigida a los diversos Ibarburu y Galdona es copiosísima (4). A veces de amigos, y otras muchas, comercial. Son millares de cartas (5). Pues bien, sólo encontramos expresiones o palabras como *alabac*, *laztanes*, *agur*, *goraintzis*, etc. (Cartas de Clara de Mizquía Ibarburu a su hijo Andrés de Ibarburu desde Motrico en fecha 24 de octubre de 1687, legajo 143, sección de *Consulados*).

Lorenzo Ignacio de Ibarburu, en carta a su tío Andrés, maestro-esuela de la iglesia catedral de Sevilla, desde Motrico y en fecha 8 de octubre de 1687, con motivo de su toma de hábito, con cuyo motivo había ido a Motrico, traslada unas líneas en euskera que no llegamos a descifrar bien. Dice así el texto: "El Domingo dançamos Balthasar y yo y andubimos por todas las calles, anoche tambien dançamos en el portal cantadanza y Rubio dansó tambiéñ y cantaba *Bart cure besoan naiçu rai-bere nazan*, y daba unas bueltas, que hacía reir a toda la gente" (leg. 408 de *Consulados*).

También desde Motrico, en 14 de octubre de 1682, Pedro Galdona escribe "Reciba de Goicoechea mil *goraintzis*" (leg. id. 406). Unos años más tarde, el mismo y desde el mismo lugar, fecha 25 de agosto de 1685, escribe "... acabados de venir de unas fiestas donde se ha hecho lo que se ha podido por la vida", envía sus finas memorias al amigo Domingo de Urbizu (caballero de Santiago y con uno de los cargos más importantes en la Casa de la Contratación de Sevilla) que por no ofrecerse cosa particular no le he escrito. A todos los demás amigos mis *goraincis*" (leg. 406, id.).

Tampoco son ni muchas ni variadas las palabras en euskera en la abundante correspondencia a Adrián de Elosu (6). Desde Elorrio, fecha 9 de junio de 1686, Domingo de Gaztañaga le saluda con un *agur jauna* (leg. 406). Desde Sanlúcar de Barrameda, en 19 de mayo de 1688, Juan

(4) Legajos 86 (a Andrés de Ibarburu), 93, 505-511, 1.207 y 1.214, se entiende en la sección de *Consulados*.

(5) Calculamos en unas 10.000 cartas. Ver nuestros estudios en *BAP* "Los Ibarburu y Galdona, de Motrico", cuadernos 1.^º y 2.^º, año 1979, pp. 279-283 y "Correspondencia Ibarburu y Galdona", id. cuadernos 1.^º y 2.^º, 1985, pp. 367-372.

(6) Publicamos nosotros un amplio estudio basado en la correspondencia de Pedro de Elosu en *BAP*.

de Urbizu (hermano del anterior?) le escribe: “Enhorabuena que se haya ido el bendito Arrue. *Agur*” (Arrue era un poderoso comerciante con las Indias) (leg. 406). Juan Bt.^a de Barraicua y Asua, que figura mucho en diversos cargos en la Congregación de los Vizcaynos en Sevilla, desde Cádiz, el 26 de enero de 1690, le escribe *agur jauna* (leg. 406). Desde Guatemala, su hermano Pedro de Elosu, el 4 de junio de 1689 le dice que la *ama* está bien (leg. 406).

Juan de Urbizu, esta vez desde Cádiz y en fecha 9 de diciembre de 1688, envía “para Pedro Galdona, Serria, Ysasi, Sarria, Coloma, Ansoregui y demás amigos muchos *goraincis*, y después de notificarle que el Almirante Gasadevante (natural de Fuenterrabía) le había pedido unos libros, termina la carta con un *agur*”. Lo que sí me cabe es pensar que, dada la solidaridad, el numeroso grupo de vascos en Sevilla, ya desde mediados del siglo XVI y más en los últimos cincuenta años del XVII, hablarían en vascuence en las numerosas reuniones o tertulias que celebraban. Pero lo que han dejado escrito, aunque habría que revisar más a fondo esta aludida correspondencia, no ha sido mucha.

Quizá haya parecido demasiado larga esta introducción. Pero la juzgábamos necesaria para entender de modo debido lo que ahora viene y que comienza a responder al título de este trabajo: “el Euskera en el valle de Cigoitia (Alava)”. Digamos que no se trata de un estudio sobre la situación del euskera allí en otros tiempos aunque alguna alusión haremos.

Demos antes algunas noticias sobre Tomás Ruiz de Apodaca (1702-1767). Nacido en Manurga, en cuya correspondencia hallamos algunas expresiones en euskera. Marchó a Cádiz a sus 14 años, con una buena instrucción en cuanto a escribir y cuentas. Viajó 11 veces a Veracruz. Fue maestre en sus primeros tiempos. Sufrió dos naufragios. Comerció por tanto intensamente. A la muerte de Andrés Martínez de Murguía, sin duda su protector, también de Manurga, y fallecido el año 1732 en Cádiz, de cuyo barco fueron propietarios a medias Julián Martínez, también de Manurga, hasta que por su muerte, quedó Tomás en dueño del navío Ntra. Sr.^a de la Concepción y Santo Domingo, alias llamado el Halcón.

Casó a sus 40 años con M.^a Eusebia de Eliza Lasquetti. Su padre, de San Sebastián, comerciante también, caballero de Santiago, y Prior de la Cofradía vasca del Stmo. Cristo de la Humildad y Paciencia, falleció a sus 45 años. Los Lasquetti, de procedencia italiana, eran también comerciantes con Indias. Tomás Ruiz de Apodaca es un gran alavés, lleno de cualidades y virtudes, que ha sido completamente ignorado, no sólo en su lugar natal, sino en Vitoria/Gasteiz, en donde ninguna publi-

cación, inventario o repertorio apunta su nombre. Ha podido ser rescatado del olvido y del desconocimiento gracias a más de 18 legajos de carácter privado, con unas 2.000 cartas, diarios, cuentas del barco, comerciales llegados, por caminos desconocidos, al Archivo de Indias, en donde se hallan depositados. Falleció en Veracruz en 1767 (año de la ley del extrañamiento de los Jesuitas por Carlos III). Hombre activo, serio, responsable, religioso, etc. fue padre de ilustres hijos: Sebastián, Almirante de la Armada, Juan, conde del Venadito, prácticamente el último Virrey de Nueva España, y de otros hijos que alcanzaron las mayores graduaciones en la marina española.

Ya hemos dicho que nació en Manurga, “lugar” como se suele llamar en estas pequeñas poblaciones de reducidos habitantes. No llegaba en 1700 a más de 250 habitantes, con unas cincuenta casas y una casa palaciega de muy buena factura con una iglesia monumental, que quería ser la catedral de Cigoitia. Se halla ubicado en las faldas del Gorbea, a unos 15 km. de Vitoria/Gasteiz. Desde su cerro, azotado por el viento frío que desciende de las alturas del Gorbea, se puede apreciar un bello panorama del valle con multitud de pueblos.

Por la proximidad con Vizcaya, ya que su término confinaba al norte con Ceánuri. ¿Qué sabemos hoy en día de las redes y comunicaciones que frecuentaban estos pueblos? Por ejemplo, la madre del amigo y copropietario del navío en Cádiz, Julián Martínez, en su testamento del 3.X.1727 encarga seis misas en el convento de Aránzazu, a razón de 3 reales por cada una. Es más que seguro que sus habitantes hablaran el euskera o vascuence. Allí, hace unos cuantos años confirmamos muchos datos sobre el vascuence de sus antepasados, abuelos o bisabuelos.

Según un manuscrito de Prestamero “hablan el idioma vascongado muchos pueblos de la Vicaría de Vitoria..., los de Cigoitia y Zuya” (7).

Entre las zonas de lengua vasca, según el testimonio de Luis Luciano Bonaparte, sobrino de Napoleón I y primo carnal de Napoleón III, se contaba Cigoitia con mayoría euskaldún en Echagüen, Murua, Manurga, Larinea, Gopegui, Ondátegui, Olano, Acosta, Cestafe y Eribe.

Algunas pruebas encontramos en la correspondencia dirigida a Tomás. Desde Cádiz, el 17 de mayo de 1740, Juan Felipe de Ansa se despide de Tomás con un *agur* (8). Su amigo y emparentado Gregorio de Vildosola, gobernador de Sinaloa (Méjico), escribiéndole el año 1742 le da trato de *jauna* (señor), o cuando lo hace a varios, incluyendo entre

(7) *Pueblos de Alava por Vicarías, repartidos sus vecinos en cinco clases.*

(8) Archivo General de Indias (AGI), Consulados 398,

ellos a Tomás, de *jaunak* (señores) (9). Miguel de Apodaca, desde Guanajuato el 26 de mayo de 1747, le da a Tomás el trato de *jauna*, encogiéndose al arcediano, Zubiegui y otros amigos.

Domingo de Buruaga, en fecha 8 de agosto de 1747 desde México, se despide de Apodaca con un *zeure beti herritarra* (su paisano siempre) (10). Desde Manurga, le escribe su sobrino y capellán Pedro Francisco Ruiz de Apodaca: “Paso a participarle cómo acabo de enviar a manos de D. Francisco Antonio de Elejalde que se mantiene en la corte... los papeles necesarios para la presentación del memorial”. En la memoria de sus estudios recuerda haber estudiado con bastantes fundamentos la gramática latina, saber la lengua bascongada y traducir la francesa.

Por cierto fue coadjutor en Bilbao, en la parroquia de Begoña, y dice predicar allí en vascuence, porque el párroco no lo sabía.

El capitán de fragata “su más apasionado seguro servidor y paisano Joseph de Sapiain, a bordo del navío Reina, el 20 de octubre de 1659, comienza de este modo la carta: *Nere D. Tomás maitea*” (11).

Recojamos lo que su sobrino Pedro le escribía desde Begoña el 18 de febrero de 1765: “... tres o cuatro domingos ha que empecé a explicar la Doctrina Cristiana en esta iglesia en el vizcaíno, porque el cura mayor no está ducho en este idioma” (12). Y para terminar con esta gavilla de testimonios, que sin duda se podría multiplicar, citemos el de Fray Miguel Antonio de Urbina el 19 de febrero de 1764: “*Y agur* hasta el valle de Josafat en este de San Buenaventura (convento) de Sevilla” (13).

¿Se concibe que se expresaran de este modo a Tomás Ruiz de Apodaca, sin que conociera o hablara el euskera? Sabiendo el profundo y constante amor de Tomás a Manurga, su sentido de familia y sus recuerdos de la infancia, no es posible concebir que no supiera el euskera (14).

(9) Id. id. 398.

(10) Id. id. 398.

(11) Id. id. 400.

(12) Id. id. 400.

(13) Id. id. 400.

(14) El lector puede consultar nuestra obra *Tomás Ruiz de Apodaca, un comerciante alavés con Indias (1702-1767)*. Editado por la Diputación Foral de Álava, año 1990, p. 399.

ONOMASTIKA

HUARTE/UHARTE

Udal diktamena:

Sr. Alcalde

Mikel Gorrotxategi Nieto secretario de la comisión de Onomástica de Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

Certifica:

Que esta comisión, en su sesión de octubre, entre otros temas, ha tomado, entre otras, la siguiente resolución:

“1.1.6. Se procede a la lectura de la petición realizada por el ayuntamiento de Huarte relativa al cambio de nombre por el de Uharte. La comisión encomienda al miembro de la misma y profesor de la Universidad Pública de Navarra, P. Salaberri la realización del dictamen que goza del visto bueno de la comisión.”

Adjunto le envío el dictamen realizado por Patxi Salaberri, en caso de desear alguna aclaración posterior no dude en ponerse en contacto con esta comisión. Atentamente se despide,

Mikel Gorrotxategi Nieto

12.XI.1993

HUARTE / UHARTE DELA ETA

Uarte izena oso arrunta de euskal toponimian, eta bere etimologiak ez du arazorik sortzen: osagaiaiak *ur* “agua, riachuelo, río...” izenaren elkarketako aldaera den *u-* eta *arte* “bitarte” dira, eta jatorrizko adiera “bi uren bitarteko eremua”, hots, “bi erreken edo bi ibairen (edo erreka bat-en eta ibai baten) tarte” da, erdarazko *Ambasaguas*, *Entrambasaguas*, *Entredosaguas*, *Trambasaguas*, *Tramasaguas* eta besteren kide delarik.

Euskaraz *Uarte*, *Ubitarte*, *Errekabitarte*, *U (r)bieta* aurkitzen ditugu, bestek beste.

Uarte-ren ondoan arrunta ohi da *Ugarte* aldaera, *ug-* ere *ur-en* elkarteko aldaera baita, eta adibidez Iruñe ondoko *Uharte*-ri inguruko herrietan oraindik ere *Ugarte* esaten zaio, XI. mendean bezala (1). Kasu honetan *Uharte* izena herria Arga eta Urbi ugaldeen artean egotearen ondorea da. Arakil ibarreko *Uharte* herriak ere izena San Bartolome errekaren eta Arakil ugaldearen artean kokatua izatetik hartzen du, eta honi ere inguruko herri batzuetan oraindik *Ugarte* esaten diote (dokumentazioan ere arrunta da aldaera hau, Rafael Carasatorrek gaztigatu dugunez).

Toponimian ongi ikusten den bezala, jatorriz *ugV* (alegia, *ug-* + bokala) zuten hainbat leku-izenek *ubV* dute orain, beharbada *u* ezpaina-riaren eraginez. Hau oso garbi ikusten da *Ugarte* } *Ubarre*, *Uberte* (bokal-armoniaz), } *Ubaran*, *Uberan* (bokal-armoniaz), } *Ubarka*, *Uberka...* eta irudiko beste hainbat toponimotan (*ubarka* izen arrunta ere bada), eta mintzagai dugun herri-izanaren kasuan ere garbi azaltzen da, inguruko herri batzuetan *Uberte* esaten baitzaio. Tarteko *-b-* hori hiatoa segurtatzeko soinua izan liteke (cf. *suberte* izen arrunta } *suerte*), baina egiantz handiagoa du oraindik bizirik dagoen *-g-* horren ordezketat jotzeak. Hau da, oraingo *Uberte* bizirik ere dagoen *Ugarte*-tik atera izanen da, *ubarka*, *uberka* aurreko *ugarka* batetik atera den era berean (cf., gainera, Arakilen bertan dagoen *Zuhatzu*, *Zuga(t)zu* eta *Zubetzu* inguruko herrietan, *zuhaitz* + *-zu-tik*).

Grafiari dagokionez, esan beharra dago erdaraz idazterakoan anarkia handi samarra edireten dugula dokumentazioan, *h-ak*, eta batez ere hasierakoak, aski kendu-utzizkoak direlarik, alegia, notariak gogoak eman arabera jartzen edo kentzen du *h* letra maiz. Guztiarekin ere, eta *Uarte*-ren kasuan, betelako arrazoia ere bazen hitz hasieran *h-* idazteko: *horrela* egin ezean, *Uarte* (*Varte* ere idatzia seguru asko) *Barte* irakur baitzitekeen, erromantzez ezpainhorzkari ahostunaren galtzea zaharra izaiki (2). Hortaz, eta seguraski, erdarazko *Huarte*-ren hasierako *h-* letraren iturbua *Uarte* [uárte] irakurri behar zela (eta ez *Barte*) adierazi nahian bilatu beharko dugu.

Uharte formari dagokionez, gogoratu beharra dago Euskal Herrian barrena bat baino gehiago direla izen honetako herriak (eta auzoak. Cf. Lekarozko *Uharte*). Nafarroa Beherean bi ditugu: *Amikuze-Uharte* (*Uhart-Mixe* frantsesez, *Uharte*, *Uhartiri* euskaraz), eta *Garazi-Uharte* (*Uhart-Cize*

(1) Ikus *Nafarroako toponimia eta mapagintza-l*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1992.

(2) Ikus Alarcos Llorach-en *Fonología Española*, Gredos, Madril, 1991, 254, or. eta hurrengoak.

frantsesez) (3). *Kasu hauetan tarteko –h– hori (uh- ur-en elkarketako bes-te aldaera bat da) soinu hasperendua da, hasperenketa bertan oraindik ere bizirik baitago, oso goiz galdu zen Nafarroa Garaian ez bezala.*

Hortaz, garbi ageri da, alde batetik, Nafarroako *Uarte* [uárte] ofizialak (grafiak grafia) *Ugarte* eta *Uberte* aldaerak dituela, eta bestetik, hauek Iparraldeko *Uharte* [uhárte]-ren kide zehatzak direla. Beraz, eta Nafarroa Behereko [h] soinua emateko *h* grafema ibiltzen badugu, aise ulertzen da soinu hasperendu horren kide hurbila den Nafarroa Garaiko [y] edo [ø] horien orden Euskaltzaindiak *h* aukeratu izana.

Gogoan izan behar da Akademiak erabakiak hartzeko oruan *Euskal Herria bere osotasunean hartzentzela aintzat*, eta Arakilgo herriaren kasuan ere horrela egin zuela, Nafarroa Behereko herrien izenetan arrunta den grafema (hotsean oinarritua dagoena, esan bezala) Nafarroa Garaiko herrien izenetan ere sartu zuelarik, hemen aspaldidianik μ nahiz $-g-$ ($-b-$ berriagoa bide da, esan bezala, eta azken honetatik aterea) badugu ere.

Patxi Salaberri,
Onomastika batzordekidea

(3) Ikus Jean-Baptiste Orpustanen *Toponymie Basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele, 1990, 52. eta 123. orr.

EL NOMBRE *IZKI*

José Antonio González Salazar

DICTAMEN DE LA COMISION DE ONOMASTICA SOBRE EL NOMBRE *IZKI*

En nombres de amplio uso, y en particular en el de la Asociación de Agricultura de Montaña, ha comenzado a verse la forma *Izkiz*, terminada en z. Otros proyectos, de mayor o menor inmediatez, emplearán y propagarán el nombre, en que hay que procurar la forma correcta.

La Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia desea poner en conocimiento de todos que la única forma correcta es *Izki*.

— Los habitantes de esa comarca así lo denominan (sin z final).

— Así lo nominaban cuando hablaban euskera como nos recuerda el topónimo de Arlucea *Izquibidia*, “camino de Izqui” (1).

— Esto último lo confirma otro topónimo histórico de Arlucea de fines del siglo XVIII: *Izquibidea*. Junto a éste aparecen otros como *Apinibidea*, “El camino de Apellaniz”, y *Markizpidea*, “el camino de Marquinez”, en los que sí ponen la Z como corresponde a los lugares de referencia, mientras que *Izki* va sin Z (2).

— De esta misma forma aparece en la documentación histórica:

• Año 1182: El Rey de Navarra Sancho el Sabio; Carta Puebla de Bernedo... “...San Cristobal de Hizqui...” (3).

• Año 1256: El Rey de Castilla D. Alonso X; Privilegio dado a Sta. Cruz de Campezo: “...ademas de estos terminos le dio a Izqui...” (4).

(1) *Cuadernos de Toponimia*, n.º 2. José Antonio González Salazar. Ed. Diputación Foral de Alava.

(2) Archivo Histórico Provincial de Alava. Protocolo n.º 9389, año 1788. Esn.º de Maestu: Santiago López de Mezquia, fols. 156 y 218.

(3) *800 Aniversario de los Fueros de Población de Bernedo y Antoñana*. Diputación Foral de Alava. Vitoria, 1983.

(4) *Historia de Alava. Ciudad y Villas*. Joaquín José Landazuri. Ed. Diputación Foral de Alava. Vitoria, 1926, p. 232.

- Año 1342: El Tribunal Eclesiástico de Calahorra; Sentencia entre Bernedo y Lagrán sobre S. Pedro: "...Villaverde tierra de Izqui..." (5).

– En la Iglesia de Verarte se guarda el archivo de la comunidad del monte de Izqui de Arriba. Hay documentación desde 1602 hasta nuestro siglo. En ninguna ocasión aparece la Z final en las numerosísimas transcripciones de Izqui. Lo mismo se puede decir de la documentación generada por los escribanos correspondientes a la comunidad de Izqui de Abajo (Apellaniz y Maestu, entre otros).

(5) Archivo Municipal de Bernedo. Legajo n.º 39.

GUTUNDEGIA

ANTONIO TOVAR EUSKALARIAREN OROIPENA ETA HAREN ALARGUNAK EUSKALTZAINDIARI EMANDAKO EUSKAL LIBURUTEGIA

*Jose Antonio Arana Martija,
euskaltzaina - bibliotekaria*

Antonio Tovar Llorente euskalaria Madrilen hil zenean (1985.12.14) “Antonio Tovar oroitzapenetan” izeneko nekrologia idatzi zuen Koldo Mitxelenak eta *Euskera* agerkarian argitaratu zen (1). Hurbiletik eta iker-kuntza munduan ondo ezagutu zuen gure euskaltzain erreenteriarrok, hizkuntzalari eta euskalariaren ikuspegitik aztertu zuen lan horretan Tovar jaunaren jarraia eta nolabaiteko emaitza, hark egiten zuen bezala, maisuki eginaz gainera. Baina Euskaltzaindiarentzat, eta euskararen ikerketetarako, hain zuzen, garrantzitsua izan bazen euskalari honen lana, gizalege aldetik estimatua eta, gehiago esango nuke, maitagarria eta maitakorra izan zela aitorru beharko genuke. Hori da, behintzat, nik daukan dan bere irudia. Jakituriaren gainetik bazeuzkala gizatasunezko balore handiak, eta sarri askotan gertatzen den bezala, hemen datza izan zituen nahigabeen zioa.

Mitxelenak idatzitakoaz gain, Tovar-en biografia idatzi behar zelakoan nengoen, euskaltzain urgazle eta gero ohorezkoa izandakoak horrenbeste merezi baitzuen. Eta ez da ez edonolakoa gizon honen biografia. Kanpokoa izanik, euskararen eremuan murgildu direnetatik puntarengoa izan zela esan dezakegu. Espainiatik gure kulturara hurbil du zitzagun lehenetarikoa izan zela esango nuke. Eta lan baliotsuaren eskaintzaz aparte, hara non datorkigun orain beronen euskal liburutegia Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekara. Consuelo Larruzea alargunak, Tovar-ekin bat eginda zegoenak, burtu du azken emaitza honekin bikote honek Euskaltzaindiarekiko zeukan harreman ezin estuagoa.

Antonio Tovar Llorente Valladoliden jaio zen 1911.eko maiatzaren 17an. Notariaren semea zen eta haurrak bi urte edo zituelarik, Elorrioko izendatua izan zen aita, non Antoniok Euskal Herriarekin lehen harremana izan zuen. Herri euskaldun honetako Andra Maria parroquia-

(1) *Euskera*, 1986, I, 249-252.

ren inguruko etxe batean bizi izan zen, baina denbora gutxi egin zuenez aitak notaritza honetan ez zuen euskararik ikasi Antoniok. Hemeretzi urterekin bukatu zuen 1930ean zuzenbideko karrera El Escorial-eko fakultatean. Baino ordurako sortu zitzaiion hizkuntzekiko grina, eta grekoa eta alemana ikasi zituen. Alemanian zegoelarik hasi zen Spainiako gerra 1936an eta handik itzuli zen Humboldt-ek sortu zuen unibertsitatearen eredua bizirik zekarrelarik. Baino Hitler-ekiko mirespenak ere nolabait kutsatu zuen eta Francoren alde agertu zen gerran eta gerra ondoko lehen urteetan, Serrano Suñer-en subsekretarioa izan baitzen 1941.eko maiatzaren 17ra arte. Urte berean, Filologia Klasikoan lizentziaduna zelarik, lortu zuen doktoregoa. Salamancako Unibertsitatean irabazi zuen 1942an Latin katedra eta azken lau urteren zehar emaztegai zuen Consuelo Larruzearekin ezkondu zen urte berean, Tormes ibaiaren hirian hamalau urteko bizitza finkatuz.

Politikaren mundua pixkanaka utziz (2) eta katedraren arduratik aparte, liburuak idazteari ekin zion Tover-ek Salamancako garai hartan. *Vida de Sócrates* izan zen argitara eman zuen lehen liburua (1947) eta latinezko klasikoak aztertuz Virgilioren *Eglogas* olerkien edizio kritikoa paratu zuen. Baino beste hizkuntza zaharrekin ere ardura harturik *Estudio sobre las primitivas lenguas hispánicas* kaleratu zuen Buenos Aires-en (1949). Salamancako Unibertsitatearen errektore izendatu zuten 1951ean, eta Joaquin Ruiz Jimenez, Hezkuntza Ministroarekin batera, Alemaniatrik ekarri zuen unibertsitate humboldtiarraren eredua nahi izan zuen Spainian finkatu. Errektore zela, hizkuntza indoeuropearrak eta bereziki zeltikoak meneratu zituen eta txikitán ikasi ez zuen euskara ikasten hasi zen Orion ematen zituen udaldietan. Ikuisko dugunez, irakasle izateko haina ikasi zuen, baina irakaskuntzako arloan baino gehiago eman zigun gure hizkuntzaren ikerketa eta eragintza munduan. Hor dugu adibide gisa Larramendi katedra sortzea. Baino hizkuntza klasikoen ildotik jarraitzen zuen eta grekoa noraino meneratzen zuen jakiteko hara hor *Un libro sobre Platón* lekuiko (1956). Urte horretako udaberrian errektore karguari uko egin zion, dimisioa aurkeztuz. Francoren jokabide etsipengariarekin nekatuta, oraingoan bai Spainiako politikari etena eman zion.

Atzerrira jo zuen orduan lasaitasunaren bila eta beste konpromezu barik hizkuntzen munduan murgiltzeko asmoz. Tucumaneko Unibertsitatean eman zuen urte osoko ikastaroa (1958-1959) eta Hego Ameriketako hizkuntzak ikertu zituen. Ipar Ameriketako Estatu Batuetara joan zen gero, Illinoisko Urbana Unibertsitatean zazpi urtetan irakasle izanik (1960-1967). Hemen zegoelarik argitaratu zuen *Catálogo de las lenguas de América del Sur* (1961). Consuelo alargunak dioskunez, 2000 hizkun-

(2) Andrés Trapiello: *Las armas y las letras*. Madrid, Ed. Planeta, 1994.

tza edo sailkatu zituen, tartean prekolonbinoak; euskararen ikerketak biztu omen zuen Tovar-engan hizkuntzalaritza gonparatuaren grina. Hizkuntzalaritzaren arlo hau irakastera etorri zen Alemaniara, Tubingen-eko Unibertsitatera hain zuzen, non irakaskuntzan eta ikerketetan ziharduen hamabi urteren zehar (1967-1979). Hizkuntza gonparatuuen katedra hura Ernst Sittig-ek sortu zuen 1925ean eta sortzaile honen ondoko Hans Krahe jubilatu zenean dei egin zioten Tovar jaunari honen hutsunea bete zezan. Estatu Batuetatik Alemaniara zubia egin zuenean izendatu zuten Real Academia Espa olako kide (1967). Tubingenen jubilatu zenean 68 urte zituen eta berak esaten zuenez "jubilaci n germanica" lortu ondoren, 21 urte kanpotik ibilita, Madrilera itzuli zen. Wurtemberg estatuan 1477an sortutako unibertsitateak omenaldia eskaini zion Tovar katedradunari 1979.eko otsailaren 9an, egitasmoan ezaguna dugun Patxi Oroz Arizkuren irakasleak —eta Tovar bezala musikalariak— unibertsitako koralarekin kontzertua eskaini ziolarik (3). Madrilera itzulita Filologia katedran aritu izan zen 1981ean jubilatu arte.

Alemanian egindako lanen eskerronez Goethe saria eman zioten 1981ean. Bainaz zituen eskertze eta omenaldi gehiago ere: Gredos argitaldariak eskaini zion omenaldi liburua 1972an: *Homenaje a Antonio Tovar*. Tubingeneko Unibertsitateak ere *Studia in honorem Antonii Tovar* kaleratu zuen 1984ean. Eta hil ondoren, Koldo Mitxelenak antolatu zuen Bilboko "El Sitio" elkartearren aretoan omenaldia 1986.eko urtarrilaren 20an. Buenos Aires, Munich, Dublin eta Sibiliako unibertsitateek "Doctor honoris causa" izendatu zuten. Ez zuen gutxiago merezi 400 titulu zituen gizon honek, eta 50 hizkuntza ezagutzen zituenak, tartean euskarra, jakina. Honako hauek mintzatzeko eta idazteko gai zen Tovar jauna: gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana, italiera, portugesa, katalana, latina, greko modernoa, eta Hego Ameriketako matakoa.

Baina ez ziren hizkuntzalaritzako irakaskuntzak eta ikerketak Tovaren izaera eta jakituria osotzen zutenek. Principe de Vergara kaleko etxe-bizitzan egon nintzenean, apalategietan zeuden liburuak eta paperak, hormetan dindilizka ikusten ziren diplomak eta egongelan zegoen pianoa ikusi nituenean, humanista baten etxearen nengoela konturatu nintzen. Hizkuntzalaritzatik aparte literaturaren kritika ere egiten zuenez egunkari eta aldizkarietan, hau zen Tovar-ek jorratutako arlo bat eta han zeuden eta daude hainbat autoren idazlan osoak. Egongelako ia erdian oste laburreko pianoak telebistari kentzen zion lehentasuna eta Federico Sope nak idatzi zuenez, zenbat aldiz atera ziren Tovar-en hatzamar eta bihotzetik Chopin, Schumann, Albeniz, Falla eta beste musikagile askoren doinu eta harmoniak. Eta liburuez inguraturik bizi bazen ere, nola

(3) Klaus Niebel: "Homenaje a Don Antonio Tovar", *Euskera*, 1979, I, 397-400.

ez gogoratu eguneroko langelan, estimu bereziaz, eta mahaitik eskura, euskal liburuak zituela.

Garai baten Francoren alde jokatu zuen honek, eta gerraren osteko lehen urteetan, nola izan zuen euskararekiko interesa eta grina ez da erraz ulertzeko. Consuelo Larruzea, orain alargunak, dioenari jarraitzen badiogu, orduan emaztegaia zen familiakoei esker sartu zen Tovar euskararen munduan. Consuelo Larruzea Pelaez Gasteizen jaio zen 1913.eko abenduaren 23an. Antonioren arreben adiskidea zen Valladolideen eta haien bidez ezagutu zuen 1937an gero senarra izatera iritsiko zena. Medina del Campon ezkondu ziren 1942.eko ekainaren 9an. Consueloren aitona, Jose Larruzea, Azkueren adiskidea zen. Abade lekeitiarra Fueroak ezabatzeaz Germikako parrokian egin zuen sermoia, 1895.eko uztailaren 21ean, *Jaungoikua eta Foruak* izeneko liburu batean argitaratu zuen, non agertzen den Consueloren aitonak egindako hitzaldia, Fueroen defentsan noski. Euskararekiko atxekimendua aspaldidanik zetorkion bada Larruzea familiarri eta lur ona aurkitu zuen gero euskalaria izango zen hizkuntzalariak beste ikerketa batuetatik zetorkion interesa ereinteko. Baino Filologia munduan sartu zenetik Menéndez Pidal, Azkue, Urkixo eta beste euskalari “cientifikoen” eskutik euskararen ikerketa sakonak egiteko parada izan zuen.

Tovar-ek euskarari buruz idatzi duen guztia jakin nahi duenak Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographiara* jo beharko du. Baino gainbegirada emanda, honako mugarrri eta urratsak azpimarratuko nituzke. Hizkuntzen gonparaketaz ikerketak egiten hasi zelarik, euskara eta hizkuntza zeltikoen arteko loturak eman zizkigun *BRSBAP* aldizkarian 1945ean. Eta euskara ikasteari ekin zion urte haietan; ikusiko dugunez, 1947an, Salamancako Unibertsitatean, hogei ikasleri edo euskara irakasteko gai zen Antonio Tovar. Ondorioz, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1948.eko urtarrilaren 30ean. Urte berean, eta lehen aipatauriko Boletinean argitaratu zuen *Estado actual de los estudios de filología euskérica*. *La lengua vasca* liburua eman zigun 1950ean (2. argitalpena 1954ean), Filadelfian ingelesera itzulia izan zena 1957an. Mitxelena eta Agud hizkuntzalariekin batera *ASJU* aldizkaria sortu zuen 1953an. *El euskera y sus parientes* liburua 1959koa da eta *The ancient languages of Spain and Portugal* 1961ean New York-en argitaratua. Ordurarte egindako lanengatik, eta Mitxelenak aipatzen zituen aholku eta laguntzengatik, ohorezko euskaltzaina izendatua izan zen 1973.eko maiatzaren 25ean, ondo izendatua, alafedea, hogei urte lehenago Larramendi Katedra sortu baitzuen Salamancako Unibertsitatean, euskarak orduan pairatzen zuen erasoari zientzia aldetik aurre eginez. *Euskera* agerkarira bidali zituen lanak, hala nola, “Comparaciones tipológicas del euskera” (1977, 449-476), 1980an Euskaltzaindiak antolatu zituen Euskalarien Jardunaldietaera ekantriko zuen gai berbera, hain zuzen: “Comparación: Léxico-estadística y

Tipología". Euskarak historian zehar izan dituen arerio eta aldekoak eta orain hizkuntza politikaren bidez duen irtenbidea arakatzen du Tovar-ek *Mitología e ideología sobre la lengua vasca* liburu ederrean (1980). Larramendiren lana, politika munduan izan zuen eragina ahaztu gabe, aztertu zuen Tovar-ek Donostia Costa Vasca Hotelean 1984.eko otsailaren 20an eta Bilboko Ercilla Hotelean hurrengo egunean eman zituen hitzaldietan. Urte eta hil bereko 22an Gasteizko Gasteiz Hotelean beste hitzaldi bat eman zuen, azken hau Azkueren lana aztertuz.

Larramendi Katedra aipatu dugu lehentxoago. Bere garaian izan zuen garrantzia kontuan izanik, ez dut uste honetaz behar den beste idatzi denik eta sorkizun hau gure artean aski ezaguna dugunik. Tovar bera da, ene ustez, Katedra honetaz zerbait idatzi duen bakarra (4). Baino euskararen aldeko ekintza honen historia eta emaitzak taiutzeko beste iturri batzuetara jo behar izan dut. Gezurra badirudi ere, gerra osteko garai hartan munduan zegoen euskal katedra bakarra Bordeleko Unibertsitatean Rene Lafon euskaltzainak zuzentzen zuena zen. Haren antzerako bat sortu nahi zuten Joaquin Ruiz Jimenez, Hezkuntzako Ministroak eta Antonio Tovar Salamancako katedradunak. Katedrari izena jarri behar ziotela eta, Manuel Larramendi iruditu zitzaien egokiena. Larramendi, izatez, Salamancako Unibertsitatean Teología ikasle izan zen (1713-1717) eta ikasketa hauek bukatu ondoren Teología eta Filosofía irakasle ere (1717-1720 eta 1724-1728). Baino euskarari dagokionetik, Salamancan argitaratu zituen bi liburu entzutetsuenak: *De la antigüedad y universalidad del bascuense en España* (1728) eta *El imposible vencido* (1729) titulua zeraman gramatika. Ez zegoen egiaz "patroi" hoberik euskarra irakatsi eta hedatu nahi zuen katedrarentzat.

Nik dakidanetik, Katedra honen berri eman zuen lehena "Desperdicios" izenordea zeraman Aureliano Lopez Becerra (1880-1956) kazetari irundarra izan zen 1948an (5). Tovar-en hitz hauek transkribatzen ditu artikuluan:

"A la clase, que es semanal, vienen unas veinte personas. Algunos, profesores de nuestra Facultad de Filosofía y Letras, la mayor parte, estudiantes de la Sección de Filología Románica, en la cual, según el vigente plan de estudios, se puede cursar la lengua vasca, y algunos, estudiantes también de otras Facultades, vascos de nacimiento. Mi mayor satisfacción al dar la clase es la de contar con la asistencia y colaboración de estos vascos, que, naturalmente, saben la lengua mucho mejor que yo y me ayudan para que los ejemplos sean claros y correctos. Leemos y comentamos el famoso libro

(4) "La cátedra Larramendi de la Universidad de Salamanca", *Zumárraga*, 1954, 11-34. "Don José Miguel de Barandiaran inaugura la 'Catedra Manuel de Larramendi' en la Universidad de Salamanca", *BIAEV*, 1954, 53-54.

(5) *La Gaceta del Norte*, 1948.02.08, "Miscelánea" sailean.

de Schuchardt "Primitiae Linguae Vasconum" que traducido por el Dr. Yrigaray, de San Sebastián, fue editado por el Colegio Trilingüe de nuestra Universidad. Hacemos también una exposición general de la gramática, y cuando se nos termine el libro de Schuchardt, explicaré algunas poesías de Dechepare, que como es sabido publicó el primer libro en vascuence".

Schuchardt-en liburu hau 1945 urterako prestatuta zeukan Irigaraia jaunak, eta Julio Urkixoren aitzinsolas gutuna ere urte bereko abenduan idatzia zen. Irigaraik aitortzen duenez, alemanetik itzulpena egitekoan, Tovar-en laguntza izan zuen; horrek adierazten digu Salamancako euskara irakasleak ondo ezagutzen zuela irakaskuntzarako zerabilen testua. Baino Schuchardt-en liburu hori gaztelaniaz 1947an argitaratua izan zen, urte horretan hasi zela Tovar euskara ikasketak ematen ziurtatzen digu. Baino 1951an errektore kargua eta ardura hartu zuenean, zaila egi-ten zitzaion euskarazko klaseekin jarraitzea eta 1952/53 ikasturterako aurkitu zuen nork hutxunea bete, Juan Gorostiaga euskaltzaina hain zu-zen. Honen *Vocabulario del refranero vizcaino de 1596* Salamancako Uni-vertsitateak argitaratu zuen 1953an, lehenago Caro Baroja, Lafon eta Bouda euskalarien lanak argitaratu zituen eran, 1946an hasita.

Tovar errektore berriak, indarra hartzen zihohan katedra ofizialki inauguratu nahi zuen eta horretarako Jose Migel Barandiaran ikusten zuen gizonik aproposena. Ataungo "Sara" izeneko etxea eraikita zegoen 1952ko martxoaren eta herriratua zen Barandiaran, abuztuaren 1ean Tovar-ek Larramendi Katedra inauguratzeko gomita egin zionean. Hurrengo urteko urtarrilaren 6an Errege oparia egin zion Barandiaranek Tovar errektoreari zera esanez: urtarrilaren 19an hasita hamabi hitzaldi emango zituela Larramendi katedra inauguratzeko. Baino gaixotasunak jota, burutu ezinean geratu zen asmoa. Hurrengo ikasturtea hasi orduko errepi-katu zion Tovar-ek eskaria 1953.eko irailaren 13an. Urriaren 19an eman-go zuela lehen hitzaldia erantzun zion Barandiaranek irailaren 24ko gutunean. Baino berriz atzeratu zen inaugurazioa. Azkenean, 1953.eko azaroaren 3an inauguratu zuen Jose Migel Barandiaranek Larramendi Katedra, azaroaren 13ra arte hamar hitzaldi emanez. Gai orokorra honako hau izan zen: *Estado actual de los estudios vascos*, eta inguru ho-rretan eguneroko gaiak, "El problema de los orígenes de la lengua vas-ca", "La cultura material", "Religión y mitología", "Prehistoria" eta abar. Azken egunean desideratum gisa aurkeztu zuen Barandiaranek Euskal Herriko Hizkuntza eta Etnografia Atlasa burutu beharra.

Esana da Antonio Tovar-ek errektore izateari uko egin ziola 1956an eta Tucumanera joan zela 1958an. Umezurtz geratu zen Larramendi Ka-tedra. Baino Koldo Mitxelenak dioskunez (6). Filologia Klasikoaren ikas-

(6) Patxi Altunaren euskaltzain sarrera egunean, erantzun hitzaldian. *Euskera*, 1981, 2, 617 orr. Ikus: Altuna, Patxi: "Euskaldunak Salamanka'n", *Egan* 1957, 1-2, 67-69.

ketak egiten ari zen Patxi Altuna (1953-1957) eta lizentziatura bukatu ondoren, doktoregoa burutzeko Salamancan jarraitu zuen hurrengo 1957-1958 ikasturtean. Larramendi Katedraren ardura Altunak eramana zuela urte horretan dio Mitxelenak, eta data eta datua baiezatzen dizkit Altunak.

Koldo Mitxelenak, gero *Fonética Histórica Vasca* liburua izango zen gaiaz aurkeztu zuen tesia Madrilen 1959.eko urtarilaren 26an. Tovar epaimahaikoa zen eta orduko Europako ikerketa mailetara eraman zuela Mitxelenak euskal fonetikaren azterketa esan zuen. Rodriguez Adrados salamancarrak Madrilen, eta ez bere jaioterrian, hizkuntza indoeuropearren katedra sortu nahi zuen. Bainak katedra hori Mitxelenak irabazi zuen 1968an eta Salamancan kokatu zen. Ordutik, eta Gasteizera 1977an etorri arte, Larramendi katedran hitzaldiak ematen zituen Mitxelenak, Patxi Altunak diostanez. Bainak 1976-1977 ikasturtean tesia prestatzen ari izan zen Altuna Salamancan, eta Mitxelenaren eskaria jarraikiz, euskal aditzaz ikasketak eman zituen Altunak Larramendi Katedran urte horretan. Ez dut geroko berririk, baina gaia interesgarria denez, saiatuko naiz datuak biltzen.



Txosten hau amaitzera noa tituluan jarri dudan azken gaia ukituz. Iazko martxoaren (7) 9ko gutunean Jose Maria Satrustegi euskaltzainak berri on bat eman zidan: Antonio Tovar zenaren alargunak Euskaltzaindiari eman nahi ziola senarraren euskal liburutegia. Hurrengo egunean (niretzat urtebetetze egun zoriontsuan) harremanetan jarri nintzen aspaldidianik ezagutzen nuen Consuelo Larruzea alargunarekin. Erabaki bezala, apirilaren 5ean, Juan Jose Zearreta laguntzaile izanik, Antonio Tovar zenaren etxearen egon ginen eta aipatu alargunarekin erabaki genuen zein izango zen Euskaltzaindiarentzat emaitza. Apirilaren 6an, sei orduko lana izan genuen Azkue Bibliotekako teknikaria den Josune Olabarriak eta biok, Consuelo Larruzea eta Chelo Tovar alabarekin, liburuak eta separatak kutxetan sartzen. Tovar-en gutundegia ere guk sailkatzea

(7) Otsaila dio gutunak datan, baina martxoan izan zen.

nahi zuela eta, denak harturik, Bilboko egoitzan utzi genituen apirilaren 7an. Guztira 537 liburu eta separata izan ziren ekarri genituenak eta maiatzaren 28rako prestatu zen Azkue Bibliotekan emaitza oso honen katalogo informatizatua, Zornotzan egun berean egin zen euskaltzain osoen bileran banatu zena. Ale guztieei jarri zitzaien Tovar jaunak erabilten zuen "Ex-libris"a, ikerlek jakin dezaten, katalogotik aparte, liburu edo separataren jatorria.

Gutunak taiutze lanak denbora gehiago eraman zuen. Milaka ziren jasotakoak, sailkatu ondoren itzultzekoak. Hamar artxibo kutxetan sartu ziren 881 kartazal, bakoitzean idazle baten gutunak sailkatuz. 1993.eko abenduaren 1ean itzuli zizkion bibliotekariak Consuelo Larruzeari beroen Madrileko etxebizitza berrian (Pechuan, 12) gutun baliotsu guzti hauek, Euskaltzaindiaren artxiborako interesgarriak zirenen fotokopiak egin ondoren. Gutun idazleen zerrenda 24 foliotan bildua izan zen. Gerrotik, beste 66 idazleren gutunak ere sailkatu eta zerrendatu dira.

Bihoakio Antonio Tovar jaunaren alargunari Euskaltzaindiaren eskerrik beroena.

KAZETARITZA

AZKUE, KAZETARIA

Javier Díaz Noci,
Euskal Herriko Unibertsitatea:
Informazio Zientzien Fakultatea

Ez dugu hemen euskararen ikerketetan eta euskal kulturaren berpiztean Azkuek izan zuen garrantzia azaldu behar. Hizkuntzalari, kanta, ohitura eta ipuin zaharren biltzaile, musikalari, Euskaltzaindiko lehenengo euskaltzainburua, Bizkaiko Foru Aldundiak eratutako Euskal Katedraren lehenengo irakaslea, Euskal Herriko kulturan interesik duen edonork badaki haren lan eskergak zenbaiterainoko garrantzia duen euskararen garaipenerako. Haren obra eta bizitzaren alderdi nagusiak ondo aztertu dituzte, besteak beste, Jose Antonio Arana Martijak, Antonio Tovar-ek, Koldo Mitxelenak edota Julio Caro Barojak (1). Ez gara gure aldetik asko luzatuko haietan, baina gehixeago arituko gara, ordea, askoz ere gutxiago ezagutzen den Azkueren beste alderdi batez, guri beraziki interesatzen zaiguna eta inork (sakonki behintzat) aztertu ez dueña: kazetaritza lanaz ari gara, noski.

Azkueren lana eta bizitza ezagutzen dituenak badaki Euskaltzaindiko lehen buruak euskara hutsezko bi aldzikariren sorreran parte hartu zuela: *Euskalzale* (1897-1899) eta *Ibaizabal* (1902-1903), Hego Euskal Herriko euskal kazetaritza behar bezala ezagutzeko ezinbestekoak direnak. Haien sorreran parte hartu zuela diogu, eta are gehiago, bien zuzendaria ere bazen. Ondo asko dakigu *Euskalzaleren* kasuan, ez horrenbeste *Ibaizabalean*. Azken honetan hasi zen Evaristo Bustintza —artean *Kirikiño* goitizena erabiltzen ez zuena— bere kazetaritza lanean, Azkuek horretara bultzatuta. Ordurako Euskal Katedran zegoenak Euskal Herrira ekarri zuen Bustintza, eta euskara lantzeko gogoa piztu ere egin zuen, bien arteko gutunetan ikus daitekeenez (2). Gutunen bidez ere badakigu zein zen Azkue eta Tomas de Epalzaren arteko adiskidetasuna. Epalza izan baitzen, hain zuzen ere, *Euskalzaleren* bultzatzaile nagusia. Bi aldzikari eta bi adiskidetasunen historia dugu hauxe.

(1) *D. Resurrección M.^a de Azkue, lexicógrafo, folklorista y gramático*. Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbao, 1966.

(2) Eskertu nahi diogu Jose Antonio Arana Martijari gutun horiek ezagutaraztea.

Euskalzale: Azkue eta Tomas de Epalza

Resurrección M.^a de Azkue, 1864.eko abuztuak Sean Lekeitio jaioa, Eusebio M.^a de Azkue olerkariaren semea, Miguel de Unamuno eta Sabino Arana Goiriren garaikidea –hainbestetan azpimarratu den bezala– Teologian doktorea, musikan aritua –Köln-eko kontserbatorioan goi mailako ikasketak burutu zituen–, euskal idazlea, aipatutako bere garai-kide haiiek ere lortu nahi zuten Euskal Katedra eskuratu zuen (3). 1891.ean *Euskal Izkinea* euskaraz eta gazteleraez idatzitako euskal gramatika. *Bein da Bético* elaberria 1893.ean agertu zen, eta *Vizcayatik Bizkaiera* opera ere idatzi eta estrenatzeko astia ere bazuen, 1895.ean, *Euskalzale* astekaria kaleratu baino lehenago. Bitartean, *Método práctico para aprender el vascuence guipuzcoano y vizcaíno* eta *Jesus Biotzaren Illa* liburuak, zarzuela batzuk eta bere hiztegi eskerga ere prestatzen hasia zen. Kazetaritzan ere aritua zen, 1888.eko *El Vasco* egunkariaren *Apis literatur* gehigarri eta 1889.eko *La Abeja. Revista mensual científico literaria* aldizkarian. Bietan bazegoen zertxobait euskaraz, halanola lehenengo aldizkarian Felipe de Arrese Beitaren olerkiez gain, 23. alean agertutako *Antonio Rosmini Abadiaren berrogei aipamen, Errroma-co Eginkizun-santuko billera Goyenen-guandic debecaubac, eta 1888-co martiyaren 7an argitaratuac*, Durangoko Garitaonaindia abadeak itzulia “como una prueba más de que no carece [euskarak] de voces científicas y abstractas, como alguien ha supuesto”.

La Abejan ere euskarazko zenbait testu agertu ziren, esate baterako *Peru Matraka ta Pedr'Anton*, “Ezti-Abaua” delako batek sinatura, eta *Eztenak. Jolas aldia (Sección recreativa)*. Batzuren ustez Azkuek berak bi aipatu aldizkariak zuzendu bazituen ere, guk ezin izan dugu datu hori baieztago.

Dena den, Azkuek lanerako izugarrizko kemenia zuen, horren adibide Tomás José de Epalzak 1896 eta 1902 urteen artean bidali zizkion gutunak. Pasarte batzuk ikusiko ditugu hemen. Tomás José de Epalza y Palacio, Banco de Bilbao sortu zuen familiakoa (bere aita Domingo de Epalza y Larraondok, honen lehengusua zen Pablo de Epalza y Lecandak eta Tomás José de Epalza y Zurbaranek eratu zuten), bilbotarra, 1854.ean jaioa, bera ere Bankuko kontseilaria izan zen 1895.etik 1913.erarte. Azkueren proiektuak bideratzeko dirua eman zutenetariko bat, Lekeitioko abadearen ikaslea izan zen, bere obra bat halaxe sinatu baitzuen (1896.ean argitaraturiko *El euskara o el baskuenze en 120 lecciones*) (4), beti diru laguntza eman zion Azkueri, lehenengo aldiz, guk da-

(3) Ikus *Euskera*, XXIII, 2. aldia, eta bereziki Arana Martija, J.A.: “Euskal Katedraren lehiaketa eta eragina”, 361-378. orrialdeak.

(4) Datu guztia La Gran Enciclopedia Vasca-tik aterreak.

kigunez, 1895.ean, bere *Método práctico para aprender vascuence guipuzcoano y vizcaíno* argitaratu nahi zuenean:

“He sabido que V. piensa publicar una gramática vascongada práctica”, dio Epalzak Azkueri idatzitako gutunean, “y si por acaso fuese su idea hacer una tirada popular y económica, tendría mucho gusto en contribuir a ella para que V. pudiera venderla á dos reales ejemplar. Mi deseo de que V. pueda hacer una buena tirada y de que no se pierda el idioma de nuestros mayores, es lo que me mueve á ponerme á su disposición (...)” (5).

Dirudienez, Azkuek bazuen 1896.ean astekari bat kaleratzeko asmoa, inprimatzeko makina bat erosteko ahaleginak egiten baitzituen. Horretarako, Epalzaren laguntza behar omen zuen, eta bilbotarrak aholku hau eman zion:

“(...) No haga V. el desatino de comprometerse con la máquina de imprimir (...). Dentro de un año ó año y medio, por la mitad de dinero de lo que cuesta una máquina Escudet, podrá V. comprar una pequeña maquineta eléctrica cuyo gasto de sostenimiento no será la mitad. Ya comprenderá V. que todas las actuales imprentas están llamadas a desaparecer ó transformarse” (6).

Azkueren izakera gogorrak ezin zuen jasan bere obrak euskaraz ez zekitenek inprimatzeagatik akatsez josita agertzea, 1889.ean gertatu ziizaion bezala (7), beraz bere inprimigailua edukitza deliberatu omen zuen. Bertan egingo zen *Euskalzale*. astekaria (*Astean asteango albistaria*, jartzen zuen izenaren azpian). 1897.eko urtarrilaren 3an agertu zen lehen aldiz, Bilboko Jardines kaleko egoitzatik. Bertan *moldagintza* eta *liburutegia* zeuden, urtebete lehenago Azkueren beste eginkizun bat, euskal eskola, ireki zuen leku berean, han non antzoki txiki bat zegoen (8). Azkuek berak zuzentzen zituen eskola eta aldizkaria. *Euskalzale* kaleratu baino lehenago, Azkuek –euskal prentsan maiz gertatuko zen bezala– propagandazko orri bat eman zuen argitara, Epalzak ordaindu zuena:

“Amigo Don Resurrección:

Adjunto le envío las cincuenta pesetas que le prometí para gastos de propaganda del *Euskalzale*, y deseo que los ejemplares que remite de mues-

(5) 1895.eko irailak 10eko gutuna, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan gordetzen dena, aipatuko ditugun beste guztiak bezala. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Jose Antonio Arana Martijari gutun hauek ezagutarazteagatik, lan hau burutzeko ezin baliotsuagoak.

(6) 1896.eko irailaren 25eko gutuna.

(7) Urte hartako abenduak 19an Bizkaiko Foru Aldundiko agintariei gutun batean esan zien “que por aversión de sus funcionarios al euskera no ha conseguido imprimir en la imprenta provincial los opúsculos de Gramática” (J.A. Arana Martija, op. cit., 374. orrialdean aipatua).

(8) Arrien, G.: *La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares 1932-1940*, Editorial Onura, Bilbo, 1983, 46. orrialdea.

tra le proporcionen cuando menos un suscriptor [sic] nuevo por cada amar-geiak (...)" (9).

Orritxo hartan agertzen ziren Azkuek bere aldizkarirako nahi zituen zutabeak:

"(...) Elizgizonak izango dira paper onetan iratsi edo eskribiduko dabent geienak, R.M. Azkuetar artezkari dala (...). Erderazko gauzarik ezta ezer agertuko, guztia izango da euskeraz egina. Onetarako alik garbien da errazen agertuko dira euskerazko berbaak. *Bentanea, sillea, pareta, confesinoia, primerako billetea, ferrocarrileko estazinoia, habitazinoiak, fondak, jardinak* eta euron antzeko berba guztiak oraindixek pilotuton axiko dira; ta iru urte barru, lenagao ezpada, euron ordezko berba garbi ederrak zabaldu daiza-nean, su emongo iako erderakada-pilo orri" (10).

Azkuek, euskara kontuetan jakintsutzat hartzten hasia, bere teoriak azaltzeako baliabide bat behar zuen, huraxe *Euskalzale* izan zen. Hasiera hasieratik azaltzen du Azkuek lexikoari buruzko bere jarrera, hitz bitan esanda, erdarazko hitzik erabili beharrean euskararen altxorretikoak nahigo zituelarik, nahiz eta alderdi geografiko oso murritzean erabiliak izan. Ortografia ere (gogora dezagun artean ez zegoela finkatuta) berezia zen. Guzti horretaz ere Epalzak aholkuak ematen dizkio:

"Ya siento que, salvando los principios, no hubiera V. empezado por escribir Bizkaya, ogiya, chakurra, etc., pues el Vulgo (que somos la inmensa mayoría de los hombres) hubiera facilitado mucho la lectura del Euskalzale; ahora ya es tarde (...)" (11).

Zenbait neologismori buruz ere iritzia ematen dio:

"A mi juicio no hallo tan lógico el que V. haya adoptado en Euskera los nombres de 'pájaro grande' y 'pájaro chico' aun cuando algunos los llamen así sin más lógica ni razón que 'por que sí'. Creo que sería más Euskaldun, propio y lógico ampliar á este caso las tan usuales y castizas voces de *amarreko* y *bosteko* (...)" (12).

Horrelako gauzetasaz arituko da Azkue *Euskalzalen Vascofilok Euskalzaleri* izena duen atal batean, astero agertuko zena. Baliteke gaur egun txantxetako gauza iruditu eta "z" edo "c"z, "tx" edo "ch"z idazteak inolako garrantzirik ez izatea, baina garai hartan ortografia bata ala bestearren aldekoen artean izugarrizko eztabajadak eta arazo konpongaitzak sortu ziren. Mende bat lehenago Juan Antonio de Mogulek —XX. mendeko euskaltzale askorengan, Aranarengan berarengan ere bai, hizkuntza kontuetan ezezik ideologikoki ere izugarrizko eragina izango zue-

(9) 1897.eko urtarrilaren 16ko gutuna.

(10) *Euskalzale*, 1897.eko urtarrilaren 3a, 1. zenbakia, 1. orrialdea.

(11) 1897.eko urtarrilaren 19ko gutuna.

(12) 1897.eko urtarrilaren 16ko gutuna.

na— bere *Peru Abarca* idazterakoan, “los bascongados franceses llenan de esta letra *h* todas sus obras (...). Se valen también mucho de la letra *k*, y es mucho embarazo para los demás bascongados que no la usamos en voz alguna” dio. *Euskalzale* agertzen zen garaian, euskaraz irakurtzen zekitenak oso gutxi ziren, Azkuek berak zeraman Katedra sortu arte nork ia bere modura irakurtzen ikasten baitzuen. Ortografien sakabanaketak ez zuen askorik laguntzen euskara hedatzeko orduan. Azkuek eta Arana Goirik, nork bere liburu eta aldizkarietan, ortografia bana —baina antzezoa— proposatzen zuten.

Euskaldunen analfabetismo haundia —euskaraz, noski, ez erdaraz— kontuan harturik, nora jo zuen Azkuek? Batez ere apaizengana, haiek baitziren hizkuntza idatzia aspaldidanik hobeto zaintzen zutenak:

“(...) Batez bere abatetxeetan (euskeria maiteen dabenak, elizgizonak irutarik bitan izaten direalako) ateak zabal zabal eginaz abegi ona egingo dautsela gure anaiak *Euskalzaleri* (...)” (13).

1897.eko martxoaren 25ko alean berriro aztertzen ditu Azkuek gaia *Elizgizonak eta euskerea* izeneko testuan, apaizei hitzaldiak euskaraz egitea gomendatzen dielarik:

“(...) ¡Euskeraz, erderaz baizen ondo, ezin leikezala gauzak azaldu? Euskereak erderak beste esakera ta geiako daukaz. Euskereak daukana da: irakurle gitxi ta sasi-iakitun asko” (14).

Are gehiago, hurrengo alean proposatzen du:

“(...) Esan daiela sarri-sarri iardulariak *perfeziñoe, konfesiñoe, komuniñoe, dolore, plazo, soltero* (...) ta burua erdi-galduta daukan zaaren batek esango dauz aurrerantzean *osotasun edo ornidutasun, autortute, Iaun-artute, garbae, damu, epe, eskontzaga* (...)” (15).

Hau dena zeren eta Azkueren ustez “elizgizonak dira gaur-egunean errí geien geienetan dagozan irakasle bakarrak” (16). Esan bezala, *Euskalzale*, beste gauza batzuren artean, Azkueren hizkuntzari eta batez ere neologismoei buruzko ideien igorle bihurtzen da. Zer esanik ez, Bizkaiako Foru Aldundiko Euskara katedraren lehen irakasleak erdaratik hartutako hitz guztiak euskararen altxorrekoen truke aldatzea proposatzen zuen, nahiz eta azken hauek oso leku gutxitan erabiliak izan. 17. alean batez ere elizgizonei zera eskatzen die:

(13) *Euskalzale*, 1897.eko urtarrilaren 1, 1. zenbakia, 1. orrialdea.

(14) 1897.IV.01, 14. zenbakia, 1. orrialdea.

(15) 1897.IV.01, 14. zenbakia, 1. orrialdea.

(16) Ibidem.

“Bialdu daiezala *Euskalzale* agertuko direan berben ordezkoak. Onetarako ezdago gauza obarik, bakotsak beren errialdekoai dakiela edo dakiensua ataratea baiño” (17).

Honekin batera Azkuek bere konfidantza guztia irakaskuntzan jarzen du:

“Egunik txarrenak ikusita daukaz gure berbeta eder onek. Aurrerantzean beren egunak eztira izango gaur-artekoak baizen odaitsuak eta illunak. Sortuko dira or da emen umeentzako ikastetxeak, Bitoriako Abade-Ikastetxean (bearren dan tokian) euskerea oparo ta gogoz ikasiko dabe gazteak, gero eurak izan daitezan erritan euskera garbi garbia irakatsi daienak; eta azkenean zelanbait, nimbait, nortzukbait eta noizbait sortuko dabe Ikasola edo *Akademia* on on bat” (18).

Aldi berean, Azkue kezkati agertzen zen erdal eskoletan euskarak nozitzten zuen atzerapenarengatik. Hala adierazi zuen, esate baterako, 1898.eko uztailaren 14ko *Euskalzalean* “euskerea galtzen deuskuela” dioenean.

Epalza eta beste lagun batzuri ezker, *Euskalzale* bigarren urteran alegatzen da. Epalzak, zehazki, hala ziotson Azkuieri 1897.eko urriaren 8ko gutun batean:

“Amigo Don Resurrección: Adjunto un anteproyecto de portada, para que V. lo redacte como mejor le parezca.

Está puesto con la idea de interesar á los que poseen el baskuenze y hacer desaparecer el temor de que *Euskalzale* está próximo á morir. No conviene por lo tanto que nadie imagine de donde salen las 75 pesetas para los premios, sino mas bien que piensen que son parte de las ganancias de la Revista (...”).

Hala eta guztiz ere, Azkuek kementsu jarraitzen zuen lanean. Egitasmo askorekin, gainera. 1898.eko lehenengo hilabeteetan, Azkuek, *Euskalzale* kaleratzeaz gain, eta Euskal Katedraz arduratu ezezik, beste gauza batzutan ere sartuta zegoelarik, aldizkarian gauza berriak martxan jarri nahi omen zituen. Bere ekintza nekaezinaren berri ematen digu berriro ere Tomás José de Epalzak 1898.eko apirilaren 29ko gutunean. Banco de Bilbao-ko kontseilaria aholku ekonomikoak ematen zizkion Azkuieri. Azken finean, dirua Epalzarena zen. Luzetxo bada ere, merezi du gutun hura ia osorik aipatzeak:

“Amigo Don Resurrección. He pensado en la sección especial de Música Euskera de que me habló V. ayer, y como le dije me parece *en principio*

(17) 1897.IV.22, 17. zenbakia.

(18) Ibidem. Azkuek ideia aipatzen du Akademia sortu baino bi hamarkada lehenago. Bera izango zen lehen euskaltzainburua.

pio una idea muy laudable, pero los peros que yo le puse los hallo de muchísima trascendencia (...). No se trata de que dé V. esa idea al olvido, solo de que la aplace para mejor ocasión. Está V. hoy muy atareado, pues además de su Ministerio, de la clase de Euskera y de la redacción de la Revisa, tiene V. una porción de cuitas muy importantes (...).

El número extraordinario de Navidad no admite espera (...). Además tiene V la impresión del *Peru-Abarka* (...). Además el Diccionario *Manual*, que me temo que en vez de manual va a resultar Monumental (...). Además tiene V pendientes la impresión de la Historia Sagrada, de la Geografía, y no faltará alguna otra cosita más; y quien mucho abarca poco aprieta.

Además que en la parte económica tiene V unos cuantos déficits y no debe V exponerse a sumarlos con otro más, aunque éste sea pequeño. No le quepa a V la menor duda de que la impresión de la sección musical le dará déficit, por lo menos el primer año; y esto contando con que algunos buenos amigos (entre cuyo número me cuento) al fin propuesto hagamos algún sacrificio en su obsequio y por amor al país (...).

¿Y cómo va la cuestión de la subvención de la Diputación? Debe V procurar que no se escape otro semestre como el anterior (...)".

Ikusten dugunez, Azkue ez omen zen oso ona diru kontuetan. Hala ere, denborak arrazoia eman zion: Hiztegia, *Peru Abarkaren* edizioa eta *Euskalzaleren* musika atala (partiturak eta guzti) argitara eman zituen. Epalzaren laguntza ez zen falta:

"Amigo Don Resurrección" —zioen 1898.eko azaroaren 10ko gutunean—, "he encargado que hagan una tirada de dos mil *Peru-Abarca* y les pongan el precio de 2 pesetas, para que dén más importancia al regalo y pueda Euskalzale sacar algo con los números que se vendan (si se venden) (...)".

Saldu ala ez saldu, *Euskalzale* hiru urtetan kaleratu zen, eta argitaratzeari utzi ziotenean ere, Bizkaiko Gobernadore zibilaren aginteak euskaraz eta erdaraz idazteria behartzen zuelako zen: Azkuek ez zuen agindu hori onartu nahi izan.

Hiru urte haietan, Azkuek Hego Euskal Herriko euskaraz egindako lehenengo aldizkari modernoa ateratzea lortu zuen: aurrekoak kulturalak ziren, batipat, baina Azkuerena bestelakoa zen. Kulturala ere bai, noski, ehundaka testu zahar, olerki, ipuin, partitura, kanta argitaratu baitzituen. Baina informatizailea ere bazen. Iritziak —linguistikoak, batez ere—, irudi eta argazkiak ere *Euskalzalen* nonahi aurki daitezke, garai hartako eta geroagoko euskarazko aldizkari askotan ez bezala. Komiki bat —edo behintzat komikien aitzindarien antzerako istoriotxo bat— ere azaldu zen *Euskalzaleren* orrialdeetan, 1898.eko irailaren 22ko alearen azken orrialdean agertzen dena, testua B. Mokoroak eta marrazkiak Xandaro delako

batek egin zituztelarik (19). Azkueren genio unibertsalak hala lortu zuen, idazle askoren laguntzarekin, noski: hor dugu Karmelo eta Bonifacio Etxegarairen testua, Urruzuno, Unamunzaga, Campión, Zamarripa, Iturrioz, J. Artola, Azkunaga, Madinabeitia, Dodgson, B. Mokoroa eta beste abar luze batenak, garaikideen artean. Ezin falta Emeterio eta Felipe Arreseren olerkiak, Eusebio Maria Azkuerenak, eta Domingo Agirreren euskal elaberri sortzailearen nobelak. Idazle zahar eta urte haietako askorentzako ezezagunen artean hor ditugu Iztueta, Cardaberaz, Larramendi, Iturriaga, Mendiburu, J. B. Elissambururen testuak, besteak beste, eta ezin ahaztu Azkueren aldizkarian agertu zela lehen aldiz Pedro Ignacio Barrutiaren *Acto para la Nochebuena*, euskaraz ezagutzen dugun lehehengo antzerti testua, Azkuek 1897.eko Gabonetan argitaratzerakoan *Gabon gaberako ikuskizuna* deitu zuena, erderakadak zuzendu gabe —nahiz eta bere iritzia normalean guztiz bestelako izan. Honetan, beste gauza askotan bezala, Resurrección M.^a de Azkue aitzindaria izan zen.

1899.eko irailaren 27tik (aurreko 37 zenbakiek euskara hutsezkoak ziren), Bizkaiko Gobernadoreak agindu bide zuen *Euskalzale* euskaraz eta gazteleraez ager zedila. Hala egin zuen Azkuek: aldizkaria bi zutabean banaturik zegoelarik, ezkerrekoan euskarazko testua eta eskubikoan erdarazkoa jarri zuen. Urrian Gobernadore Zibilak ehun pezetatako diruzigorra ezarri zion aldizkariari, *Euskalzaleen* lagunek ordaindu zutena. 1900.ean ez zen Azkueren aldizkaria agertu, baina horrek ez du esan nahi Euskaltzaindiko lehen burua izango zenaren kazetaritza ekintzak hor bukatu zirenik. Diruzigorra ordaindu zutenetariko baten laguntzaz beste aldizkari bat kaleratu zuen 1902 eta 1903.ean: *Ibaizabal..* Gizon hura —*Euskalzalen* ere zenbait testu argitaratu zuena— Ebaristo Bustinta zen.

Ibaizabal: Azkue eta Bustinta

Azkue eta Bustintzaren arteko harremanak 1896.ean hasi ziren, J.A. Arana Martijak dioenez (20). Urte hartan Bustinta Almansan zegoen maisu. Euskaldun zaharra bazen ere, Ebaristo Bustintzak ez omen zuen euskara kontuetan bere buruarengan konfidantza haundirik:

“(...) Nik, beste askok leguez, umettatik ikasi neuan euskara entzutez bakarrik”, aitortzen zion Ebaristo Bustintzak Azkueri egindako ezagutzen

(19) *Txakur saltalaria* zuen izena historieta hark. Garai hartako komiki modukoetan bezalaxe, balloonen ordez didaskaliak (marrazkien azpikaldean ipintzen ziren testuak) aigerteren ziren.

(20) Arana Martija, J.A., op. cit., 376. orrialdea. Arana Martijak berak ezagutarazi dizkigu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako Artxibategian gordetzen diren R.M. Azkue eta Ebaristo Bustintzaren arteko gutunak.

dugun lehen gutunean (21). “Beti euki daut guraria ondo neure iaio-itzkera iakiteko”.

Bere euskara hobetzeko, Bustintzak, hamabi urte zituenetik Euskal Herritik kanpo bizi zena, Azkueren “izkindea” erabili zuen. Horrek piztu zion euskararenganako maitasuna:

“Zerbait izkinde onetan irakurri neuanian asmoa artu neuan, iztegui bat, biurgaiak eta beste libururen batzuk erosteko (...). Esan eistazu, bada, [eskatzen zion Azkueri] ze liburu neugandu biar daudan, euskara ondo ikasteko daukatan guraria betetako” (22).

Lehenengo gutun hartin Bustintzak Azkueri galdetzen zion ona izango ote zen “or Bilbon ‘Euskalzale’ deritson *periodico* bat” irakurtzea. Esan bezala, Ebaristo Bustintzak zenbait testu bidali zuen *Euskalzalera* 1899.ean, *Maiñari* izengoitziaz sinatuak. Laguntzaile izateaz gain, Azkueren aldizkariaren irakurle ezin hobea zen. 1900.eko otsailaren 3an bidalitako gutunean, Mañarikoak falta zitzakion aleak eskatzen dizkio Azkueri. Hori ez da, ordea, garrantzitsuena gutun hartin, Bizkaiko Gobernu Zibilaren presioak zirela eta aldizkaria ixteko erabakiarekin bat zetorrela beste proiektu batzutarako prest zegoela esaten baitio Azkueri. Luzeegia ez denez, uste dugu Bustintzaren lerroak hona ekartzeak merezi duela, Azkuek —gero ikusiko dugun bezala— oso kontuan hartu baitzituen:

“Recibí el volante en que se anunciaba la desaparición de *Euskalzale*. No tengo necesidad de expresar lo que lo he sentido, pero ya que se veían en la necesidad de publicar la revista en la forma impuesta por el Gobierno, han hecho perfectamente en suprimirla y les felicito por ello (...).

Sólo digo (pero de veras) que V. para empresas como la de *Euskalzale* (...) que tiendan a emancipar á nuestra raza de la injusta opresión en que se halla, me tiene y me tendrá siempre é incondicionalmente a su disposición, dispuesto a todo con los cuatro ochavos que haya en mis bolsillos, con mis brazos y con mi pobre inteligencia (...”).

Jose Antonio Arana Martijaren hitzetan, “hainbat arazotan sartuta zegoen Azkue eta ‘hiztegia ere burutzen ari zen. Laguntzaile bat behar zuen bai katedrarako eta bere lanetan ardura pixka bat beste baten eskuetan uzteko” (23). Azkue berehala interesatu zen artean Siguenzan zegoen gazte hartaz. Goian aipatutako gutuna jaso eta egun batzuetara, 1900.eko otsailaren 9an, Azkuek datu gehiago eskatu omen zizkion. Hona hemen Bustintzaren erantzuna:

“Soy hijo de un maestro cantero de Mañaria; á los doce años de edad fui a Almansa á casa de un tío mío natural de Abadiano, é hice allí los

(21) 1896.eko abuztuaren 25koa.

(22) Ibidem.

(23) Op. cit.

estudios del bachillerato; más tarde estudié en Madrid la carrera de ciencias físico-matemáticas, licenciándose en el año 1895; entonces vine á este Colegio-Seminario encargado de la enseñanza de Ciencias, y aquí estoy” (24).

Osaba eta anai-arrebekin bizi zen lehen, gero, osaba hil zenean, aita eta ama ere Almansara joan ziren. Etxean guztiekin euskaraz hitzegin zuen, “y solo con esto comprenderá usted que no hay nada de particular en que yo haya resultado, á pesar de tan larga ausencia de esa tierra, en bizcaínazo tan auténtico y tan castizo como el pastor que con más garbo zarandee las abarcas por entre los peñascales de Mañaria”. Gutun hartan Bustintzak eskertzen dio Azkueri “por su ofrecimiento de trabajar por mi repatriación, en el caso de que me viniera bien”, katedra bat lortzeko aukerarik zuenik ez baitzuen uste Mañarikoak, eta horregatik “estoy decidido á dedicarme á cualquier profesión adaptable á mis alcances y á mi instrucción, siempre que me proporcione de una manera estable ó permanente lo necesario para vivir modestamente como yo acostumbro”. Ebaristo Bustintzak 33 urte zituen, frantsesa eta inglesa piska bat bazekeiten, eta berdin zitzaison “la índole del trabajo con tal que yo pueda realizarlo”. Ziur aski, gero *Kirikiño* izango zenak ez zuen ezta pentsatu ere lanbide hori kazetariarena izango zenik.

Baina Azkuek bai. Artea bazuen beste aldizkari bat argitaratzeko asmoa, eta halaxe esan zion Bustintzari 1900.eko apirilaren 6ko gutun batean. Azkuek gauza batzuk galdu zizkion: nolako euskara erabili beharko zuten, aldizkariaren izena, eta, garrantzitsuena, ea zuzendaria izan nahi zuen:

“Pero no puedo aceptar por la sencilla razón de que no he sido nunca periodista, ni de cerca ni de lejos, ni sé con qué se guisa eso” (25).

Baina Resurrección M.^a de Azkue ez zen aise errenditzen direneta-rikoa, eta insistiu egin zuen, Bustintzaren ezetzak errepikatu baziren ere (26). Azkueri Bustintza Euskal Herriratzea interesatzen zitzaiola garbi zegoen; aldizkariarena ezezik, beste gauza batzuk ere proposatu zizkion: Sotaren semeen irakasle moduko bat izatea, estate baterako, Bustintzak onartu ez zuena zeren eta “umezaiña zan irakaslea baiño geiago” (27), edota Azkuek prestatzen zuen hiztegi eskergarako laguntzaile izatea. Hasieran ezetz esan bazion ere (“usted cree que yo domino

(24) 1900.eko apirilaren 3ko gutuna.

(25) 1900.eko maiatzaren 13ko gutuna, Sigüenzatik bidalia.

(26) “No puede Vd. figurarse lo que siento haber perturbado su proyecto de la creación del periódico con negarme a dirigirlo. ¡Si yo tuviese un barniz siquiera de periodista, con qué gusto me pondría a su disposición!”, erantzun zion Bustintzak Azkueri 1900.eko ekainaren 27ko gutunean.

(27) 1900.eko urriaren 21ko gutuna.

el idioma y no hay tales carneros” (28), dio artean Siguenzan bizi zenak), gero hiztegian (eta aldizkarian) parte hartza onartu zuen. 1901.ean Bilbora joateko prestakuntzak hasiak ziren, eta urte hartako gutunetan behin eta berriro aipatzen da aldizkariaren asmoa. Kazetak badu izena: *Eguna*, Bustintzak proposatu zituen beste guztiak alde batera utzita (29): *Ze barri?*, *Barrizale*, *Barridun*, *Or emen*, *Azaldari*, *Batzaille*, *Agerkari*, *Euskalzale* eta *Geutarra*, garai hartan modan zeuden erdarazko izenak itzultzea, “como la Voz de tal, ó el Eco de cual” ez baitzuen batere gogoko.

Arazo batzuek atzeratu zuten Azkueren aldizkari berriaren agerpena: lehena Bustintzak zango batean nozitu zuen istripua izan zen. Argi dago, ordea, benetako zuzendaria Azkue bera zela. Ikus dezagun zer diotson Bustintzak Azkueri 1901.eko urtarrilaren 6ko gutunean:

“(...) Escribi a V. el [1900.eko abenduak] 27 dándole noticia de lo que sucedía, y le encomendaba que me enviase el periódico, dirigiéndolo a mi hermano Paulino, el cual ha de ser suscriptor; no lo hemos recibido, y esto unido a que en el Noticiero Bilbaíno no he visto la noticia de su publicación, me hace temer si a última hora habrá habido alguna dificultad por parte de la autoridad que haya hecho fracasar el proyecto”.

Hurrengo gutun batean, Azkuek baiezttatzen dio agintariekin oztopoak jartzentzela aldizkariaren bidean. “Era de temer”, dio Bustintzak 1901.eko urtarrilaren 29ko gutunean, “sabiendo cómo las gastan en esta tierra en achaques de libertad”. Osasun arazoak behin konponduta, 1901.eko uztailaren 26an Bustintzak ezagutarazten dio Azkueri Bilbora doala. *Eguna* agertzeear zegoen, nahiz eta arazo politikoak egon: Azkuek kaleratu nahi omen zuen urte hartako martxoaren 6rako.

Ez zen egun hartan agertu, ez eta urte hartan ere. Azkueren euskarazko bigarren aldizkariaren lehen zenbakia 1902.ean argitaratu zen, urtarrilaren 5an. Handik bi urtetara igandero agertu zen, “bizkaitarrez eta guipuzkoarrez eguiña”, *Bloak* (Bustintza Lasuen Olaso Aguirreren akrostikoa) zuzendua, izenez behintzat. *Ibaizabal* kaleratu ahal izateko, Azkuek berriro Tomás José de Epalzaren laguntza izan zuen, 1902.eko urriaren 30ko gutunean ikus daitekeenez.

Ibaizabalek Euskalzaleren bideari jarraitzen zion, eta Azkueren asmoa euskarari aldizkari bat ematea zen (30). Beste gauza batzuk bezala, Azkuek argi eta garbi ikusten zuen komunikabideek hizkuntzei bultzada haundia egiten zietela munduko bazterrik izkutuenean ere:

“Gaur Boerrak eta Inguesak eztaba idan darabilen errialdeko guizon baltzak be, euren izkuntzetan periodikuak daukez (...)” (31).

(28) 1900.eko ekainaren 27ko gutuna.

(29) 1900.eko maiatzaren 13ko gutuna.

(30) Iku 1. zenbakia, 1. orrialdea.

(31) Ibidem.

Hala ere, bazegoen *Ibaizabal* eta *Euskalzaleren* arteko ezberdintasunik: idazkera horietako bat zen. Azkuek Bustintzaren aholkua kontuan hartu zuen: *Bloak*, kazetaritzan berria izan arren, ederki susmatzen zuen ahalik eta irakurlego haundienera ailegatzeko, hizkuntzak ere ahalik eta errazena izan behar zuela. Ikus dezagun zer esaten zion Azkueri lekeitiarrak bere aldizkari berriaren zuzendaria izatea proposatu zionean:

“Sobre la ortografía creo que será mejor no chocar con el pueblo, y escribir de modo que la mayoría pudiese leer de corrido o sin esfuerzo, porque habrá muchos, sin duda, que desmayarán si les cuesta trabajo entenderse de lo que leen” (32).

Bustintzak, aldi berean, gogoratzen dio Azkueri *Euskalzale* irakurtzen zuten askok esaten zutela Azkuek erabilitako hizkera zela “vascuence (...) *sui generis*, no el que hablábamos todos, sino uno inventado para su uso particular por los que tenían afición a estudios filológicos” (33). Bustintzak tarteko idazkera bat proposatzen zuen, “zezena” eta ez “cecena”, adibidez, edo “katua” “catua”ren ordez, baina “guizon”, eta ez “gizon”; “rr” bikoitzak ere mantendu behar zirelakoan zegoen. Hala egitea deliberatu zuten “Hendaya-ko Batzarrak berari jagokazan frutuak emon arte” (34).

Ortografia edo idazkera ez zen *Ibaizabalen* berrikuntza bakarra. Bizkaierak eta gipuzkerak elkarrekin bizi behar izango zuten. Orduan ez zuen Azkuek bere gipuzkera osotua proposatu, eta bizkaieraz idazten zuen gehienbat. Mamia ere, nolabait, berria zen. Edukin literarioak, mantentzen baziren ere neurri haundi batetan, beren lekua uzten zihoa-zzen edukin informatiboei. Hala definitzen zuten Bustintzak eta Azkuek beren aldizkaria:

“Abegui on bat euki bear leukela IBAIZBAL-ek uste izan leike, da-roazan kondeziño edo baldintasunakaz: erreza irakurtea, erreza adituten, al-bisteduna (gaur albiste edo barriari gora andia emoten iake), euskalerrrian gaur entzute guien dauken izkirralari edo eskritoreen bertso ta irakurkizunakaz, eta ganera ondo merkea (...)" (35).

Lau zutabetan banaturik, *Euskalzalek* ez bezala irudirik ez zeukan (36). Nolabait esateko, *Ibaizabalek* garaiko egunkarien antza zeukan, bai kanpoko ezaugarriei, bai edukinei dagokienez. Atal egonkor batzuk bazituen, hala nola lehen orrialdean ezkerreko bi edo hiru zutabetan si-nadurarik gabeko artikuluak (ezizen batzuk agertzen ziren: *Bloa* —*Eba-*

(32) 1900.eko maiatzaren 13ko gutuna, Sigüenzatik bidalia.

(33) Ibidem.

(34) *Ibaizabal*, 1902.eko urtarriaren 5, 1. zenbakia, 1. orrialdea.

(35) Ibidem.

(36) *Ibaizabalek* ez zeukan inprimategi propiorik, eta La Editorial Vizcaínaren moldiz-tegian egiten zen.

risto Bustintzarena—, *Eketa eta Akordagoitia*, batez ere), ziur aski Bustinta edota Azkuerenak. Olerki edo ipuinaren batek betetzen zuen lehen orrialdearen gainontzekoa.

Bigarren orrialdean astero agertzen zen “Baserritarrentzat” izeneko atala, nekazal gaietako noski, Zumelaga delako batek idatzia. *Ibaizabalen*, hurrengo euskal aldizkarietan bezala, baserritarra ondo zaintzen zuten. Horrelako nekazal atalak ia euskal aldizkari guztietan agertuko ziren. Nekazarientzako eskolak, apaizek gidatuak, proposatzen zituzten, haiek “izan litezke gauz ontan maisuak”, eta Madrileko *La Industria pecuaria* eta *El progreso agrícola y pecuario* eta Pariseko *Journal d'Agriculture Practique* irakurtzea gomendatzen zuten (37). Ez da batere harritzeko, beraz, *Gipuzkoako Nekazaritza* aldizkaria sortu zenean harrera ezin hobea izatea *Ibaizabalen* aldetik (38).

“Adiskide bi autuan”, “Euskaldun erdalzalea” edo beste atalen batetik osatzen zuen bigarren orrialdea. “Asteko berriak” (Bizkaia eta Gipuzkoakoak, batez ere), oso motzak, “Izkirimiriak”, “Igarkizunak” aurki zitezkeen hirugarren eta laugarren orrialdeetan, folletoiarekin batera.

Idazleen artean, Ebaristo Bustintza eta R.M. de Azkue izan ezik, beste izen ospetsu batzuk ere aurki ditzakegu: *Ibaizabalen* beren olerkiak argitaratu zituzten, esate baterako, Emeterio Arresek, Felipe Arrese Beitiak, Ramon Guelbenzuk, Victoriano Iraolak, Enrique Elizecheak, Eugenio Urrozek, Jose Artolak eta Pedro Enbeitak. Poesia asko agertu ziren *Ibaizabalen*, 1902.eko otsailean “Bertso-batzaldi” bat antolatu baitzuten, “Tabernaren bizimodu” gaia zelarik. Saria Eusebio M.^a Azkueren *Parnasorako bidearen* ale bat zen. Paulo Zamarripak, F. Arriolak, Basilio Joannateguyk, Jenaro Elizondok eta K. Amonarrizek beren artikuluak argitaratu zituzten. Ezin ahaztu, bestalde, geroagoko euskal kazetaritzan oso garrantzi haundia izango zuen Gregorio Mujika.

Ibaizabalen folletoiak ere agertu ziren, gero La Editorial Vizcaínak (aldizkaria bere argitaratzen zuen argitaldariak) liburu moduan kaleratu zituenak: Moguelen *Berbaldiak: Eguren Santu. Arratsalderakoa* eta B. Mokoroa tolosarraren *¡Aitortu eguin bear!! edo guraso baten eztuamenak. Eguintza bakarreko jostirudi edo komedia* 1902.ean agertu ziren. *Pachiko Cherren* eta Jose Artolaren *Bissente. Jostirudia bi eguintzetan* 1903.ean agertu ziren.

Idazleak aztertuta, irakurlegoaz ere zerbait esan beharko genuke. Ezin esan zehatz-zehazki nortzuk irakurtzen zuten *Ibaizabal*, baina jakin badakigu aldizkariaren egileek norengan jartzen zuten beren konfiantza:

(37) *Ibaizabal*, 1902.III.29, 13. zenbakia, 1. orrialdea.

(38) 1903.XII.6, 100. zenbakia.

apaizengan, hain zuzen ere, nekazariengana heltzeko baliabide bezala. Horregatik, ez da apaizei eta Euskal Herriko goiko gizataldeei gaitzespenik falta:

“Gure ustez, euskeraren barrengo gaitza, euskerazkoa da, guk guerok sortua. Euskalerriak gaur bere izkera gauza guchitzat daduka. Ona zeiñ dan onen gaitza izugarria. Apaizak, aundikiak, ezpañetan bizarreta eskuetan makilla darabilten guizonik gueien gueienak erderaz ari dira elkarren artean. Au badakite nekazariak; eta guero uste dute euskera, mendiko belarrak kaletako arritartean bizi ezin diran bezela, uri aundietan jende-artean ezin bizi litekela (...).

Gafiera, elizarako liburu bat edo beste izan ezik, beste liburu ta paper guztiak erderazkoak dirala ikusten da (...)" (39).

Ez da kausalitateko gauzarik Azkueren aldizkariak Bilbon agertzea. Bizkaiko hiriburuko kaleetan entzuten zen euskara ez zen bilbotarrena, inguruko herrietako nekazariena baizik. Euskara galdua zeukan hiri hartan, heziketa ekonomiko eta industrial izugarriarekin, Sabino Arana Goiriaren abertzalesuna sortzen ari zen. *Ibaizabal* ere sartuko zen abertzalesun hartan, Bustintzaren eraginez. Euskarari dagokionez, hona hemen nola deskribatzen zuten *Ibaizabalgoek* Bilboko egoera:

“Bilboko kaleetan entzuten dan euskera guztia edo gueiena nekezale antzekoak, baserritarak umezaiñak, iñudeak, arrain-saltzalleak eta onetari-koak eguiten dabe; Jaun usañik daukenen artean guichi edo bapez (...). Ze-gaitik da, bada, onek euskeraz ez bera eguitea? (...). Askoren artean, oitura dagozalako gazte gaztetatik emen gogamenak arguitara erderaz ateraten, batetze bere abade, leguegizon, osaguille, ta ikaskuntzetan luzero ibilli direan guztiak (...)" (40).

Euskaldunak ez zeuden batere ohituta euskaraz idatzitako libururik eta, are gutxiago, aldizkaririk ikusten. Egoera hori leuntzera etorri zen *Ibaizabal*, ironiaz beteriko elkarrizketa imajinario honetan bere egileak azpimarratzen zuenez:

—¡Ene! ¡Euskeraz bere eguiten dira *periodikuak*?
 —Bai, guizon; euskeraz berba eguiten dogun leguez, bardiñ... edo *obeto*.
 —¡Euskeraz eguin leiz ba?
 —¡Zergaitik ez? —Erderaz baño eziñ eguiñ leikezala uste izan dot (...)" (41).

Gehitxo badirudi ere, egia da. Ia mende erdi bat geroago, 1945. aldera, Spainiako Gerra Zibilaren ondoren BBC Londresetik euskarazko irratsaioren bat emititzeari ekin zionean, Bizkaiko kostaldean jasotzen ziren programa haien. Hango euskaldunek —batzuk lerro hauek idazteko

(39) 1902.I.26, 4. zenbakia.

(40) 1902.I.12, 2. zenbakia.

(41) 1902.VIII.21, 31. zenbakia.

momentuan zaharrak ez direnek— harrituta geratu ziren, euskara irratiz edo telefonoz hitzegiteko gai ez zela uste baitzuten (42). Bainatxoa itzul gaitzen 1902. urteran, Azkue eta Bustintzarekin batera.

Urte hartan, Sabino Arana Goiriren heriotzea gertu zegoelarik, ez zen batere erraza politikatik at egotea. *Ibaizabalgoek* hala agindu zuten:

“Ez, guizonak, eztago ta ezta egongo IBAIZBAL partidu onen edo bestearen alde, ta gaur arte, alde batzuetatik eta besteetatik, berba onak eta zorion opaketak baiño eztoguz artu, kontuz ibilli garealako politikaz urrun-dik bizi izateko (...). Orisse da ta izango da gure azalkaria, *iGora Euskeria!* ez besterik” (43).

Euskararen defentsa hartan, politiko batzuren alde eta beste batzuk kontra jarri behar izan zuten. Romanones gorrotatuena zen, zeren eta ministro zenean “agindu eban ez irakasteko euskeraz kristinuaren dotriñea eskolaumeai” (44). Aldi berean, Jose Mari Urkijo diputatua gorai-patzen zuten Madrileko Kongresuan botatako hitzengatik, Romanonesen aginduen kontra zihoalako hain zuzen. Sozialistak (“sosolistoak” deitua) ere ez zituzten oso begiko.

Garrantzitsuena, gure ustez, Bustintzaren jarrera zen. Arana Goiriren abertzalesunetik gero eta hurbilago zegoen (45). Geroago, dakigunez, Aranaren euskarari buruzko tesien defendatzale sutsuenetariko bat izan zen, eta Akademiaren kontrakoa (Euzko Alderdi Jeltzaletik gertu zegoen Euzkeltzale Bazkunakoak eta 30. urteetan *Euzkerea* aldizkaria urrunago ailegatu ziren gatazka hartan). Azkue, bere aldetik, Aranaren ideia politikoaren alde egon bazen ere, hizkuntzari dagokionez nahiko urrun zegoela, esan daiteke. Bustintzari dagokionez, ikus dezagun nola defendatu zuen 1902.ean gartzeleratu zuten Arana Goiri:

“Euskerea maite eban guztia adiskidetzat ezagutuko ebala esan ebanez IBAIZBAL-ek bere lenengo gueian, da Sabino Arana jauna euskerazalea dala edonok dakienez; euskerazalea dan aldetik, guk be atsekabe dogu bere katigutasuna, ta ainbat lasterren zabalduko al deutsez ateak, bai berari ta bai Damaso Arana-ri be” (46).

Euskararenganako maitasunak eraman zuen abertzalesunera. Berriro azpimarratu behar dugu Bilboko egoera berezia, gero eta industria-

(42) 1991.ean Ander Manterolak kontatutako pasadizua.

(43) *Ibaizabal*, 1902.eko ekainaren 1, 22. zenbakia.

(44) 1903.V.24, 73. zenbakia.

(45) Hona hemen Sabin Arana Goiri hil zeneko *Ibaizabalen* argitaraturiko oharra: “Aziak emon dau landarea, ta landara onek bota dauz sustarr sendoak Bilbon, da emendik zabaldu dira ia Bizkaiko ta Guipuzkoako erri askotara, ta gaurko gazteria guizondu daiteanean ikusiko dau bizi izanga danak zelango sendotasuna ta indarrra artuko daben landara onek (...). Bustintzaren hitzak dira, 1903.eko azaroaren 29an, 99. zenbakian agertuak.

(46) *Ibaizabal*, 1902.eko ekainaren 22, 25. zenbakia.

lizatuagoa zen hiri hark Euskal Herritik kanpo jaiotako pertsona pila jasotzen zuen hiri hartako euskaldunak egoera berriak euskararen aurka jokatuko zuelakoan baitzeuden:

“Zeiniek sinistu bear zuen emen onenbeste euskerazko paper saltzen zi- rala ikusirik kale guziak gallegoz, neparrez, andaluzez, frantzezez, eta itz bat- tean bukatzezo, euskalerritik kanpoko jendez beteak, emengo fabriketan eta burnibidetan lana eguitera etorriak?” (47).

Jarrerarik gogorrena Bustintzarena berarena zen:

“Herbestekoak, guciagoko barik eta herbestekoak dalako bakarrik, iñok eztau charto artu bear; bada ezin izan daike guizon guztiak bizi izatea jaio garean tokietan, bizimoduaren billa joan bear izaten dogu herbestera sarri- tan goseak illgo ezpagaitu. Orregaitik, gure lurrera kanpotar asko datozkigu leguez, euskaldun asko dago zabalduta ogua irabazten herbestean (...). ¿Euskaldunak herbestean eguiten dabeena eguiten al dabe emen maketoak? Banaka banaka bat alde batera kendu ezkero, beste guztiak urrik emon bere ez. Euskereari gorroto andia deutse (...). Bertako semeari goitiik begiratutene deutse, uste izanik eurak baño askozaz guichiago dala; gaztelako erdera ondo berba eguiten eztabelako, basati edo *salvaje-tzat* dauke (...). Emengo baserritarra dala esaten dabe animalien artean guizonen antzik andiena dau- kana. Au ezta neuk asmaua, au neuk irakurri dot Bilbon maketoak maite edo estimau dauken albistari batek (...). Emengo Lege-zar edo Foruen kon- trakoak dira (...). IBAIZABAL-ek eztau gaur besterik eguiñ jazoera onen sustarrak aguirian ipiñi baño. Bere aldetik, eztauko maketoen gorrotorik; deskuilla gueiago dauko euskaldun charrakaitik, bada guek ondo maite ba- guenduz gueure Euskerea ta gueure gauzak, ezkendukez galduko, munduan direan belarrimotz guztiak baletorkiguz bere” (48).

Konponbide bakarra erdaldunek euskara ikastea zen (49). Esan be- zala, denboraren poderioz Ebaristo Bustintza eta R.M. Azkue euskarari buruzko bi ideologiaren buru bihurtu ziren.

Ibaizabal Euskalzale baino informatzaileagoa zen. Honek ez du ino- laz ere esan nahi edukin literarioak alde batera utzi zitzutenik, baina poesiak, ipuinak eta bestelako literatur testuak edukitzeaz gain, bazeu- kan oso informatzailea zen beste atal bat, “Asteko berriak”. Ez zen oso ideia berria, lehenagoko beste euskarazko aldizkariren batean egon baze- zegoelako horrelako atal bat, hala nola Pariseko *Gure Izarra* harten. Hego Euskal Herrian, ordea, *Ibaizabalek* hasiera ematen dio geroagoko euskal aldizkari ia guztietan errepikatuko den informazio mota oso garrantzitsu bati, herrietako informazioari, tokian tokiko informazioari. Atal hori osatzeko, Azkue eta Bustintzaren aldizkariak bazeukan berriemale sare bat,

(47) Enrike Elizeche: “Beti euskaldun”, *Ibaizabal*, 1903.eko martxoaren 8, 62. zenbakia.

(48) *Ibaizabal*, 1903.eko abuztuaren 18, 85. zenbakia, 1. orrialdea.

(49) 11903.V.17, 72. zenbakia.

22 pertsonek osatua. Gehienak gipuzkoarrak ziren, hamabost zehazki. Besteak (zazpi) Bizkaikoak. Uste izatekoa da, beraz, *Ibaizabal*, Bilbo alde batera utzita, Gipuzkoan Bizkaian baino gehiago saldu eta irakurtzen zela, aldizkaria egiten zutenek ere uste zuten bezala:

“Eta ziur eztakit, baiña neure buruko ule zuri guztiak bere jokatuko neukez, Guipuzkoan Bizkaian baiño euslari edo suskritore, ta irakurlari gueiago daukazala. iOker egongo al naz onetan!” (50),

zioen A.L. Aranbeazkoak, eta *Ibaizabalgoek* baietz erantzun: “Ez jauna, zuzen zagoz”. Aranbeazkoaren beraren ustez, Bizkaian ez zen behar aina irakurtzen” politika madarikatutik, (...) euskera utsean dagoalako, *bizkaitarrista-tzat* artutea. Ausse beifiipeiñ esaten eben *Euskalzale*-gaitik nik da-zautazan bizkaitar batzuk”. Hori zela eta, hizkera zela eta edo Gipuzkoa eta Bizkaiko egitura soziolinguistikoen arteko ezberdintasunak zirela eta, Gipuzkoan gehiago saltzen zen: Bilbon ezezik, Bizkaiko zazpi herriotan ere banatzen zen (Bermeon, Lekeitio, Lemoan, Plentzian, Mungian, Markinan eta Durangon), eta Gipuzkoan hamabitan (Donostian, Azpeitia, Bergaran, Tolosan —Baleriano Mokoroa arduraduna zen—, Irunen, Deban —banatzalea ostatuko jabea zen, Esteban Egaña, abertzale sutsua, *Arabarria* aldizkarian argitaratu zituen iragarkietan ikus daitekeenez—, Zumaian, Zarautzen, Oñatin, Arrasaten, Eibarren eta Errenterian). Errente-rian asko saltzen omen zen, Bustintzak berak aitortzen zuenez:

“IBAIZBAL-ek Errenterian aïña irakurle daukan uririk eztago ez Bizkaian ez Gipuzkoan, Bilbo alde batera kendu ezkero; eun da berroguedamarretik eun da irurogueira lagunek artzen dabe Errenterian euskerazko albistaria, euskerazkoa dalako (...)” (51).

Hona hemen euskal aldizkarien gaitza, beren sortzaileek nahi adinako irakurle ez izatea. Ezinezkoa da *Ibaizabalek* zenbat erosle izan zituen jakitea; ziur aski, bi mila baino gutxiago. Dena den, ez aldizkariak sortzen zituen zorrak ordaintzeko behar zituzten beste:

“Aitorru bear dogu igaz IBAIZBAL-ek ezebala irabazi bera bizi iza-teko laiñ, ez gichiago bere; asko galdu eban, ta aurten beste ainbeste guertatzeko bidean goaz. Argui dago bide ori eriotzakoa dala” (52).

Oker ez zeuden. 1904.ean ez zen *Ibaizabal* agertu. Azken zenbakia 1903.eko abenduaren 27ko da. Resurreccion M.^a de Azkuek eta Ebaristo Bustintzak 103 ale kaleratu zituzten. *Ibaizabalek* eredu bati hasiera ematen dio, gero, 20. eta 30.eko hamarkadetan *Argiak*, adibidez, gauza askotan jarraituko duena.

(50) Aranbeazkoa, A.L.: “Euskaldun motelak”, *Ibaizabal*, 1902.eko uztailaren 6, 27. zenbakia.

(51) *Ibaizabal*, 1903.eko otsailaren 22, 60. zenbakia.

(52) 1903.III.1, 61. zenbakia.

HIZTEGIGINTZA

COMMENTAIRE CRITIQUE DES “MATERIALES PARA UN DICCIONARIO ETIMOLOGICO DE LA LENGUA VASCA” (Suite). ASJU XXIII-1-1989, pp. 133-203 ARDUN-ASTALMENDA

Michel Morvan

P. 134

Areaitzinago L. ‘en adelante’. El 2.^o elemento es *ai(n)tzin*, en R. *areantxina*.

L’explication de ce terme composé est incomplète, puisqu’il n’y a aucune mention du premier élément *are*, ni tentative d’en rechercher l’origine, ce qui peut paraître surprenant. Il convient de penser ici à plusieurs solutions possibles: la première consisterait à voir dans *are* une forme contractée de *aurre* “avant, devant”, mais d’une part il y dans *aurre* une vibrante forte et d’autre part cela créerait un pléonasme, puisque *aintzin* veut dire la même chose. La seconde solution, consiste à rapprocher *are* de *aro* “temps”, ou mieux encore du gascon/béarnais *are*, *aro* qui, avec le sens de “temps” est utilisé dans l’expression *d’are en aban* dont on voit bien que le basque est un calque parfait. La même formation se retrouve dans le français *dorénavant*.

P. 135

Aren V.(arc.) ‘tercio’. No parece aceptable una especie de alternancia vocálica con *irur*, como han propuesto algunos (de *iru*). La etimol. es oscura.(v. también *(h)eren*)...

Le moins que l’on puisse dire, c'est justement que l'étymologie de *aren* “troisième” n'a rien d'obscur! Ce n'est pas avec *irur* qu'il faut poser une alternance, en effet bien improbable, mais précisément avec *(h)eren*, dont l'alternance avec *aren* est tout à fait normale, car on a régulièrement *a* dans les dialectes occidentaux (ici le biscayen) pour *e* dans les dialectes orientaux du basque (cf. occ. *barri*/or. *berri* “nouveau”; occ. *amen*/or. *(h)emen* “ici”, etc.).

P. 139

Argizagi ‘luna’, ‘cera’, *argizal* V, G (contrac. *arzagī* BN) ‘cera’, ‘luna’, *argizari* ‘luna’, AN “cera”.

Les explications données sont valables. Il aurait fallu toutefois réserver une entrée à *argizaiola* “cire de deuil” (planchette autour de laquelle on enroule le cierge) que l’on trouyera sous l’entrée *argizol* pourtant beaucoup moins répandue.

P. 139

Argi-zeiñu S ‘campana del alba’. De *argi*. El segundo elemento es occit. ant. *senh* (cat. *seny*) ‘campana’ (< lat. *signum*).

L'emprunt en question a été fait au latin, directement, et non à l'occitan. C'est bien pourquoi on a *zeiñu* avec conservation de la voyelle -u que l'occitan a perdue bien évidemment. Les auteurs donnent bien le latin comme origine première, mais la formulation de la glose est très maladroite.

P. 140

Il manque une entrée pour *Argorri* (Hirib.) “cochenille”, de *ar* “ver” et *gorri* “rouge”.

P. 142

Ariel V. ‘sisas, arbitrio’. Corominas sugiere una alteración del cast. *arancel* ‘lista o tarifa de derechos que se pagan por algo’ (caso *arenzela/lenzel* pudo combinar en **arerel* en vasco y luego disimilación? Cf. Corominas 1,245).

Cette solution, si elle n'est pas impossible, me paraît peu économique en l'occurrence. L'expérience que j'ai des emprunts que le basque a fait aux langues voisines me montre que les déformations des mots sont statistiquement beaucoup moins importante qu'on pourrait le croire.

P. 146

Arkarakatz "rose sauvage". J. Braun "Euskaro-caucasica", *Iker* 1,217 relaciona con v. georg. *kirkati, kurkantel-a* "majuelo".

Le rapprochement proposé par Braun demeure douteux. Il faut en tout cas souligner le caractère expressif probable de ces termes.

P. 147

Arkhin L, BN, S Cagarruta de oveja. De *ardi* 'oveja'. La segunda parte para *EWBS* es *-khin* 'hedor' (!).

Evidemment non! Laissons Löpelmann à ses fantaisies. La seconde partie du composé est constituée de *-kin* "faire", "qui fait". Ou mieux encore "qui est fait" par la brebis. On dit "faire ses besoins" en français.

P. 148

Arku BN, S "arco". Prestamo evidente; esp. *arco*, fr. arc, mejor que lat. *arcum*.

On aimeraient bien savoir en l'occurrence pourquoi l'emprunt au roman est meilleur que l'emprunt au latin (?).

P. 148

Arkume 'cordero'. De *ardi* "oveja". El segundo elemento es (*k)ume* "cría" (Cf. S *häme*), cuya *k-* no se sabe si es originaria (Hubschmid, *Thes. Praerom.*, 2,47).

Il est vraisemblable que le *k-* de *kume* soit secondaire puisque le basque répugne a priori aux sourdes initiales. Cp. *keta* < *-eta*; *kide* < *k-ide* < *-ide*, etc., par lexicalisation.

P. 148

Arkux? 'excavación en la roca'. De *arri* probablemente.

La seconde partie du terme n'est pas expliquée. Il faut y voir tres vraisemblablement (*h)uts* "vide".

P. 153

Arnegari L (Ax) ‘blasfemo’, ‘apóstata, renegado’; *arnegu* V, G, AN, L, BN, S ‘blasfemia’, ‘apostasía’ ‘reniego’; *arnéga(t)* S ‘renunciar, renegar’, *arnegatu* G, AN *ernegatu* ‘blasfemar’, ‘renegado’ (ya en Dech. y Leiç., Mt. 26,74), *ernegu* (Supl. A²) G (según Uhl. *Vgl.L.*, 5). Se trata de formas románicas. Azkue *arnegari* del lat. *renegare*.

On notera que la syncope constitue une exception ici à la règle qui veut que les termes romans empruntés par le basque commençant par une vibrante *r*- donnent *arr-/err-* (en gascon également).

P. 153

*Arnes*²S ‘instrumento de trabajo’. Se trata de una forma románica, esp., prov. *arnés*, fr. *harnais* (de origen germ. **hernest* en ant. nord., y extendida desde el fr.: cf. *FEW* 16,205) que tiene también la acepción de ‘instrumento de trabajo’ (Lh., Littré, *Dict. Hist.*), o en vasco ‘vestido de modo despreciable’ (Larrasquet 65).

L’étymologie “romane” donnée est certes exacte, mais il convient d’être plus précis. Un emprunt direct au gascon *arnés* suffit largement. Le provençal n’a que faire ici!

P. 154

(*h*)*aro*¹ ‘tempero, temperie, temperatura: época, sazón’, *hau* (< *aro* Mich. *FHV* 328) ‘tiempo atmosférico’ Uhl. *RIEV* 3,11 lo recoge como suf., pues se usa como tal: *erearo* L ‘junio, tiempo de la siembra’, *azaro* ‘noviembre: época de la simiente’, etc.

Suivent des comparaisons avec *ero*, *oro* “tout” (*goizaro* ‘todas las mañanas’, avec *-ro*, avec *zaro*, avec le latin *hora*, gr. ωρα, etc. L’alternance *aro/zaro* est en effet indéniable. Elle est de même nature que celle de *apo/zapo* “crapeau”. Mais le *z*- est-il étymologique? Il manque dans la comparaison l’importante forme gasconne *are*, *aro* (S. Palay, *Dict. du Béarnais et du Gascon Modernes*) que l’on retrouve dans le basque *areaintzin*, calque du gascon *d'are en aban*, (fr. *dorénavant*, anc. fr. *d'or en avan*). Dans toutes ces formes on a affaire à des confusions possibles entre lat. *hora* > anc. fr. *ore*, *eure* “heure, division du temps, temps, instant, moment” et lat. *aura* “vent, brise” > anc. fr. *ore* “vent, brise, temps qu’il fait”. Notons aussi l’étrange *Olenzaro*, *Olenzero*, personnage de la

mythologie basque, dont l'étymologie demeure obscure. L'époque concernée (*zaro, aro?*) est la fin de l'année.

P. 155

*Arotz*¹ V, G, L *agotz* ‘carpintero’ (propriamente ‘ebanista’ según Azkue) G, AN, BN, R, S *harotz* BN, *harotx* L ‘herrero’, AN, BN, R, S ‘herrador’, G ‘martillador, oficial de ferreñas grandes’. Bouda, *EJ*, 4,334 relaciona estas formas con AN *erazle* ‘herrero’, y con los verbos *erazi* ‘hacer, ejecutar’, *arazi* “hacer, obligar” (q. u. (?)).

Les auteurs citent ensuite une série d'hypothèses à rejeter (bsq. *ari* ‘piedra’, lat. *faber*, etc., mais aucune solution n'est proposée. Il serait peut-être judicieux de rattacher *arotz* “charpentier, forgeron” à *ari* “être en train de faire quelque chose, être en activité”.

P. 157

Artaare V ‘rastra, cierto instrumento de labranza’; *artara/e* V, G ‘rastra de maizales’. De *are, ara*.

Seule la seconde partie du terme est analysée. La première partie est *arto* “maïs”.

P. 159

*Artazi*³, *artasi* R ‘bellota de encina’; *arthazi* S ‘simiente del maíz’ Sin duda de *arte*¹. El segundo elemento pudiera ser *-azi* ‘semilla’. Sin embargo, Mich., *FHV* 415 aduce el S y R *zī* ‘bellota’ < *zin-.

Il ya visiblement une confusion ici entre *arte* “chêne vert” et *arto* “maïs”. Le terme souletin ne peut pas venir de *arte* “chêne vert” étant donné son sens parfaitement clair “semence de maïs”.

P. 166

Artz V, G, HN, BN, R, *hartz* L, BN, S ‘oso’ (s. XVI en *RS*, y en Isasti, en refranes).

